

JOAKIN LIZARRAGA

ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO
ITZGAIAC

Edizio kritikoa
Frantzisko Ondarrak paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1984

176 6909

ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO
ITZGAIAC

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-10

JOAKIN LIZARRAGA

ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO
ITZGAIAC

10

Edizio kritikoa
Frantzisko Ondarrak paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1984

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
Ribera, 6 - Bilbo-5

I.S.B.N.: 84-85479-30-0
Depósito Legal BI: 983-84

Maketazioa: R.B.

Fotokonposaketa: Ipar, kooperatiba elkartea
Part. de Zurbaran, 2-4. Bilbo-7

Amado moldiztegia
Mazarredo, 35. Bilbo-9

AURKIBIDEA

Sarrera	13
<i>Bizi-xehetasunak eta euskalkia</i>	13
<i>Liburuaren mamia eta xehetasunak</i>	14
<i>Gure argitalpena</i>	15
<i>Hitz laburtuen azalpena</i>	15
<i>Hitz laburtuak eta azentuen arazoa</i>	15
I. GRAMATIKA LABURPEN BAT	17
Idazkera eta fonetika	17
<i>Alfabetoa</i>	17
<i>Idazkeraren arloan gehiago</i>	20
Morfologia	22
<i>Morfologia eta fonetika</i>	22
<i>Morfologia eta fonetika aditzaren inguruan</i>	24
<i>Morfologia eta fonetika adberbioaren eremuan</i>	28
<i>Morfologia eta izenlaguna</i>	29
<i>Morfologia eta izenorde mugagabeak</i>	30
<i>Morfologia eta zenbakiak</i>	31
<i>Pertsona izenordeak</i>	32
<i>Izenorde erakusleak</i>	32
<i>Edutezko izenorde eta izenlagunak</i>	33
<i>Morfologia eta partikulak</i>	33
<i>Morfologia eta atzizkiak</i>	35

<i>Izen arrunten deklinabidea</i>	38
<i>Izen nagusien deklinabidea</i>	40
<i>Pertsona izenordeen deklinabidea</i>	40
<i>Izenorde erakusleen deklinabidea</i>	41
<i>Izenorde mugagabeen deklinabidea</i>	42
<i>Zenbakizko adjetiboen deklinabidea</i>	44
<i>Zenbait adberbioen deklinabidea</i>	44
Joskera	45
<i>Hitzak nola dauden ipinirik elkarren ondoan</i>	45
<i>Izenaren eremuan edo inguruan</i>	45
<i>Izenlagunari buruz zerbait</i>	46
<i>Zenbait izenorde noiz eta nola erabiltzen diren</i>	46
<i>Izena eta zenbait eraenketa</i>	47
<i>Aditzaren eremuan edo inguruan</i>	48
<i>Joskera perpausetan</i>	51
<i>Joskera eta perpaus bakunak</i>	51
<i>Joskera eta perpaus konposatuak</i>	52
<i>I. Erkadan ipiniak, lokarririk gabe</i>	53
<i>II. Perpaus koordinatuak</i>	53
<i>III. Perpaus menpekoak</i>	54
II. ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO. ITZGAIAC	63
Liburuaren aurkibidea	63
Liburuaren aurkezpena, urtea etab.....	63
Arqui-vidia.....	64
0.	
Monita pro Sacerdote ad auxiliandum infirmis et moribundis opportunè.	66
Regulae pro visitatione infirmorum.....	70
1.	
Icustáldian alaitzeco edo animatzeco héria Sarr-éra.....	78
2.	
Prestatzeco ártzera elizaco ordenamentuac.....	85
3.	
Jaungoicoarí Gúrte, Adoráció, Laudário.....	95
4.	
Jangoicoarén cembáit óngui-egúinen ezauntza, Conféssioa, ta esquérrac.....	98

5.	
Donáció, errestitúcio, ta entréga Jangoicoai.	101
6.	
Arimarén Contrátua eta Páctoac Jangoicoaréqui.	104
7.	
Jaunarén Espirituaréqui gure Espiritua itzatzecó, oná börtz itze, baitire bortz C; Caridádea, Conformidádea, Confiánza, Contricióna, ta Compassiónea..	109
8.	
Conformidáde ta pacienciarén motivo cembáit ercadán, edo segúidan.	118
9.	
Conformidáde ta Pacienciarém motivoac beréchs bat banáca, ta ebén Actoac..	121
10.	
Cembáit Sanduen heritásun ta pacienciarén exémpu cembáit.	133
11.	
Héria despeitzerácoan gauóro.	137
12.	
Asteco prestátzen iltzerá: Oráño perill andiric eztelaríc, dagolaríc ezbaieán cér- tara emainduén. Conformátzeco, datorréna datorréla.	140
13.	
Iltzera doaienaarén conformatzecó, confortatzecó, ta consolatzecó iltzean.	144
14.	
Moguitzeco deseatzera vicitza seculacoa.....	149
15.	
Iltzea ontzát, edo óngui artzéco.....	152
16.	
Beldúrr humil confiatuarén.....	154

17.	
Iltzera prestatzecó, Actoac. Aita guréa, ta Elizaco orációac, edátus.	157
18.	
Protestáció labúrřfoac ilbañolén, indaizquénac, galdétus sacerdóteac, ta erres- pondátus heriac bai edo ez.	161
19.	
Conformidadearen Actoac iltzecó.	168
20.	
Fedearén Actoac iltzecó óngui.	172
21.	
Esperanzarén Actoac iltzecó.	175
22.	
Caridadearen Actoac, iltzecó.	178
23.	
Contricioarén Actoac, iltzecó.	181
24.	
Barcácio-esquearén Actoac, iltzecó.	183
25.	
Protestáció ta Propositoen Actoac.	186
26.	
Bérce esque-guisabatzuen Actoac.	188
27.	
Cembáit consoláció iltzeco óngui.	191
28.	
Iltzera doaienarí Eaquindea, edo Exhortációa.	194

	29.	
Iltzerácoan Eaquindea, ta Actoac.		205
	30.	
Agonían, edo azquen atsetán Eaquindea.		215
	31.	
Arima gorputzetic berechsi-ordúco.		222
	32.	
Methodus applicandi Apostolicam benedictionem, et indulgentiam pro articulo mortis.		224
	33.	
Ordo commendationis animae.		226
	(34.)	
Aliquót sententiae ex sacris litteris et Patribus selectae ad auxiliandum infirmis, et hic separàtim collectae, ut cùm opus est, in promptu habeantur		232
III. HIZTEGIA.		247
IV. ADITZ-JOKOAK.		307
V. BIBLIOGRAFIA.		315

SARRERA

Bizi-xehetasunak eta euskalkia

Joakin Lizarraga Elkano-n jaio zen, Iruñe-kin mugatzen duen Egues ize-neko ibarrean. Bere aita horkoa bertakoa zen eta bere ama Egozkue-koa, Anue ibarreko herrikoa. Jaio 1748. urtean jaio zen; hil, berriz, 1835.ean.

Ia bere bizi osoa Elkano-n egin zuen; ikasketak zirelarik bakarrik egon zen herritik kanpo: hiru urtez Iruñea-n, bi urtez Villagarcía de Campos-en jesuita izateko, eta beste bi urtez Iruñean berriz ere, apaiz ixtudioak bukatze-ko. Apaiztu 1771.ean egin zen eta urte horretantxe hasi zen bere predikuak idazten eta predikatzen bere herrian.

Bitza osoan, eten gabe, erruz idatzi zuen: direla sermoiak, direla kristau ikasbidearen azalpenak, direla koplak. Azken lana 1821.goa da. Den-denak, otoitzen bat kenduez gero, euskaraz daude; bere gutunak, jakina, gaztelaniaz daudelarik.

Bere lanetatik ez zuen bat ere ikusi inprimaturik. Bera hil eta hamaika urte igaro ondoren, izan zen argitaratua horietako bat, izen honekin: Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac. Gero, 1868. urtean, Bonaparte Printzeak beste bi eman zituen argitara: Jesus. Copla guisa batzuc... eta Jesucristoren evangelio sandua. Hemeretzigarren mendean izan ziren argitara emanak zenbait bertso; eta gure mendean, sermoiren bat eta bertso gehiago. Azkenik, Juan Apecechea-k eskaini digu berriki beste lan baten zati bat; hain zuzen, bilduma honen lehenengo zenbakia daraman liburukia. Apececheak be-

rak argitaratu ditu zenbait prediku eta José María Satrústegui-k ere hori bera egin zuen beste batekin.

Bere idatzi guztiak goi nafar hegoaldeko euskalkian daude. Euskalki honetan daude idatzirik Uterga-ko Abate izan zen «Iuan de Beriayn» eta Gesalaz-ko Muzki-n jaioa zen Francisco Elizalde jesuitaren lanak; baita ere Goñi eta Iltzarbe ibarretan aurkituak izan diren esku-izkribuak, José María Satrústegui-k eta Francisco Ondarra-k ezagutzera eman duten bezala. Azkeneko urte hauetan testu berriak agertu dira, Nuin, Uterga eta Otsagi-n aurkituak. Bestalde, guk prestatu dugun liburu hau atera baino lehen, bilduma honetan bertan agertua izango da, Lizarragaren koplak direla ta, Apececheak paratu duen liburukia.

Liburuaren mamia eta xehetasunak

Goian esan dugun bezala, gure idazlearen lanetan predikuak, kristau dotrinaren azalpenak eta koplak ikusten ditugu. Liburu honetan ez dago horrelakorik, baizik eta berak dioen bezala, «Erién óngui maneátzeco, eta ongui iltzen lagúntzeco, Cembáit itzgáien oroigarri ta asiéra, escritúra sagratuetáic, ta sanduetáic beréchsiac, escunará izáteco cêr errán bearrorduán Apez-Aitac bere hume espiritualeíi, cláro, pláu, ta sencillqui parátuac».

Hitz-gai hauetan, Lizarraga oso biotz-bera ageri da herien aurrean. Jaungoikoaren urrikaltasuna azpimarratzen du, eta ez zigorra. Gogorki gaitzesten ditu heriak ongi tratatzen ez dakitenak, hitz hauen bidez: «Cembáit imprudente vanoéi idurizaióte obé án egótea predicátzen heriarí gauza bérriac gutitán adituac, eta ori óius luzaró: baña devócio baño enfádo yágo ta moléstia ematendióte gutitáco dagonái. Obedá noizean noiz tantacá becála errátea cembait ácto labúrr sencill, útzis dembóra errepassátzeco ta considerátzeco hériac be-rebaitan» (85, 3).

Beste pasarte honek ere ongi erakusten du liburuaren espirituaren muina:

«Heribáti assistitzenció S. Felipe Neric: ta despeituric zoeieláic carrican ezaunduzué Jangoicoaren árguis arimagárren peligroa: itzulicé: aurquituzué yá desesperaturic casi: galdeguincio, bada norengátic passatuzué aimberce Jesus ónac? Arc, becatariengátic. Sanduac, eta zu cer zará? Becatári andibát ní: Orduán Sanduac, berás zureá dá ceruétaco erreinua, zuregátic pagatuzueláic aimberce Jesus ónac» (48-49).

Esku-idatziaren orriak aurretik bakarrik daude zenbatuak, lehenengoa eta guk 50 bis deitzen duguna, zenbatu gabe daudela. Lehenbiziko hamabiak latinez daude, izenburu hau daramatela: «Monita pro Sacerdote ad auxiliandum infirmis et moribundis opportunè» (2, 1); eta azkeneko hemezortziak ere bai.

Gure argitalpena

Liburuaren textuaren ondoan, bere honen atzetik, aurkitu ditugun hitz denak ipintzen ditugu; adizkiak zerrenda berezi batean ematen ditugula. Textuaren aurretik, berriz, gramatika laburpen bat egiten dugu; sinestaturik, hemen aurkitzen ditugun fenomenoak eta beste idatzietan ageri direnak, berdinak direla.

Ez dugu ahaztu behar, liburu hau 1807. urtean egina dela. Urte horretan «Azqueníc eguina»; beraz, urte hori baino lehenago da egina eta hausnartua, azken ukitua eta itxura orain ematen dizkiola.

Hau egitean, gure asmoa zera da, euskara bere zabaltasunean obeto eza-gutzea. Horretarako beharrezkoa da euskalkiak zehatzago ixtudiatzea, eta batez ere Lizarragaren euskalkia, textuak hain ugariak direlarik.

Hitz laburtuen azapena

<i>a.</i>	<i>aditza</i>
<i>ad.</i>	<i>adberbioa</i>
<i>ar.</i>	<i>artikulua</i>
<i>at.</i>	<i>atzetik</i>
<i>atz.</i>	<i>atzikia</i>
<i>erl.</i>	<i>erlatiboa</i>
<i>h.</i>	<i>harridurazkoa</i>
<i>gal.</i>	<i>galderetan</i>
<i>i.</i>	<i>izena</i>
<i>ik.</i>	<i>ikusi</i>
<i>il.</i>	<i>izenlaguna</i>
<i>io.</i>	<i>izernordea</i>
<i>j.</i>	<i>juntagailua</i>
<i>l.</i>	<i>laburturik</i>
<i>p.</i>	<i>postposizioa</i>
<i>z.</i>	<i>zenbakia</i>

Hitz laburtuak eta azentuaren arazoa

Lizarragak askotan hitzak laburtuta ematen ditu, maizenik hauekin egiten duela: becatu, borondate, gracia, Jangoico, Christio, Christo, lembicico,

Magestade, -mentu *silabak dituzten hitzak* (merejimentu, mandamentu, *etab.*), misericordia, proprio, Santissima, solamente, *etab.*

Azentuaren arloan ere baliagarri eta protxugarri izan dadin gure lan hau, hitz laburtuak kurtsibaz eta osorik ematen ditugu. Baina gertatzen da, beste arrazoi batengatik ere erabiltzen dugula kurtsiba, hots, esku-idatzian azpimarraturik daudenak adiarazteko.

Bi gauza horiek ez nahasteko, hau eduki behar da kontuan: pasarte edo esaldi oso bat dagoenean kurtsibaz, hori Lizarragan azpimarraturik dago; baina hitz bakar bat dagoenean kurtsibaz, hitz hori Lizarragan laburturik dago. Salbuespen bakanen bat badago, baina ez da oztoporik azentua ongi ix-tudiatzeko.

Noizean behin, eta dudak kentzeko, kurtsibaz dagoen hitzaren atzetik «(1.)» ezartzen dugu. Hau beti egiten dugu, hitz laburtua esaldi edo pasarte azpimarratu baten barruan datorrenean.

I. GRAMATIKA LABURPEN BAT

IDAZKERA ETA FONETIKA

ALFABETOA

Gaur egun erabiltzen diren grafemekin erkatzen ditugu Lizarragak erabiltzen zituenak.

Bokalak

Orain bezala, bokalak bost dira: a, e, i, o eta u. Diptongoren bat osatzen duenean ere, i idazten da bai hitzaren barrenean eta bai beraren bukaeran: maiéco 17, 3; zaio 18, 2; orái 13, 5.

Hala ere, hiatoa austeko edo, izenorde erakusleetan, eta horietan bakarrik, aurkitzen dugu -y- ere: ayéc 27, 1; ayén 22, 1; ayéqui 47at., 2; ayétas 80at., 5 (baina aiengána 81, 2); eta oyen 93at., 3; besterik ez. Ik. behean j eta bertan martyr, etab.

Kontsonanteak

b. *Erdararik datozen hitzetan gordetzen da jatorrizko b edo v; baina zalantzarik badago, eta horrela borondate (beti); estórvu 22, 1; vandéra 27,*

l; governabenáza 93at., 3. *Jatorriz euskarazkoak direnetan berriz, oso gutxitan aurkitzen dugu v: vide 24, 2; vici 1, 13.*

c. Ik. *behean k eta z.*

d. *Hemen ez dago diferentziarik.*

f. *Noizean behin -ff- erabiltzen du, latinezko etimologia kontuan hartzen duela. Hala: afféctoac 17at., 3; offrecítus 21at., 1; offensa 40, 1; etab. Hori bera gertatzen da beste kontsonante hauekin ere, latinetik datozen hitzetan: -gg-, -cc-, -mm-, -pp-, -ss- eta -tt-.*

g. *Zenbait aldiz bikoiztu egiten da: agrávio 90, 2; agraviatu 26at., 3 eta agraviatu 28, 1.*

Bestalde, /g/ fonema adierazteko, g eta gu erabiltzen ditu: oroigárrri (I), 1; Guero 30at., 4; eguín 14at., 1; Jangoico 19, 1; gu 15, 3. Uste dugunez, unguendu 'ungüento' esan behar da ungu-endu, ez unguendu.

h. *Erdarazko hitzetan ageri da gehien bat: humil 14, 2; Theología 17, 3; Oh! 27, 1 (baina Ô ere bai 27, 1). Euskarazkoetan hauetan bakarrik; hume (I), 1; etab. (beti); heri 14, 2 eta eri (gutxitan) (I), 1; alhaitzeco 15at., 3.*

j. *Hemen, ja, ge eta je, gi eta ji, jo, ju ikusten ditugu: jaio 34,4; gendáquia 16, 3; Jezabel 24, 2; escogitu 16, 3; mereji 18, 2; ajóla 17at., 1 eta traba-ju 17at., 2 (eta traballuaréqui 13, 5; baina behin bakarrik). Uste dugu, exémp-
plu 50at., 1 hitzean ere, orain tratatzen dugun soinua bera ikusi behar dela. Bestalde, y- ere aurkitzen dugu, baina hitz hauetan bakarrik: yágo 16, 3; yá 'ya' 22at.; yá 'ea' 38at.; eta -y- goian aipatu dugu, BOKALAK deitu atalean. Ik. baita ere martyr 55, 1; martyrio 55at.; martyrologio 67at., 4.*

k. *Honen soinua adierazteko, ca, que, qui, co eta cu edo qu erabiltzen ditu: escatzén 1at., 24.zenbakia; Azqueníc (I), 3; Eaquindea 1at., 28. zenbakia; maneátzeco (I), 1; seculacoa 1, 14. zenbakia; quarto 32, 3 eta quadratu 56. Ik. ere claro (I), 1; actoac 1at., 16.z. Bestalde, latinaren eragina dela eta, aurkitzen da -cc- ere: perféccio 33at., 4; Occurritzen 30at., 3; etab. Arrazoi berarengatic Christo eta Christio idazten du.*

l eta ll. *Erdal jatorria dela eta, edo aurretiko i soinua, behin baino gehia-
gotan ikus daiteke ll: ellegátzean 23at., 2; humillátua 118at.; llaga 66, 4; mil-
llon 65, 2; cillárr 17at., 3. Ez ordea beti; ibili 24, 2; ilúna 41 at., 3; humil
humíla 32at., 2; ilárrguiac 31, 6; ilaraci 53at., 3. Silaba itxiaren bukaeran
eta hitzarenean ere ageri daiteke ll: sencillqui (I), 1; sencill 85, 3. Goian aipa-
tu dugun traballuaréqui 13, 5 hitzak izango ote du zer ikusirik frantserarekin?*

m. *Latinaren eragina dela eta, aurkitzen dugu -mm- eta -mf-: immén-
soa 33, 5; Inflammacio 67at., 5; commúnioa 89at., 1; triúmfoan 64at., 4;
baita ere circumcisioarén 42, 2 eta secula seculorum 38, 1. Beti -mb- egiten*

da: lembicico 21, 2; cembat 15at., 3; dembora 27, 3; hori bera gertatzen da maiz, hitzak lotzen direnean: barimbadu 14, 2.

n eta ñ. Normalki -nf- egiten da: conforme 16, 3; etab. Hitzak lotzen direnean -nn- gertatzen da: eramannái 16at., 1; onnáiés 22, 3; Humillatzen-náiz 32at., 4. Erdaratik datozen hitzak gordetzen dute beren -ñ-: señaile 16, 3; entraña 29at., 2; maña 85, 3; aurretik daukaten i dela eta, jatorrizko n Lizarragan ñ egiten da zenbait hitzetan: fiña 49at., 3; soñatzerácoan 70at., 3; soñu 27, 2. Jatorriz euskarazko hitzetan, in horrela gelditzen da zenbait hitzetan, ñ bilakatzen delarik beste batzutan: eguina (I), 3; inendu 23at., 2; baguina 25at., 3; chinurriac 33, 3; sinetsi 14, 2; baina baña 17, 3; sóñean 22, 1; oráño 24, 2; Béñere 26, 3; lañu 34at., 1; samiña 41, 2; eta baita ere miñ 66at., 5; sendaquiñ 13at., 3 eta sendaquin 87, 1.

p. Noizean behin bikoiztu egiten da: applicátzea 13at., 3; appassionátua 131, 1.

r eta rr. Askotan, erdal jatorria ez duten hitzetan, bai silaba itxiaren eta bai hitzaren bukaeran -rr erabiltzen da: bearrdíre 17, 3 eta beardíre 17, 3; datórr 19at., 2 eta dacár 13at., 3; ezúrr 33, 2; lurr 34at., 1; eta bárnean 14, 2; árdos 17at., 3; erchi 80at., 5. Erdaratikoetan, hau aurkitu dugu: malúrr 34at., 2. Bestalde, n-ren atzetik r bakuna erabiltzen da: hónra 38, 1; honrá-tua 40, 4, garai honetako idatzietan -nrr- maiz aurkitzen delarik.

s. Laburpen bezala, 'san', 'santo(?)' eta 'santa' esan nai du. Maiz, -ss- ikusten dugu: confessioa 1, 4. zenbakia; possible 14, 2; passatu 16, 1; novissimo 99at., 1; prissa 126at., 2 eta prisa 23at., 2. Euskaratikoetan, ásse 95at., 2 aurkitu dugu.

t eta tt. Erdaratiko hitzetan -tt- ageri da: atténcios 40at., 2; attendítu 129, 1. Ttikigarria adierazteko, tt bikoitza erabiltzen du, gainetik marratxo bat ipintzen duela: cerbañto 16, 1; tragoñtóbát 17, 1; árñtoac 32at., 2; humilñ-ñoi 119at., 2.

ts. Honela idazten du. Baina erdaratik hartutako hitzetan, kontsonante atzetik s bakarrik: erresponsua 1at., 31. zenbakia; pensamentus 30, 1; pulsaldi 39at., 6; salbuespen bezala, hau aurkitzen dugula; antsia 18, 2; etab.; baina ansia 44, 3 etab. ere bai. Ageri da ere: amóltsu 14, 3, beárrtsua 33, 2 bezala.

tx. Lizarragak ch idazten du: echidén 13, 5; chinúrriac 33, 3.

tz. Honela idazten du. Baina erdaratik datozen hitzetan, kontsonante atzetik c edo z bakarrik: sencillqui (I), 1; constáncia 13, 5; Francisco 17at., 2; esperanza 27at., 4, baina segurántza 38, 1; lanza 42, 2.

Euskaratikoetan, batzutan tz eta beste batzutan c edo z idazten du hitzen barrenean, kontsonante atzetik: zortzi 68, 3 eta zorzi (I), 3; ortzi 99, 3 eta orci 64, 1; arantze (behin bakarrik) 81, 5 eta arance (7 bat aldiz) 16at., 1.

*Aditza eta laguntzailea loturik idazten dituenean ez du tz idazten: salzézan 42, 2; Eguinzágun 39, 2; emanenzaigúla 18at., 2; ik. ere quenzálea 13at., 3; emanzálea 13at., 3; baina idatzartzale 62, 2. *Salbuespen bezala aurkitzen dugu il: iltzénac 'hil zenak' 23, 2; iltze 'hil zen' 79, 2; iltzelaríc 'hil zelarik' 104, 2; (ilcerácoan ere ageri da maiz 47; 79at., 3; etab.; baina beste guzietan -tz-; iltzecó 55at.; iltzen 78, 2; etab.; iltzerácoan 132 at., 2; 133, 2).**

Bukaerako -tz gorde ohi du atzizkiren bat eranstean, edo beste hitzen batekin lotzean: itzřfo 28at., 3; gaitztáco 22, 1; gaitzgóntaic 87, 2; itzbátes 31at., 2; itzgúra 132, 1.

u. *Lizarragak horrela idazten du; ez du inoiz ere v erabiltzen u adierazteko.*

x. *Beti, uste dugunez, chs erabiltzen du fonema hau idazteko; beréchsiac (I), 1; achsúri 16, 1; berechstecó 17, 3; chsaquíñ 43, 3; góchso 24at., 1; beréchs 36, 3; gaichsto 25, 2.*

Gutxitan ageri da x, eta soinu desberdinetarako: auxilio 31at., 2 eta exémpu 50at., 1 hitzek daramaten x hori, ez dugu uste berdin ahoskatu behar denik. Eta j idazten duenean, zer esan? Egia esan, j, chs eta x idazten dituenean, badaiteke beste ainbeste soinu aurkeztea.

z. *Bi modutara idazten du hau: c edo z ipintzen duela. Honela: zaizu 13, 5; ezi 16, 3; cerútíc 13at., 3; gucién 13at., 3; zeure 18, 2; eraicioa 16at., 1; zoézi 17at., 2.*

Behin baino gehiagotan, tz-ren orde z jartzen du: zortzi 68, 3 eta zorzi (I), 3; gurúce 42at, 2 eta gurútze 42at., 1 (oso gutxitan tz hitz honetan); ik. tz, goian.

Idazkeraren arloan gehiago

Bokala bikoizturik

Hitz bati beste hitzen bat edo atzizkiren bat eransten zaionean, errespeta-tzen dira azken letra eta lehenbizikoa, berdinak izan da ere. Horrela, gerta daiteke; deseáala 38, 1; pulsaáldi 40, 2 (baina pulsáldi 39at., 6 ere); sacerdotéec 85, 3; naiizátea 104, 1; gaichstoóc 105at., 2.

Azentua

Azentua erruz ageri da; baina ez da muntaduna, uste dugunez. Normala da hauek bezalako adibideak ikustea: ártzera 1, 2. zenbakia; iltzerá 1, 12. zen-

bakia; eramaterá 15at., 3; sóñean 22, 1; egúngo eguneán 37at., 3; Jaunari eta Jaunari 40, 1 eta 2.

Hitz lotuak

Normalki aditza eta laguntzailea loturik daude, bien tartean marratxorik ipini gabe; hori bera gertatzen da bat izenlagun indefinituarekin. Honela: etorrizaizu 13, 5; emanendú 13at., 1; bearrdelaric 13at., 1; albadezáque 14, 2; errancio 14, 2; ederrbát 13at., 3; Aitabat 14, 2.

Laburpenak

Zenbait hitz laburturik ageri dira ia beti: Jangoico, solamente, Christo, sacramentu, santissima; eta beren silabaren bat -ment- denean, hitz horiekin bezalatsu gertatzen da: mandamentu, ezaumentu, etab.

Marratxoa

Noizean behin, marratxo edo gioi bat ageri da eskuidatzian, bi hitz elkartzen dituela: calte-emállé 19, 1; óngui-eguinen 34, 1; tratu-guisagáu 38at.; néque-pénac eta néque péna 41, 2; conta-ála 34, 3; Confessio-alcinean 25, 1; biotz-bárnean 32, 3; Maite-edérr zué 16, 3.

Harridurazko partikula den o hitzaren gainetik, azentu zirkunflexu antzeko bat kokatzen du: Ô 13at, 3; 24at., 1; 27,3; etab.; baina hitz hori bera oh idazten badu, ez dio ezer ipintzen gainetik; Oh 27, 1; 61at., 1; etab. Marka hori bera egiten du laburturik dauden hitzen gainetik, abrebiagailu bezala; entendamñua 37, 4; ezaumñuas 35, 3; mandamñues 35, 3; etab. Beste zenbait laburpenetan ere hori bera gertatzen da: Maria SSñña 'Maria Santissima' 59at., 1; etab.

Ipintzen du ere marra bat, ñ letraren gainean idazten denaren antzekoa, -tto atzizkiaren gainetik; chacúrřoac 60,1; gutiřřobát 64, 2; etab.

MORFOLOGIA

Morfologia eta fonetika

Fenomeno fonetikoren bat dela bide, hitzetan gertatu diren zenbait aldaketa morfologiko ematen ditugu hemen.

Aferesia. *Espiritu hitzean ikusten dugu: Spiritu Sanduaganic 70at., 4.*

Protesia. *Erdaraz r- duten hitzei e- ipintzen zaie bi hitzetan ez beste guzietan: Martyrologio Romanoac 67at., 4 eta Redentore 68at., 1 (eta beste bi aldiz); bana Erredentorea 105at., 3. Hori bera gertatzen da ellegátu 49at., 2 hitzean ere; eta gau, gori, gura izenlagun erakusleek g- eransten dute asieran -ez, ordea, izenorde direlarik—.*

Elisioa. *Elisio bokalikoa dugu hemen: atra, bedratzigarren, drecho, baitare, Jangoico (ik. Jaungoico) eta libru, -ik. hitzok Hiztegian.- Kontsonanteen elisioa: despeida; beira, erreina, nausi; bearri; emendatu, istante, pregoa(?), cicel; gucietáic 42at., 2; erreservaicgábe 37, 3. Elisio silabikoa: prochu, ezperen, obena.*

Epentesia. *Bokalikoa hemen: alegueria 'alegría', guruce; eta kontsonanteena: fragancia; empegatu; icustaldi.*

Apokopea. *Bokalikoa: convit; segur, content, berant, prest; goart. Eta kontsonantikoa: orai, -qui atzizkian eta aditzaren lehenaldiko -n: nue(n), cio(n), etab.*

Paragoea. *Bokalikoa: guruce eta gurutze, imagina, cubila.*

Bokaletan, -e bokal etimologikoa gordetzen da zenbait atzizki eta hitzetan. *Beti, -dade, -date, -tade, -tate eta -ore atzizkietan: caridade, borondate, libertade, Trintate; amore, Erredentore; baita ere -ssione eta -cione atzizkietan: contricione, passione. Hori bera zenbait hitzetan: abade, erregione, fede, señaile; zalantza handiena bukaeran -l kontsonantea dagoenean gertatzen delarik: animale, espirituale, estrabile, generale, naturale eta officiale (eta señaile), baina ere erreal, eternal, fiel, infiel, mortal, natural, original eta principal (ik. goian Apokopea).*

Latinezko -i aurkitzen da Santi hitzean: Espiritu Santi Jauna 89, 3 (ik. «Espiritu Santi» Hiztegian).

Sekuentzia bokaliko hauek: *i + a, eta u + a ez dira i + e, eta u + e bilakatzen, baizik eta aldatu gabe gelditzen dira; bakarrik dire adizkian gertatzen delarik aldaketa hori.*

Komunztadura dela eta, zenbait izenlagunek -o eta -a egiten dute: amoroso, -a; dichoso, -a; goapo, -a; sano, -a; sandu (sic), sanda; clementissima,

santissima, piadosissima; *baditugu ere* avogada, *baina avogatu*; esclavo, -a *ta* esposo, -a.

Erdaratiko hitzetan gehiago aurkitzen da bukaeran -o, -u baino, batez ere izenlagunetan; hauek bakarrik ikusten ditugula izenlagunetan: falsu, prestu, sagratu *eta* sandu. *Izenetan, -u dutenak zaharrago dira euskararen bizitzan besteak baino*: contu, espiritu, apostolu, aingueru, desterru, fruitu, infernu, juramentu, costu, libru, mallu, medicu, mezu, mundu, pagu, pausu, pleitu, predicu, primu, provechu, progú, *etab.*

Kontsonanteetan, *latinezko p- euskaraz b- bilakatu da* becatu *eta* baque *hitzetan*. *Hitz barreneko -b-, progú eta* progatu *hitzetan, eta iragazbide 'irabazbide' hitzean ere, -g- egin da; golpatu-n c-, g- eta iruzquin-n -g-, -r-. Aldatu gabe uzten du -c + g- kontsonante taldea: paguricgábe 13at., 3; faltaricgábe 33at., 2.*

Kontsonante taldeak eta kontsonante bikoitzak, latinetikoak eta beste, ez dira aldatzen: admititu, pacto, *baina* emendatu; affecto, agravio, *etab.* *Hala ere, badugu* manamendu; *eta -tako atzizkia -dako egina*: Jaunarendáco 37,2; *eta baita ere* ondasun *hitza, baina* ontasun. *Bukaerako -n ta -ko atzizkia -ngo egiten da*: ango, emengo, lengo; *baita ere -n eta -ki*: ongui; -n *eta -ka atzizkia -ng eta -nk bilakatzen da*: gainga *eta* emanca.

Bukaerako -r batzutan r eta beste batzutan rr egiten da, bokal bat erans-tean, beste idazle eta euskalkietan bezala; Xabier hitzaren -r hori ez da bikoitzen: S. Francisco Xavierec 17at., 2 *eta* 58at., 2.

Hitz barruan ageri den -r-'ak jatorri bat baino gehiago izan dezake: -d-, -g-, -ld-, -l-, -n- *eta* -r-. *Adibideak*: berere; iruzqui (*eta* eguzqui); barin (*eta* baldin); borondate; arima, arimo *eta* corrado 'cornado'; propio 'propio', *baina* propio 'adecuado' *eta* propi 'adecuado'.

Behin, -r + t- > -rd- egiten da: ordic.

Hitzen barruan gertatzen den -zq- kontsonante taldea horrela gelditzen da, salbuespen bezala asqueníc 36at., 4 *aurkitzen dugula; -sco atzizkia ere beti horrela idazten da*: eguiasco, *etab.*

Beste talde hau, -zt- alegia, horrela agertzen zaigu, eta ez -st-, bai adizkietan eta bestetan; -st- hori salbuespen bakan bakanen bat delarik. Adibideak: atozte, zaizten, zaiztet *eta* zuzte; *ez partikula eta asieran d- duen adizkia eztilakatzen dira*: eztire, ezta, *etab.*; *berdin, viztu aditz partizipioan eta horretatik sortzen diren hitzetan ere*: vizte. *Salbuespenak*: gaste *eta* guerostic (*eta* gaichsto).

Hitzaren bukaeran normalki -s aurkitzen dugu, -z'ren ordeztu. Hori, deklinabidean gertatzen da: amóres (I), 4; Latines lat., 33. *zenbakiaren ondotik; euscarás ib.; errannaidénas (I), 4; untátus 16, 1; Berás 16, 3; etab.*

Hala ere, deklinabidean bertan badira salbuespenak: Latinez (I), 4; biotzéz 105at., 2; virtútez 99, 3; bórchaz 127, 6; borondátez 36at., 2; amóre onéz 139 at., 1; berarén amorez 26, 3; eta besteren bat. Gordetzen da ere aldatu gabe -z, ez partikulan eta adizkietan: biz, datoz, zoaz; baita ere naiz partikula eta adizkian.

Morfologia eta fonetika aditzaren inguruan

Aurreko atalean egin dugunaren antzekoa egiten dugu orain, aditzaren inguruan gertatzen diren fenomenutara mugatzen garelarik.

Lehenbizi, adizkien asieran, barrenean eta bukaeran aurkitzen ditugun zenbait fenomenu ematen ditugu ezagutzera, eta orain onarturik dagoen aditz laguntzailearen adizkiekin erkatzen ditugu.

Aferesia. Adizkien asierako letraren bat gal daiteke. Hala, de- galtzen da: zagun 'dezagun' -baina dezagun ere bai-; zazun 'dezazun' -baina dezazun ere bai-; etab. Galtzen da ere die-: zogun 'diezaiogun'; eta ie-: zaguzu 'iezaguzu'; zozu 'iezaiozu'; baita ere e-: zazu 'ezazu'; ta zaze edo zazie 'ezazue'; di- ere bai: tu 'ditu'; tio 'dizkio'; tigu 'dizkigu'; eta bukatzeko, z-: atozte 'zatozte'.

Protesia. Be- silaba aurkitzen dugu: benaza 'naza', eta d- letra; dazquiguzu 'iezazkiguzu'.

Elisioa. Bokal bat galtzen da, izan daitekeela -e-: daitzen, gaitzen, dagon, zetórta -Ik. zetorren-; -i-: dateque; edo -u-: daquize 'dakizue'. Silaba bat gal daiteke, dela -it-: zuzte 'zituzten'; nuzque 'nituzke'; dela -ra-: damazu 'daramazu' (baina bertso lerrotan ageri da beti); dela -te-: daique, daizque, gaizque, zaizque; edo -tu-: zaiztet 'zaituztet'.

Epentesia. Erlatibo eta ez erlatibozko -n, eta -la atzizkia etab. eransten direnean, -e- epentetiko bat sortzen da: dauzqui > dauzquienác 85, 3 eta dauzquiéla 113, 3; ditut > ditúten 34, 5; dut > duténa 61at., 2 eta dudána 29at., 2 (hemen, -a- epentetiko bat). Ik. gehiago gero, atzizkietaz hitz egiten dugunean.

Apokopea. Bait aurrizkia ez da inoiz ere ageri bukaerako -t horrekin: baitire, baicara, bainago. Lehenaldian bukaerako -n galdu egiten da -baina ik. atzizkietan gehiago-. Aditz partizipio askotako bukaera galtzen da zenbait alditan -Ik. atzizkietan tu atzizkia-. Azkenik, balez eta bez adizkietan -a falta da.

Paragoea. Zenbait bokal aurkitzen ditugu: a, e eta i. Adibideak: baguin-duza 'bagenitu', balezada 'baliezat', banitza (eta banitz) 'banintz', dabila

'dabil', dacarra 'dakar'; banindue *ta* banindu, bacindue 'bazenu', banue *eta* banu; datozi, zoezi 'datoz' *eta* 'zi(ho)azen'. Bukatzeko, aditz partizipioetan -du ageri da zenbait aditzetan: izandu (*eta* izan), ezaundu.

Aurrizkiak, artizkiak *eta* atzizkiak *ipintzen ditugu orain, hitz horiek esanahi zabal batetan erabiltzen ditugula*.

Aurrizkiak. Ba- *eta* bai(t): *lehenbizikoa baldintzazko partikula da, eta bere aurretik baldin edo barin eraman dezake -ik*. Hiztegia-; 'bai' *esanahiarekin ere erabiltzen da -ik*. Hiztegia BA 2-. Bestea, bai(t), *erlatiboazko perpauzetan eta kausaletan ikusten dugu -ik*. Hiztegia BAI 2, 3 *eta* 4-.

Artizkiak. Aniztailea *ikutzen dugu hemen, batez ere; eta mota hauek ditugu*; -it-, -t-, -ti-, -z-, (-za atzizkia) *eta* -zqui-. Adibideak: banitu, ditio 'dizkio', citio 'zizkion'; tu 'ditu', tugu 'ditugu'; tiagu 'ditugu', tida 'dizkit', tio 'dizkio'; zeizque 'zitezkeen' (*sing.* zeique), dezozque 'diezaiozke'; baguinduz *ba* 'bagenitu' (*jakina, -za ez da artizkia, baizik eta atzizkia*), guinduz *ba* 'genituen', cinduz *ba* 'zenituen'; bezqui 'bitza', dezquien 'ditzan'; dauzqui 'dauzka', zauzqui 'zauzka'; daquizquidan 'dakizkidan', zaizquigu 'zaizkigu', daquizquite 'dakizkite'.

Ikusten dugu lehenaldian -qui- artizkia -tza- artizkiaren orde: cequio 'zitzaion', cequizquio 'zitzaizkion'; *baita ere falta dela orainaldian -tza- artizkia*: gaizquio 'gataizkio'.

Atzizkiak. *Banan banan ematen dugu beroien berri*.

-a. Paragoea *eta* Artizkiak *deitu paragrafoan ikutu dugu*.

-artaño. *Berez postposizioa*: bedeicanázan artaño 44at., 2.

-arteo. *Postposizioa hau ere*: ellegatuarteo 24, 2.

-asgueros. *Ia beti -as eta gueros loturik elkarrekin*: jaiogasgueros 34, 4. *Bi osagaiak bereizirik hemen bakarrik*: probátuas gueros 55,3 *eta* gurucificatuas gueros 109, 1 (*Jangoicoas gueros ere*: 93, 4).

—da. Ik. *behean* —t.

—du. *Paragoea deitu paragrafoan hitz egin dugu*.

—gabe. *deitugábe* 13at., 3; *maitatugábe* 46at., 2.

—gatic. *cumplitzeagátic* 25at., 3; *barcadézagátic* 17at., 1.

Geroaldia *osatzeko* —co, —en *eta* —ain atzizkiak *daude*. *Aditz partizipioak* —n *edo* —l *duenean bukaeran, gehienetan* —en *eransten da eta zenbait aldiz* —ain. *Hala*: emanen 13at., 1 *eta* emain 71, 1; izanen 14, 2 *eta* izain 58, 1; joanen 63, 2 *eta* joain 14at., 3; lagunduco 15, 3, utzico 15at., 1; naico 16, 1; bearrcó 27at, 5; ilen 77, 1.

—la. Ik. —n.

—laic. Ik. —laric.

—laric. *Honen laburpen bezala, maiz ageri da* —laic. Adibideak: Delaric

26, 3, bearrdelaric 13at., 1; elduzaiguláic 15, 3, dagoláic 33, 2; duguláic 19at., 2.

—n. *Erlatibozko perpausetan etab. eransten da atzizki hau. Goian Epen-tesia deitu paragrafoan, esan dugun bezala, —e— epentetiko bat sortzen da adizkiaren eta atzizkiaaren tartean; eta —a— epentetiko bat ere bai. Ez ordea beti, ez eta gehienetan ere. Aurkitzen da: dator > datorréna 18, 2; dirudi > dirúdien 29, 4; du > duén 32, 4. Ez da aurkitzen: dugu > dugúna 120, 2; dezaque > dezaquéna 32, 4; cego > cegóna 42at., 1; dago > eztagóna 32, 4; dauca > daucána 47.*

Zenbait adizkitan bukaerako —a aldatu eta —e bilakatzen da: zara > zarén 38at.; da > dena 31at., 2.

Atzizki hau dela eta, sortzen diren fenomeno horiek guztiak sortzen dira —la, —laic eta —laric atzizkiekin ere.

Ik. gehiago behean: —t aurkezten dugunean.

—n. *Lehen esan duguna bezala, ik. Apokopea, lehenaldian galdu egiten da bukaerako —n. Ez ordea beti, baizik eta perpaus nagusian dagoenean bakarrik. Galtzen da ere ahalezko aldi batetan: guindezque 'gintezkeen' 25at., 3; zeike 'zitekeen' 66at., 2; zuke 'zezakeen (?)' 54, 2.*

—ote. *Atzizki edo dena delako hau, —e ipini beharrean ipintzen du: darraioté 'darraie', dioté 'die', diotet 'diet', diozute 'diezu', etab.*

—s. *Deklinabidean bezala erabiltzen da: ichéquis 28at.; iles 44, 5; emánes 45, 3.*

—t. *Batzutan —da eginik ageri da: balezada 'baliezat', bequida 'bekit', bezada 'biezat', bida 'bema, eman biezat', dagokida 'dagokit', dida (ez da inoiz ere dit ageri), zaida 'zait'. Gehienetan, —n edo beste atzizkiren bat eransten denean, aldatu gabe geldizen da: dut > duténa, dacusat > dacusate-láic, dezaquet > dezaqueten, diotet > eztióten, ditut > ditúten, tiot > tiotéla, tut > túten; baina bi aldiz aurkitzen dugu —da ere eginik: dut > dudána, tut > tudánac. Berez adizkiaren barrenean dagoenean ere ageri da —da— egin gabe: dezaten 'dezadan' eta dezquiten 'ditzadan'; gainera badugu ere: bea-uten 'behar dudan' 16at., 3, eztaquitéla 'ez dakidala' 36, 3; gainerakoetan, es-pero den —da— ikusten dugu: daquidan 'dakidan (neri)', daquizquidan 'dakizkidan (neri)', dezadan 'dezadan', dezadan 'diezadan (neri)', etab.*

—te eta —tze. *Atzizki hauek, eta hauetan oinarriturik sortzen diren besteak, Iparralden, Goi Nafarroan eta Guipuzkoan bezala egiten ditu. Beraz, eguitécoa 13, 5, baina lagúntzeco (I), 1; sinesten 14, 2, baina iltzen (I), 1 eta aditzen 32at., 2; izatea 19at., 2, baina jaiótzean 47. —Te edo —tze oinarritzat duten atzizki hauek bildu ditugu: —tea, —tean, —teco, —tecos, —ten, —tera, —teracoan.*

—tu eta —du. *Aurretik —n edo —l baldin badu, —tu aldatu eta —du egiten da: ezaundu, izandu (eta izan), atzendu, bildu, galdu, quendu, lagun-du, legundu, saldu. Beste guztietan —tu da.*

Bukaera hori askotan galdu egiten da agintzaldian, ahalezko aldian eta subjuntiboan: quenbézqui 'ken biztza' 137at., 4; galdáien 'gal dadin' 135at.,

3; bildaizque 'bil daitezke' 103, 3; ezin guindezóque paga 120, 2; Ô errespondabalezáda niri 112at., 2.

Hori bera gertatzen da bukaeran —i duten aditzekin ere, baina askoz gutxiagotan: uzdezan 138, 1; iducazu 'iduki ezazu' 129, 3; itzulazu itzul 'ezazu' 53at., 3 —*baina azkeneko biok trinko antza dute—.*

Bestalde, forma laburtuak eta osoak nahasirik egon daitezke: sandubenáza, salvabenáza, ordibenáza, garbibenáza, azcarrtubenáza, adibenáza, alchabenáza, gordebenaza, deibenáza. *Den hauek elkarren ondoan daude,* Anima Christi, sanctifica me; Corpus Christi, salva me *itzultzen duela* 41at. *orrialdean; eta urrengo orrialdean beste hauek aurkitzen ditugu, bakoitzak zezaten adizkia duelarik:* lotu, eraman, presenta, heri, acusa, ultraja, joca, josi, gora, para (42. orrialdean).

—ze eta —zie. *Atzizki hauek —zue atzizkiaren ordez erabiltzen dira. Biak ageri dira hemen:* eguitenduzéna 'egiten duzuená' 19, 3 eta emandiziéna 'eman dizuena' 67at., 7.

Beste zenbait fenomeno

Aditzaren eremuan gertatzen diren beste zenbait fenomeno *ikutzen ditugu orain, bukatzeko.*

bai— eta d—. *Beti bait— bilakatzen da:* baitire 28, 1; baitago 32, 3; ezpaitezáque 32at., 1; baitaude 77, 3; *etab.*

bai— eta g—. *Bi aldiz aurkitu dugu, eta baic— egin da:* baicára 33at., 1; baicaitu 126, 3.

bai— eta n—. *Berdin gelditzen da:* bainágo 112, 1; baináiz 127at., 4.

ez eta b—. *Beti ezp— bihurtzen da, b— duen hitza adizki pertsonala baldin bada:* ezpálitz 13at., 3; ezpaita 21, 2; ezpaitezáque 32at., 1; ez bárca 17at., 1 eta Ez bada pénsa 54at., 1.

ez eta d—. *Ia beti ezt— bilakatzen da:* eztá 18, 2; eztoáie 19at., 2; eztaquitéla (*nik*) 36, 3; *etab.* *Salbuespenak:* adizkia ahalezko iragankorra baldin bada, ez da ezt— egiten, baizik eta ezd—: ezdezáque 18, 2; ezdezóquete 77, 3; *etab.;* baina iragangaitza bada, eta bat bakarrik aurkitu dugu, aldatzen da: eztaique 132at., 2; ez da aldatzen ere, adizkia subjuntiboko orainaldi iragankorrean badago: ezdezan 38at.; ezdezátela 95at., 2; *etab.* Ik. ere uzdezan 'ut dezan' 138, 1.

ez eta g—. *Gehienetan ezg—, bestetan ezqu—:* ezguindue 26at., 1; ezquindúque 79, 2.

ez eta l—. *Ez da ezer aldatzen:* ezlitzáque 78at., 3.

ez eta n—. *Ez da ezer aldatzen edo galtzen:* eznáiz 84, 1; galeznádien 36, 1.

ez eta z—. *Beti etz— egiten da:* etzaitu 15at., 1; etzeude 13at., 2.

—c eta d—. *Behin aurkitzen dugu —kt— bilakaturik:* norctaquí 'nork daki' 68, 3.

Konglomeratuak *edo pilaketak*. Ik. Aditz-jokoak izeneko atalean, liburu honen bukaeran.

Baldintzazko juntagailua —r— egiten da askotan: barin 'baldin', *eta horrela* barcatucoció, itzulibarimbaze 90, 2; *etab.* Baldin *ere ikusten da*: baldin egonbáce 60at., 1.

—n ta t—. *Horrela gelditzen da eta ez* —nd—, *bi hitzak elkarrekin lotuak egon arren idazkeran*: izantúten 36, 3; ezauntzentúten 36at., 5.

—zq—. *Beti horrela, eta ez* —sq—: bezqui 'bitza' 41, 3; daizque 103, 3; baitaquizquite 85, 3; darraizquionac 28, 1; datózquen 92at., 2; *etab.*

—zt— *eta* —st—. *Niozean behin, ageri da* —st—; *baina gehienetan* —zt— *ikusten da*: oroiaraztecó 1at., 33. zembakiaren ondotik; atózte 14at., 5; zaiztet 15, 1; berázten 16, 1; uztentút 37at., 2; guerostíc 18, 2; adiarasten 23, 2; amorosturíc 44at., 7; *etab.*; *baina amorozturíc* 44, 5 (*behin bakarrik horrela*); onesten, *ta gaitzesten* (onetsi *eta gaitzetsi-tik*) 38at. *Goian hitz egin dugu ez ta d— dela eta.*

Morfologia eta fonetika adberbioaren eremuan

Aferesia. *Gutxi gutxitan ikusten da* gueiago; *ia beti* yago.

—ago. *Izenlagunean bezala, hemen ere konparatzailea* —ago atzizkiaren bidez moldatzen *da*: gaizquiago 'deterius' 22at.; obequiágo 'melius' 23,2; lenágo 27, 3.

—egui. *Hemen gueiegui bakarrik aurkitu dugu, eta hori ere ez adberbio bezala, baizik eta izenlagun bezala*: bere amóre gueiéguia 47; *etab.*

—en. *Superlatibo erlatiboa moldatzeko*, —en *hartzen da*, *izenlagunetan bezala*: alicáco obequieníc 25, 2; gueién 30, 2; gueieníc 25, 2.

gucis. *Superlatibo absolutua egiteko*, *gucis adberbioa ipintzen da adberbioaren aurretik*: gucis claroqui 33at., 1.

—ca. *Atziki hau aurkitzen dugu zenbait modu adberbiotan*: prissacá 23at., 2; golpéca golpéca 55at.; *eta adberbio banatzaile honetan*: banáca 50at., 2.

—qui. *Hau erantsita, moldatzen dira ia beti modu adberbioak*: obéqui (I), 4; óngui (I), 1; óngui etórrria 30at., 5; gaizqui 13at., 3; osóqui 13at., 3; justoquí 15at., 3; erreálqui 17at., 2; finqui 26at., 1; infinotoqui 32, 4.

Bi edo hiru adberbio datozenean erkadan, azkenekoak bakarrik hartzen du atzizkia edo marka: amoróso ta milagrosoquí 28, 4; viciró ta firmequiró 29, 1 (*hemen biak* —ro, *baina bigarrenak gáinera* —qui—; *beraz*, —quiro); cláro, pláu ta sencillqui parátuac (I), 1.

—quiro. *Bi atziki*, —qui *eta* —ro, *batean*: firmequiró 29, 1; erruquiró 65, 3; erchiquiró 83at., 3. Ik. —ro *behean*.

—mente. *Erdaratiko atzizkia, erdaratiko hitzetan ipinia*: malamente 30, 1; solamente 23, 2.

- n. *Apokopea dugu hemen, eta hitz honetan gertatzen da*: orai 32at., 2.
 —nai. *Honekin*: noiznai, nolana, nonnai.
 —oro. *Izenei itsasten zaie*: aldióro 39at., 5; atsaldióro 39at., 6; egunóro 35at., 3; gauóro 69, 1.
 —ro. *Izenlagunei eransten zaie*: berriro 42at., 2; viciró ta firmequiró 29, 1; Labúrr edo luzaró vicitzean 19at., 2.
 —ño. *Adberbio gisa edo, hemen aurkitzen dugu*: gutittobát 64, 2; egia esan, adibide honetan izenorde da, baina adberbioan oinarritzen dela uste dugu, latinezko paulum edo antzeko batetan bezala.

Morfologia eta izenlaguna

Adberbioari buruz esanak errepikatu behar dira hemen, bai erkaketaren eremuan eta bai beste zerbaitetan ere.

Erkaketa nola egiten den *ikusten dugu lehenbizi*.

—ago. *Atzizki honen bidez egiten da konparatzailea*: ederrágo 16at., 1; aiságo 21at., 1; luceágo 76, 2; onágo 114at., 1.

Baina onago-ren orde, obe erabiltzen da gehiago: Gú baño obeác 74, 3; vici oberá 76at., 3; *etab. Adberbioetako obe bezala*.

—egui. *Atzizki hau onegui eta gueiegui hitzetan ageri da*.

—en. *Superlatibo erlatiboan*: andienetic 21at., 1; larriénac 25, 2; obéna 17at., 3; «*Ōn dire afféctoac.... obeágo obrátzea óngui: baña obéna dá padeci-tzea óngui*» 17at., 3.

gucis. Superlatibo absolutua moldatzeko erabiltzen den adberbiorik usue-na da gucis; bere aldean aurki daitezke ere aguitz eta choil. Adibideak: gucis jústoá, gucis góra, ta gucis amáblea 72at., 1; *etab.*; aguitz on 50, 1; choil gogótic 'oso pozik' 44, 3.

Superlatibo hau beste modu batera ere molda daiteke, hots, hitza errepika-tuz. Hola aurkitzen dugu: Len lembicico ántsia 18, 2; gaitz-mota guci guciac 13at., 3; nere amóre gozo gozóa 38, 1. *Zenbakiarekin ere gertatzen da hau*: Esquerr milla milla 34, 4; *adberbioarekin*: Lenago lenágo 118; orái orái 134, 3; otói otói 128at., 3 —*baina azkeneko hiru adibide hauetan ez dugu superla-tiboa, enfasizko esaldiak baizik*—.

Azkenik, ikusagun erlazio hau: on obe/obeago oben obequi;

eta beste hau: anitz/asco gueiágo/yago gueien.

Izena→izenlagun *eginik aurkitzen dugu*: «*baña gauza ezténa suffritzecó cerbáit, óllo dá*» 17at., 2.

Izenlaguna→izen *eginik*: «*Confessatucodiót berorrén óna, ta nere gaich-toa, berórrren préstua, ta nere chár villáua*» 27at., 2.

Postposizioa→izenlagun *eginik*: «*Seguitzendúte... norc bere gurucearé-qui, gábe niór ez*» 15, 5.

Morfologia eta izenorde mugagabeak

Izenorde *esaten dugu, baina askotan, eta behar bada gehienetan*, izenlagun bezala ageri dira. *Laburkiro ematen ditugu hemen, Hiztegia-n datu gehiagoko ematen ditugarik.*

abasto. *Gehienetan adverbio dela uste dugu, ala ere izenlagun bezala ere ageri da: «(Christo Jesus) emanduena guregatic satisfaccio abásto» 137, 1. Ik. ere 121, 1; 122; 122at., 2.*

aimberce. «*costazaiona aimberce*» 47.

alaco. «*ezta alacoetáic*» 50, 2; Alácoes 55, 1. Ik. *beitiago* —co.

anitz eta asco. *Biak ageri dira maiz: «Labúrr edo luzaró vicitzean eztoái anitz» 19at., 2; «Asco sándu Mártyr» 78, 2.*

azquen. «*azquén eguneán*» 67at., 4; *azqueneráño* 78at., 3.

bai. *Erlatibo gisa maiz erabilia: «podóre infinitoa, baitezáque naiduen gucia» 33, 4.*

bacarr. «*bere séme bacárr próprioa*» 16, 3.

bacoch. «*ezta ilén beticos baco chic ére*» 97at., 2.

bana. «*urruptañobána*» 77at., 4. Ik. *urrego sarreran bát banáca.*

bat eta —bat. *Izenlagun denean, ia beti izenari lotua: «erribátean» 23at., 2; «arbolabatéra» 23at., 2; lichsu onbatéqui» 25, 2. Izenorde denean, bereizirik: «Bereetáic báti» 15, 5; «beira bát banáca» 50at., 2; «ció bátec... bérceba-tec» 50 bis, 3; baina «héri cegonbát» 60at., 1. eta «gutibát» 62at., 3; *etab.**

batzuc. *Hola ageri da: «Apartatucíre batzúc» 14at., 3; «Bérce esque-gui-sabatzen Actoac» 111, 1.*

berce. «*escubátes úqui, bérceas idúqui*» 51at., 5; *berceéc* 110at., 2; «*bérce aimbérce amoréscó affécto*» 40, 3.

buru. *Erreflexibo bezala: «errandezógun gueuren buruái» 15at., 3.*

deus. «*Cerén trabájuac diren labúrr ta deus guti*» 52at., 4; «*desaguertuco-dá deus becála*» 64at., 3 'nihil' latinez.

doble. «*doble gracia*» 74at., 2; «*laur doble*» 'quadruplum' 23at.; «*asarrá-tzeco dóble gure contra*» 123, 2.

edocein. «*edocéin gauza escadezógun Aitari*» 107at., 4.

elcarr. «*lagúndus elcárr*» 25, 2.

Erreflexiboak. *Lehen ikusi dugu buru.*

Erreziprokoak. *Ikusi dugu elcarr.*

gañaraco. «*gañaráco gauza gruciéi*» 34at., 1; «*caridade bétea, ta gañará-coac*» 31at., 2. Ik. *beitiago* —co.

gueiagoco. «*gueiagocoác icusitút*» 65, 3 'handiagokoak'.

gueiegui. «*Jangoicoac digun amóre gueiéguia*» 68at., 4.

gueien. «*eguiteas gueienéc*» 92, 1.

guti. «*guti gora bera*» 25, 2; «*gutibát*» 62at., 3.

guci. «*Gucióc berórren éscuan uztentút*» 37at., 2; «*gorpútz gucia urratu-ric*» 50at., 2. *Gutxitan ageri da oso. Ik. ere osoqui eta osoquiro; eta gucis.*

yago. «*yágo confíanza*» 90, 1; «*confíanza yágo*» 47at., 2.

—co. *Atzizki hau erantsirik, adberbio asko izenorde mugagabe daitezke bilakatu.*

len *eta lengo. «anáia lén léna ta andiēna» 75at., 1; «gurúcean lén lenic escatuzuēna» 131at., 2; «lēngoac, oraicoac, gueroacoac» 33at., 1; eta «Lenē-coa dá orái ére: génio bera dú» 131at., 1.*

nior. «nióren ménean eztagóna» 32, 3.

nolaco. «ene amazále alácoa, nolacoríc ezpaita» 131, 1; «Oh! nolaco purgatórioa passaracicióten...!» 61at., 4.

nor. «Nórc, Nórc, Nón» 'Quis, Quid (sic), Ubi' 28, 1; «ezpaita bacochic ere, nori eztiön barcatu» 124, 1. Galdezko izenorde eta erlatiboa.

norbait. «noribaiti imbadiót perjuicioríc» 23at., 2.

nornai. «nornai berachstendá» 60, 1.

oraico. Ik. goiti len.

oso. «barcamentu ósoa» 31at., 2. Ik. guci.

sobra «sóbra becátu» 128; «becátu sóbra» 134at., 5.

cein. *Izan daiteke galdezko izenordea eta erlatiboa; adibide ugari Hiztegia-n.*

cembait. «Goácen errepassátus cembait» 34, 3.

cembat. «Cémbat passatudúte...?» 59at., 3.

cer. *Galdezko izenordea eta erlatiboa izan daiteke.* Ik. Hiztegia-n.

cerbait. Ik. Hiztegia-n: *izenorde eta izenlagun daiteke izan.*

Morfología eta zenbakiak

Liburuan barrena aurkitu ditugun zenbakiak ipintzen ditugu hemen.

bat. «bietác bát» 15, 3. Ik. Hiztegia-n: *len eta lembicico.*

bi. «bi semegáiec» 16at., 3; bigarrena 13at., 3.

irur. «irur áldis» 22at: *eta irugarren (sic) 67at., 7; etab.*

laur. «laur Novissimoac» 89at., 2; Laugarrena 13at., 3; *etab.*

bortz *eta* borz. *Lehenbizikoa gehiago bigarrena baino.* Ik. bortzgarren.

sei. Seigarrena 39at., 5.

zazpi *eta* zazpigarren. Ik. Hiztegia-n.

zortzi, zorzi *eta* zorzigarren. Ik. Hiztegia-n.

bedratzi. Ik. bedratzigarren. Hiztegia-n.

amarr. «oguetamárr» 68, 3; *amarrgarren 40, 4.*

ameca. «Amecagarrena» 40, 5.

amabi. Ik. Hiztegia-n; *eta bertan ere amabigarren.*

amirur. Ik. Hiztegia-n.

amalaur. Ik. Hiztegia-n.

emezorzi. «Oguéi ta emezórzi» 22at.

emeretzi. Ik. Hiztegia-n.

oguei. Ik. Hiztegia-n.

oguéi ta zórtzi. Ik. 68, 3.
 ogueitamárr. Ik. 68, 3.
 oguéi ta amirur. Ik. 132, 2.
 oguei ta emezórzi. Ik. 22at.: Oguéi ta emezórzi.
 berrogeui. Ik. 99, 3: «berrogeugarreneán».
 laurogeui. Ik. milla hitza Hiztegia-n.
 eun. «batendáco eún» 58at., 2.
 bortz eun. Ik. milla hitza Hiztegia-n.
 zorzi eun. Ik. milla hitza Hiztegia-n.
 milla. Ik. sarrera hau Hiztegia-n.
 millon. «milla millón» 65, 2.

Pertsona izenordeak

Nominatiboan ematen ditugu. Hirugarren pertsonakoak ez dira berez pertsonalak, baizik erakusleak; baina hemen ipintzen ditugu.

ni/(ene)	ura	gu	zu	zuec	ayec
neurau	—	gueurec	zeuroi	(zeurec)	—
neuronec	arc	gueuroc	zeurorrec	—	—

Izenorde erakusleak

Izenorde eta izenlagun; asieran g— dutenak izenlagun direlarik, eta g- ga-beak izenorde. Ala ere, badira salbuespenak. Eta horrela, aurkitzen dugu «neure buruáú» 37at., 3; «goatzeóí» 22, 1; «Ori beróí» 97, 1; «orí gucióí» 57at., 2; «bere buruorí» 50, 3; «Jaunonéc» 57, 2; «goatzeorréqui» 22at.; «ladronárc» 15at., 3 eta «ladrón árc» 57, 3; baina «ladrongárc» 135, 2; «Christioóc» 75at., 1.

Azkeneko adibide honek gradu urbileko pluralaren marka darama.

Bestalde, ohi duen «arren» ipini beharrean, «aren» ipintzen du behin: ik. 50 bis, 3.

Hona hemen izenorde eta izenlagun erakusleak.

au	-au	-gau	onec	-onec	-gonec	ebec	(-oc)	-guebec
ori	-oi/-ori	-goi	orrec	—	(-gorrec)	(oyec)	—	-goiec
ura	—	-gura	arc	-arc	-garc/-garrec	ayec	—	-gaiec
bera	beroi berori		berorrec					

Edutezko izenorde eta izenlagunak

Pertsona izenordeen genitibo edutezko kasuek betetzen dute egiteko hau; hirugarren graduak, berriz, erakusleen edutezko kasua bera dira.

nerre	(g)onen	gure	zure	—	(g)ueben
neure	(g)orren/berorren	gureure	zeure	—	(g)oiien
ene	(g)arren/aren	gureuren	—	zeuren	(g)aien
—	bere/beraren	—	—	—	beren

Morfologia eta partikulak

Laburkiro, aurkitu ditugun adberbio, harridurazko hitz, juntagailu eta postposizio guztiak ipintzen ditugu. Partikula bat bera talde batetan baino gehiagotan egon daiteke; ez bait dugu hartzen estu estu sarrera bakoitza, baizik eta zabal samar. Ik. Hiztegia.

Adberbioak

A	B		
abasto	ba 2 (Hiztegia)	berriz	ere
abastoqui	bai 1 ta 4 (Ibidem)	beti	erchiquiro
aguian	baitare	betico	esque
aguitz	banaca	beticos	especialqui
ain	bateo	betiro	especialquiro
aisa	batere	vidanabarr	ez
ala	bein	bide 2	ezetz
alaber	beiti	billa	ezin
aleguerequi	belaurico	bitartean	ezperen
alegrequi	bentzait	bitarteo	eztare
alcina	beñere	viciro	
alcinean	beñic bein		F
amen	bera 2	D	favore
amoltsuqui	berant	datorrena	finqui
amorosoqui	berarias	datorrela	firmequiro
an	beras	de manera	fite
antes bien	berdin	dena dela	fuera
arara	bereala	doi doia	fuca
arat	berere		
asqui	berechsqi	E	G
aspaldi	berla	eguiaz	gaizqui 2
atzetic	berriro	egunoro	gaurr
		emen	gueiago

gueien	<i>claroqui</i>	<i>nolanai</i>	<i>principalquiro</i>
guero	<i>comunquiro</i>	<i>non 1 ta 2</i>	<i>proprioqui</i>
guerostic	<i>contino</i>	<i>nonnai</i>	
goapoqui	<i>contra</i>	<i>nora</i>	
gogorrqui			S
goiti	L	O	<i>segurqui</i>
goiz	<i>landara</i>	<i>obequi</i>	<i>seculan</i>
gora	<i>len 1</i>	<i>ola 2</i>	<i>secula seculorum</i>
guti 2	<i>len baño len</i>	<i>omen</i>	<i>sendoqui</i>
gucis	<i>lembicico 1</i>	<i>ona</i>	<i>sencillqui</i>
	<i>lendanic</i>	<i>onat</i>	<i>sinqui</i>
H	<i>lenic</i>	<i>ongui</i>	<i>sobra</i>
<i>humilqui</i>	<i>luzaro</i>	<i>orr</i>	<i>solamente</i>
		<i>orai</i>	<i>sollic</i>
		<i>oraidanic</i>	<i>sueltoqui</i>
	M	<i>oraño</i>	
	<i>maiz</i>	<i>orduan</i>	TX
	<i>malamente</i>	<i>orgatic</i>	
	<i>misericordiosoqui</i>	<i>-oro</i>	<i>choil</i>
		<i>oroat</i>	<i>chutiric</i>
	N	<i>orra</i>	
	<i>nioiz</i>	<i>osoqui</i>	
	<i>niola</i>	<i>osoquiuro</i>	
	<i>nion</i>	<i>ote</i>	Z
	<i>niondic</i>	<i>otoi</i>	<i>cein 2</i>
	<i>noiz</i>		<i>cembat</i>
K	<i>noiznai</i>	P	<i>cembatenas</i>
<i>—cara</i>	<i>nola 2</i>	<i>plau</i>	<i>cergatic 1</i>
<i>casi</i>	<i>nolaco</i>	<i>principalqui</i>	<i>zoroqui</i>

Harridurazko partikulak

<i>ah</i>	<i>ea</i>	<i>ojala</i>
<i>agurr</i>	<i>oh</i>	<i>ola 1</i>
<i>ay</i>	<i>oy</i>	<i>ots</i>

Juntagailuak

A	D	I	<i>cerengatic</i> <i>cergatic 2</i>
<i>adiña</i>	<i>dela</i> <i>diña</i>	<i>ya</i>	
B	E	N	
<i>ba- 1</i> <i>bada- 1 ta 2</i> <i>bai 3</i> <i>baitare</i> <i>baicic</i> <i>baldin</i> <i>baña</i> <i>baño</i> <i>barim-</i> <i>becala</i> <i>bezain</i>	<i>edo</i> <i>et (sic)</i> <i>eta</i> <i>ez...ez</i> <i>ezi 1 ta 2 ta 3</i> <i>ezpada</i> <i>eztaere</i>	<i>naiz</i> <i>nola 1</i> <i>nola bai-</i> T <i>ta</i> Z <i>ceren</i> <i>ceren bai-</i> <i>ceren ezi</i>	

Postposizioak

A	B	E	K
<i>alde</i> <i>araura</i> <i>ariora</i> <i>artaño</i> <i>artean</i> <i>arteo</i> <i>—asgueros</i> <i>atzetic</i>	<i>baitan</i> <i>barna</i> <i>barnean</i> <i>bearrean</i> <i>beira</i> <i>bitartean</i> <i>buruan</i>	<i>erdian</i> <i>ertean</i> F <i>favore</i> G <i>gabe</i> <i>gain</i> <i>gora</i>	<i>casos</i> <i>conforme</i> <i>contra</i> L <i>landara</i> T <i>-tartean</i>

Morfologia eta atzizkiak

Atzizkiak hitza esangura zabal batetan erabiltzen dugu: hemen diren guziak ez dira atzizkiak; baina askok atzizkien egitekoa betetzen dute. Ez daude denak seguru: aditzaren eremukorik ez dago bat ere, etab.

Atziki direlako horietako zenbait izenak dira: «Atsaldi», «onguieguille»; izenlagun (?): «neurau», «neuronec», «zeurorrec», «zeuroi»; aditz: «normai», «noiznai»; etab.

- a. *Adibideak*: ona *eta* orra.
- ada. *Hemen*: lanzada, trucada *eta* ercada (?).
- ago. *Konparatzailea egiteko*. Ik. gueiago *eta* yago, *eta* obeago.
- ala. *Hemen* (?): bereala *eta* berla (*sic*).
- aldi. Ik. atsaldi, escucaldi, icustaldi, pulsaaldi, *eta* pulsaldi.
- ari. *Hemen*: edari, janari; zervitzari, becatari, quidari, alcindari; urricari.
- as gueros. *Behin aurkitu dugu izen batekin*: Jangoicoas gueros 93, 3.
- at. Ik. arat onat.
- at. Ik. oroat 'orobat'.
- au, -onec, -oc; -oi. *Izenarekin loturik egon ohi dira*. Ik. *goian*.
- bait. Ik. norbait, cembait, cerbait.
- baitan. Ik. berabaitan *eta* berebaitan.
- bat. Ik. cembat *eta* cembatenas.
- ber. Ik. alaber.
- bera. *Hemen*: biotz-bera.
- vide. Ik. galvide, iragazvide, zuzenvide.
- ble. *Hemen*: admirable, quadrable, etab.
- dade *eta* —date. caridade, borondate, *etab*. Ik. *ere* -tade, -tate.
- dura. *Hemen*: andidura, atzendura, erchidura, comeCADURA.
- egui. *Hemen*: gueiegui, onegui, *etab*.
- eguille. Ik. onguieguille, gaizquieguille.
- en. *Superlatibo erlatiboak moldatzeko*: gueien, *etab*.
- era. *Hemen*: asiera, sarr-era.
- ere. Ik. batere, beñere, ezperen (?), eztare, alaere.
- ero. *Hemen aurkitzen dugu*: bucatero.
- etz. Ik. ezetz.
- ez. *Hemen*: beñerez, niolaterez.
- gabe. Ik. naigabe, «gure indarrgábea» 56at.; «utzigabe» 111, 5; «sariric-gábe» 111, 5.
- gai. Ik. itzgai.
- gaitz. Ik. esquerrgaitz *eta* gogaitz.
- gaizqui. Ik. moldegaizqui.
- gale. *Hemen*: egozgale.
- garren. Ik. bigarren.
- garri. Ik. arrigarri, galgarri, icusgarri, maitagarri, *etab*.
- ic. Ik. ceric 'nolako?'.
- io. Ik. gloria-montio, christio.
- ca *eta* -ga. Ik. emanca, ozca, golpeca, gainga.
- cara. Ik. erchicara, gogorrcara, lucecara.
- queria. Ik. gaichstaqueria.

- queta. Ik. ondasunqueta.
- qui. Ik. gendaqui (?); *eta adberbioak*.
- quide. Ik. erritarquide, lecuquide.
- quiñ. Ik. sendaquiñ.
- quinde. Ik. eaquinde.
- co *eta* -go. Ik. *izenak*: mutico, astoco, cistaco, izengañeco, bitarteco, *etab.*; *izenlagunak*: alaco, nolaco, contraco, lengo, oraico, seculaco, urren-go, *etab.*; *eta adberbioa*: belaurico.
- corr. Ik. ilcorrtu, lotsacorr, ustelcorra.
- cunde. Ik. naincunde *eta erkatu beste honekin*: bozcariunde.
- lle. Ik. emalle, calte-emalle, onguieguille, gaizquieguille.
- mende. Ik. baimende.
- mendu. Ik. barcamendu, manamendu. *Gehiago* -mentu.
- menta. Ik. vestimenta.
- mente. *Adberbioak egiteko*: malamente, solamente.
- mentu. Ik. entendamentu, ezaumentu, mandamentu, tratamentu, *etab.*
- nai. Ik. noiznai, nornai, nondicnai; emannáia 110, 6.
- nas (?). Ik. -bat *goian*.
- nde. Ik. bozcariunde (*eta* naicunde *eta* baimende).
- nte. Ik. amante, ignorante, presente.
- nza. Ik. acabanza, desconfianza, segurantza (*sic*).
- ncia. Ik. asistencia, alegrancia, *etab.*
- ño. Ik. artaño, oraño.
- o. Ik. «*ellegatuarteo*» 24, 2; bateo; «*orái árteo*» 43, 4.
- oi. Ik. -au, *goian*, *eta* zeurói 31, 1; goatzeói 22, 1.
- oc. Ik. -au, *goian*, *eta* Christioóc 75at., 1.
- on. Ik. borron *eta* ladron.
- onec. Ik. *goian* -au; *eta* Jaunonéc 57, 2.
- ore. Ik. amore, criadore, pagadore, salvadore; lore; podore.
- oro. Ik. aldioro, *etab. adberbioetan*.
- orrec. Ik. zeurorrek, *eta* *goian* -au.
- pe. Ik. egalpe, escupe, maipéan 96at., 1.
- pen. Ik. oroipen.
- ro. Ik. *adberbioetan*: berriro, *etab.*
- sa. Ik. abadesa; *eta* amorosa, *etab.*
- ssima. Ik. santissima.
- sio *eta* -sione. *Hemen*: passio *eta* passione, processio; *etab.* Passione *eta* compassione *hizetan bakarrik* -ssione; *besteetan* -ssio. Ik. -cio *eta* -cione *behean*.
- sco. Ik. eguiasco.
- so *eta* -sa. Ik. amoroso *eta* amorosa, esposo *eta* esposa, *etab.*
- tar *eta* -dar. Ik. erritarrquide *eta* israeldar.
- tasun. Ik. beldurrtasun, guizontasun, itsutasun, jangoicotasun, noble-tasun, ondasun *eta* ontasun.

- te *eta* -tze. Ik. vizte, emate, gurte, eriotze, iltze, jaiotze, aurquintze.
 -tegui *eta* -degui. *Azkeneko hau ageri da*: mindegui *eta* presondegui.
 -ti. Ik. beiti *eta* goiti.
 -tto. Ik. chacúrřoac 60, 1; guřřitobát 64, 2.
 -tsu. Ik. amoltsu, bearrtsu, doatsu, chsaquintsu.
 -tza. Ik. vicitza, ezauntza, laguntza. *Ik.* —nza.
 -tze. Ik. -te *eta* -tze.
 -ura. Ik. tristura *eta*, *goian*, -dura.
 -zai. Ik. herizai.
 -zale. Ik. amazale, favorazale, galzale, guiza-ilzale, idatzarrtzale, sendazale, *etab.*
 -cio *eta* -cione. Ik. arracio 'arrazoi', infinicio, barcacio, bedeicio; *eta* contricione, accione, erredencione, *etab.*
 -zu. Ik. usaizu.

Izen arrunten deklinabidea

Bokalez bukatuak

	Singularea	Plurala	Mugagabea
<i>Nominatiboa</i>	gogoa 21at., 1	loreac 16at., 1	barcácio 21at., 1
<i>Ergatiboa</i>	itúrriac 14at., 3	letraec 28at., 3	sánduc 26, 3
<i>Datiboa</i>	heriari 22, 1	naicundeci 15, 5	(?) ascóri 79at., 3
<i>Genitibo edutezkoa</i>	amorearén 16at., 1	adisquideén 15at., 1	bercerén 57at., 2
<i>Destinatiboa</i>	heriaindáco 57, 3	humeendáco 94, 3	—
<i>Motibatiboa</i>	amoreagátic 43at.	favoreengátic 36at., 5	—
<i>Soziatiboa</i>	Aitaréqui 42at., 1	cateéqui 42, 2	arracioréqui 57, 2
<i>Instrumentala</i>	amóreas 51at., 5	aranceés 50at., 2	amóres (I), 4
<i>G. leku-denborazkoa</i>	echéco 13, 3	ceruetaco 42at., 2	urtetáco 24at., 3
<i>Inesiboa</i>	echeán 13, 3	echeetán 28at., 1	besótan 34at., 1
<i>Aldatiboa</i>	Cerúra 24, 2	ceruétara 28, 4	(?) bidatára 103, 3
<i>Adl. bukatuzkoa</i>	bururáño 68, 3	—	—
<i>Ablatiboa</i>	cerútic 23, 2	penaetáic 42at., 1	—

BIZIDUNAK

<i>Inesiboa</i>	Jangoicoan 13, 5	—	—
	Criadoreabaitan	—	—
	139at., 2	—	—
<i>Aldatiboa</i>	Jangoicoagána 40, 3	—	—
<i>Ablatiboa</i>	culpagánic 40at., 1	guciengánic 32at., 2	—
<i>Partitiboa</i>	—	—	proguric 17at., 3
<i>Prolatiboa</i>	—	—	humetáco 16, 3

Oharpenak

1. *Azkeneko hizkia -a duten hitzek askotan gordetzen dute bokal hori pluralean: llágaen 41at., 4 eta lláguen 139at., 1; etab.*

2. *Behin bakarrik aurkitu dugu -ain: viciain 78, 2; ik. ere heriaindáco 57, 3.*

3. *Adlatibo mugagabeen ez dugu aurkitu beste adibiderik, eta horregatik ascorí ta bidatára ipintzen ditugu. Zuzen ala oker?*

Kontsonantez bukatuak

	Singularea	Plurala	Mugagabea
<i>Nom.</i>	Jauna 13, 3	itzac 1at., 33. z.	lapúrr 50, 2
<i>Erg.</i>	Jaunac 14, 2	izárrec 31, 6	—
<i>Dat.</i>	Jaunari 23at., 2	guizonéi 121at., 2	(?) nióri 16, 3
<i>Gen. ed.</i>	odolarén 43at.	ladrónen 42, 2	(?) niören 32, 4
<i>Des.</i>	Jaunarendáco 37, 2	onendáco 128	(?) batendáco 58at., 2
<i>Mot.</i>	(gure) onagátic 13at., 3	guizonengátic 102, 1	(?) norengátic 15at., 3
<i>Soz.</i>	Jaunaréqui 39, 2	(óbra) onéqui 54at., 3	(?) noréqui 130, 3
<i>Ins.</i>	odólas 19, 1	ongui-eguines 34, 3	biótzes 49, 1
<i>G. 1.-d.</i>	lurréco 25at., 3	Guiltzurrunetáco 67, 7	—
<i>Ine.</i>	eguneán 37at., 3	biotzetán 23, 2	onetán 39at., 5
<i>Adl.</i>	onerá (emanic) 23at., 2	oñetará 60, 1	—
<i>Adl. buk.</i>	azqueneráño 78at., 3	—	—
<i>Abl.</i>	lurretic 33, 2	perilletáic 78, 2	—

BIZIDUNAK

<i>Ine.</i>	Jaunabaitan 139at., 2	—	—
<i>Adl.</i>	(Aita) onagána 127at., 6	—	—
<i>Abl.</i>	Jaunagánic 40at., 1	guizonengánic 86, 2	—
<i>Par.</i>	—	—	guizonic 22at.
<i>Pro.</i>	—	—	placertáco 82., 4

Oharpenak

1. *Bai -ari eta bai -ai, biak ageri dira; baina -ari gehiago.*

2. *Mugagabeen ez dugu aurkitu beste adibiderik, eta horregatik ipini ditugu zenbait izenorde mugagabeen jokoak.*

3. *Inesibo mugagabeen, esaldi osoa hau da: «edocéin gauza onetán».*

4. *Prolatibo mugagabeen, bi aldiz aurkitu dugu ontzat: «ontzát... artzecó» 1at., 15. zenb., eta «Artzendút ontzát» 32at., 4. Badaiteke gehiagotan ere izatea horrela.*

Izen nagusien deklinabidea

	Bizidunak		Bizigabeak	
	Bokalez	Kontsonantez	Bokalez	Kontsonantez
<i>Nom.</i>	Maria 87, 6	Job 112, 1	Jerico 23at.	Xabier 55at.
<i>Erg.</i>	Pedroc 14at., 3	Agustinec 17at., 1	—	Xabi-rec 17at., 2
<i>Dat.</i>	Martari 98at., 2	Juaní 112at., 5	—	—
<i>Gen. ed.</i>	Basiliorén 67, 2	Agustinen 133at., 2	—	—
<i>Mot.</i>	—	Jesusengatic 86, 1	—	—
<i>Soz.</i>	—	Davidéqui 53, 4	—	—
<i>Gen. lek.</i>	—	—	Egiptoco 56	Jerusaléngo 17, 3
<i>Ine.</i>	—	—	Egipton 74, 3	—
<i>Abl.</i>	Mariagatic 29at., 1	—	—	—

Oharpenak

Xavier eta Xabi-rec ez dira adibideetan toki izenak, baizik eta deitura bat. Badaiteke flexio edo joko gehiago izatea liburuan barrena.

Pertsona izenordeen deklinabidea

ni 13at., 3	gu 15, 3
nic 13at., 3	guc 14at., 3; geueróc 23, 2
niri 30, 1	guri 26at., 3
nere 109at., 2; neure 37at., 3	gure 13at., 3
neretáco 95, 3	guretáco 43, 4
neregatic (?). «Nere ta zuregatic» 115at., 2	guregatic 47
neréqui 74, 3	guréqui 15, 3
nitas 36, 3	gútas 39, 4
nitan 71at., 2	gútan 39, 4
nibaitan 86, 3	gubaitan 40at., 1
neurebaitan 126, 4	gurebaitan 39at., 4
—	gugana. Ik. gure gána 47
neuregatic 138at., 1	guregatic 23, 2; gueurengatic 40at., 1
—	gutaic. Ik. «gutáic níor» 37, 2
zú 13at., 3	(zuec)
zuc 14, 2	zuéc 14at. 2
zúri 15at., 1	zuéi 77, 1
zure 13, 5; zeure 22, 1	zuén 77, 1; zeuren 23, 2
zuregatic 48at., 1	—
zuréqui 13, 3	—
zútas 16, 1	zuétas 124, 2
—	zeuren baitan 23, 2
zuregána 28at., 1	—

Oharpena

Lehenengo pertsonan aurkitzen ditugu ere: enetáco 13at., 3; enegátic 34at., 3; enéqui 31, 6; enebaitan 78, 2; enegána 27at., 2 eta enegánic 18at., 1.

Izenorde erakusleen deklinabidea

Singulara	Plurala
au 29at., 1; gau 17, 1	ebéc 19at., 2; guébec 16at., 1
onéc 47at., 2; gónec 21, 2	— guébec 39, 3
oní 121, 3; góni 135, 2	— guebéi 80at., 3
onén 82at., 5; gonen 28at., 3	ebén 53, 1; guében 81, 4
— gonendáco 31at., 2	— —
— gonengátic 139at., 1	— —
onéqui 24at., 1; gonéqui 118, 2	— guebéqui 108at., 1
óntas 128; góntas 112, 3.	ebétas 85, 3; guebétas 74at., 2
óntan 72, 2; góntan 23at., 2	ebetán 19at., 2;
ontará 19at., 2; gontára 29, 1	— —
ontáic 19at., 2; góntaic 132, 1	— guebetáic 16at., 1
ori 26, 3; goi 17, 1	— —
orréc 18at., 1	— góiec 104at., 2
orri 123at., 2	— góiec 130at., 2
orren 27, 3	— —
orrendáco 40, 4	oyen 93at., 3
orrengátic 82, 4; gorrengátic 107at., 1	— —
orgátic 27, 3	— goiengátic 111at., 1
orréqui 73at., 2; gorréqui 54, 2	— —
órtas 38at.	— —
ortaráco 26, 3	— —
ortáco 49, 2	— —
órtan 51, 6	— —
ortaráño 97at., 1	— —
ortaic 68, 1	— —
orrenbaitan 48at., 2	— —
orrenegóna 27at., 2	— —
orreneganic 84at., 2	— —
ura 142, 2; gúra 19, 3	ayec 77, 3; gaiec 50at., 2
arc 109, 1; gárc 24at., 3	ayec 27, 1; gaiec 56
— gárrec 16, 1	— —
arri 124, 1; gárrí 50, 2	— gaiéi 124, 1
arrén 65, 2; gárren 24, 2	ayén 22, 1; gáien 131at., 2
— —	— gaiendáco 94at., 1
arréqui 101, 4	ayéqui 47at., 2
ártas 28at., 3	ayétas 80at., 5
ártan 65, 2; gártan 16, 1	— —
artaráco 63, 2	— —
artáic 15, 3; gártaic 53at., 2	— gaietáic 56at.
arrenbaitan 43, 2;	— —
— —	aiengána 81, 2

bera 24, 2
 bérac 13at., 1
 berari 97at., 1 'a él, al mismo'
 berarén 16at., 3 'a su (derecha)'
 beretáco 37, 2 'para sí; para vos'
 beragátic 50at., 1 'por él'
 beraréqui 30at., 5 'con él'
 berequi 96at., 2 'con vos'
 beras 56at. eta beréz 'de por sí' 49at., 3
 bereco 75at., 1 'de la misma (familia)'
 berean 14, 2 'en el mismo (nombre)'
 berabaitan 96, 4 eta berebaitan 24at., 3 'en él' eta 'en sí, para sí'
 beragána 19, 1 eta beregána 64at., 4 'a él' eta 'a sí, hacia sí'
 beraganic 83, 3 eta bereganic 49, 1 'de él' eta 'de sí, de vos'

Izenorde mugagabeen deklinabidea

Anitz eta asko

anitz 52at., 6 (sing.); 34at., 2 (pl.)
 anitzéc (pl.) 90, 7; etab.
 ásko 116at., 2 (sing.); 34at., 2 (pl.)
 ascoc (pl.) 136at., 3
 ascori. Ik. «berce ascori» 'a otros muchos' 79at., 3
 ascoen. Ik. «berce gaitz ascoen gañetic» 66at., 5

Bat eta batzuk

bat 35, 2	batzúc 14at., 3
«bata...bércea» 16at., 3	
bátec 28, 1	
báti 15, 5	
baten 48	batzuen 111, 1
«batendáco eún» 'ciento por uno' 58at., 2	
batéqui 25, 2	
bátes 31at., 2	
batéco 58, 3	
bátean 23at., 2	
batéra 23at., 2	
batétic 22at.	

Berze

Singularea	Plurala
bérce 43, 4	bérceac 55at.
bercea 60, 1	berceéc 114at., 2
bercerén 50 bis, 2 (Mugagabea)	—
bercearéqui 74at., 2	—
bérceas 59, 2	—
—	berceendáco 68, 3
—	berceen baitan 110at., 5
berceric 79, 2	—

Deus *eta* guti

deus 58, 3
 deusec 74, 2
 deustáco 'para nada' 64, 2
 deustan 51, 3

guti 76, 2
 —
 gutitáco 'para poco' 85, 3
 gutitán 'pocas veces' 66, 5

Nior *eta* nor

niór 37, 2
 niórc 126, 1
 nióri 16, 3
 nióren 32, 3
 —
 —
 —
 niorengánic 108, 2

nor 28, 1
 norc 97at., 1
 nóri 54at., 1
 noren 25, 2
 norengátic 79, 2
 noréqui 130, 3
 norengána 63, 2
 —

Norbait *eta* nornai

—
 —
 noribaiti 23at., 2

nornai 60, 1
 Nornáiec 32, 3
 —

Zein

Singularea
 cein 57, 3
 ceñec 66at., 4
 ceñi 131at., 2; 38at.
 ceñén 51, 3
 ceñéqui 52, 4
 ceintas 47at., 2
 ceintáco 'para el cual' 82at., 2
 ceintan 'en quien' 121, 3
 ceñengánic 121at., 2

Plurala
 —
 —
 ceñei 98, 2
 ceñén 85, 3
 —
 ceñetás 63, 4
 —
 —
 —

Zer

cer 48at., 1
 cerc 74, 3
 cerén 131, 1
 Cerengátic 'porque' 90, 2 (Juntagailua da).
 Cergátic 'por qué' 54, 2 (Adberbioa da).
 Cergátic 'porque' 54, 2. (Juntagailua da).
 Ceréqui 120, 2
 cértan 55at.; 26, 3
 cértara 71, 1

Zenbakizko adjetiboen deklinabidea

bat

Ik. «*Izenorde mugagabeen deklinabidea*»

Bi

bi 42, 2

biac 133, 1

bióc 36, 4

bien 25, 2: «bien *értean*»

bidatára 103, 3 'en dos, a dos'

bietáic 38at.

(Ik. «bitarteo»)

Milla

milla 65, 2

«millaetará bat» 120at., 1

«millaetáic bati» 83at., 3

Zenbait adberbioen deklinabidea

an	ángo 38, 1	andic 75, 3	—
(ara)	arát 73at., 1	arára 80, 2	(ara) arat 73at., 1
emen	eméngo 38, 1	eméndic 70, 4	—
orr	—	ordíc 19, 1	orra 26, 1
arara	Araráco 16at., 1	—	—
ala	alaco 15at., 1	—	—
ona	onát 73at., 1	—	—
orai	oraico 24, 2	oraidanic 110, 5	oraño 24, 2
len	lengo 52, 4	lendanic 21at., 2	lén lenic 131at., 2
—	Lenécoa 131at., 1	—	—
non	—	nondicnái 84, 2	—
nion	—	nióndic 84at., 2	—
niola (tere)	niolatéco 36, 1	—	—
bein	beingoas 114, 1	—	—
beti	betico 41at., 2	—	—
yago	ezin yagos 87, 5	—	—
noiz	noizean noiz 85, 3	—	—

JOSKERA

Hitzak nola dauden ipinirik elkarren ondoan

Izenaren eremuan edo inguruan

Izena eta aditza. *Izena joan daiteke bai aditzaren aurretik eta bai atzetik:* «escunará izáteco» (I), 1; «oroitzecó errannaidénas» (I), 4; «animatzecó héria» 13, 1; «Gógo óna biz» 13, 5; «Jangoicoa etorrizaizu visitatzerá» 13, 5.

Izena eta izenlaguna. *Zenbait izenlagun izenaren aurretik ipintzen dira:* aimberce, anitz, asco (*hauek atzetik ere bai; baina oso gutxitan*), azquen, berce, doble (*hau, atzetik ere bai*), edocein, guti, yago (*atzetik ere bai*), sobra, cembait, cembat *eta* cerbait. *Adibideak, Hiztegia-n eta Morfologia eta izenorde mugagabeak izeneko atalean, zenbait orrialde goitiago.*

Edutezko izenordeak eta zenbakiak ere aurretik egoten dira: «bere hume spiritualeéi» (I), 1; «zazpigarren urtean» (I), 3.

Izenlagun baten menpean dagoelarik, izena atzetik edo aurretik daiteke ipini: «pénas beteríc» 16, 1; «beteríc alegráncias» 17at., 2.

Izena eta izen laguna. *Izen bat beste izen baten menpean dagoenean, lotu daiteke honekin deklinabideko atzizkiren baten bidez edo ezer gabe:* «arimen prochután» (I), 2; «memoriarén amóres» (I), 4; «bearrorduán» (I), 1; «Arqui-videa» 1, 1; «gaitz—mota» 13at., 3; «biótz bárnean» 14, 2; «calte-emálle» 19, 1; *etab.*

Bata bestearen menpean ez dagoenean, juntagailuren batez daude loturik: «gurte, adoráció, ta laudario» 1, 3. *zenb.;* «Agonian, edo azquén atsetán» 1at., 30. *zenb.*

Menpean dagoen izena genitiboa baldin bada, noizean behin atzetik etortzen da. Hona hemen aurkitu dugun adibiderik ikusgarriena: «Cerén eméngo trabájuac baitire nola azároa ángo eraicioarén; nola aránceac ángo arrósa loreén; nola pérlac ángo coronarén; nola merejimentuac ángo premioén; nola vézperac ángo festarén 53at., 3. Ik. hau ere: «Dire gránoac ángo graneróco» 17, 3; «Dire ógui ángo maiéco» 17, 3. *Eta* «Jangoico ta guizón eguiáscoa» 29, 4; «árca salvacióscoa» 73at., 1; «Aita cerúcoac» 77, 1; *etab.*

Aposizioa. Aposizioan dagoen izena bestearen aurretik egon ohi da: «Jangoico Jauna» *lat.* 'Dominus Deus' 21, 3; «Elias Profeta zebilalác igués Jezabel Erreguinagánic» 24, 2.

Sinonimoak eta beren antzekoak. Maiz, lokarririk gabe daude elkarren ondoan: «Medicu sendaquíñ ederrbát» 13at., 3; «Jangoicoarén gendáquia,

berarén hume escogitu izanbeardinérac» 16, 3; «*óngui bucátzea, bucátéro óna*» 19at., 2; «*Jesu Christo Jangoico-guizóna* 68at., 4; «*Jesus savalzálea sendazálea*» 72, 2; «*gúre amorés gúre onagátic*» 13at., 3; «*neque-penac*» 41, 2; «*Señáleac ere baitúgu: Señale bere cuna jaiótzean, gambéla; goátzea ilce-rácoan, gurúcea*» 47.

Adberbioak ere daitezke horrela egon: «*gucis osoquiró erreservaricgábe*» 72at., 3; «*sendátzea istántean osóqui*» 13at., 3; «*beticos osoquí erreservaic-gábe*» 37, 3.

Izenlagunari buruz zerbait

Askotan, izenlagunak bata bestearen ondoan aurkitzen dira, lokarririk gabe: «*Beldúrr humil confiatuarén actoac*» 1at., 16. zenb.

Juntagailuren batek elkartzen baditu, denek hartzen dute marka: «*Jaun ta Jabe óna ta bacárra*» 37at., 4; *baina lokarririk ez badago, azkenekoak bakarrik:* «*prócéssio luce edérr lucitua*» 52, 1; «*itze dóble séndoac*» 50 bis at., 1.

Aldameneko izena, erdaraz edo bere esanaiez, femeninoa bada ere, ez da aldatzen izenlaguna: «*pêrla preciósoac*» 16at., 1; «*Ama divinoa*» 132at., 2; «*premioa dá infinito: gloria imménso*» 58, 1. *Salbuespen gisa ikusten dugu:* «*Ama Santissima*» 133, 3; *eta* «*Ama amorósa*» 59at., 1; 133, 2; 64at., 4.

Goian esan dugu non kokatzen diren, izenaren ezker aldetik, zenbait izenorde eta izenlagun mugagabe, baita edutezkoak eta zenbakiak ere.

Zenbait izenorde noiz eta nola erabiltzen diren

Ni, neurau, neuronek. Azkeneko bi formak enfatikoki daude erabiliak; hori bera esan behar da beste forma hauetaz ere: gueurec, gueuroc, zeuroi, zeurorrec *eta* beroi, *eta* aldi bakanen batean berorrec.

Nere eta neure. Bigarren forma erabiltzen da, lehen pertsonako izenordea esaldian aurkitzen denean: «*uztentút... neure buruáu, neure ón ta gaitzac*» 37at., 3; *hori bera esan behar da beste hauetaz ere:* gueure, gueuren, zeure *eta* zeuren; *ik. adibide hau:* «*Zuréqui nago... zeure trabáju bitártean*» 59, 2.

Nere eta ene. Biak maiz ageri dira, baina ene maizago. Ez dugu aurkitu, ez eta bilatu ere, zergatik erabiltzen den behin bata eta behin bestea. Gainera, ene izenorde pertsonala bezala ere erabiltzen da askotan: «*biz enétaco Jesús*» 13at., 3; «*atózte enegána*» 14at., 5; *etab.*

Berori eta berorrek. Jaungoikoarekin hitz egiten denean, horiek ageri dira: «*nor beróri becalacoric?*» 33, 2; «*nic naidut beróri enetáco*» 37at., 4; *Berórri 'a vos'* 38at. *Enfatikoki ere ageri da noizean behin:* «*orregátic bero-*

rrengátic» 'por eso mismo' 27at., 4; ik. ere 136, 6. Egia esan, ori eta orrek ere asko erabiltzen dira Jaugoikoarekin eta.

Bere eta beraren. Ez dakigu zergatik erabiltzen duen behin bata eta gero bestea. Badaiteke Pierre Lafitte-k bere Grammaire Basque-n (Ik. 210 zenb.) dionarekin zer ikustekorik izatea. Hona hemen zenbait adibide: «Jesus ónac errána dá, Naiduénac joán berarén atzetíc, ucadaiéla bere naicundeéi, ardezála bere gurúcea, eta seguidezóla» 15, 5; «S. Tiago ta S. Juanen Amac escatució Jesus onarí, manazézan jarritzecó bi semegáiec, bata berarén escuietic, bércea ezquerretíc bere erreinuan» 16at., 3; «Ceren predestinatugaituen bere gloriarácó:... Ceren berarén órdes vicicogáren glórian» 43at.; «Eztá debecátzen deseátzea ta escátzea libragaitzan gaitzetíc Jangoicoac, naibadú: baña gueldítus berarén dispociorá, naiezpadú». 45at., 1.

Bere eta beren. Uste dugunez, beti bereizten ditu: «(berac) bere cóstus» 13at., 3; «norc bere gurucearéqui» 15, 5; «ció berebaitan» 24at., 3; eta: «Apartatucire batzúc Jesus onagánic berén galtetán» 14at., 3.

Ber edo bera. Latinezko izenorde hauen esainiaekin ageri da: ipse, idem, ille edo is eta se edo erreflexiboa. Adibideak: «Ainguiruen Jaunac bérac» 'ipse Dominus' 24, 2; «familia berécoac» 'eiusdem' 75at., 1; «itzúltzea beragána» 'ad illum' 19, 1; «gutáic niór eztéla vici beretéaco» 'semetipso' 37, 2.

Bere. Izenorde honen esanaia hau da: inglezeko 'his, her, its' eta baita gaztelaniazko 'de vos' ere; eta horrela: «Bereá nau ni» 'De vos' 71at., 3.

Au eta gau. Morfologian esan dugun bezala, au izenorde da, eta gau izenlagun; salbuespenik badagoela, han genionez: «neuráu ezin vália» 22at., "au guciáu» 29at., 1. Hori bera esan behar da gainerako izenorde erakusleez.

Izena eta zenbait eraenketa

Jakingarri direla uste ditugun zenbait eredu ipintzen ditugu hemen, adibidetako:

«cégo... egúiten sendagálla anitz padecítzeas» 17at., 2;

«gauza ezténa suffritzecó cerbáit» 17at., 2;

«sendatzecó medioríc obéna dá» 22at.;

«emán...itz firmebát, ez bériz séculan becuric eguitéco» 22at.;

«yágo péna izam beardúgu aggraviátuas Jangoico óna» 26, 3;

«Alá ére dut esperánza éne Jangoicoan, oráño ere nainauéla... admititu bere grácian» 27at., 4;

«péna dút ezdezáten amátu» 'haiek berori' 44at., 6;

«Ez naiz digno deinazáten berórren hume» 49at., 1;

«emánes exémpu, seguidezagungátic» 50at., 1;

«Alque daquigúla ez passatunáias gúc» 50at., 1;

«Prest nágo errecibítzerá» 54at., 2;

«útzis exémpu, seguidezágun vide beras» 56at.;

«ematendiot itz (orri edo berorri), zervitzátzeco berórri» 63, 2.

Aditzaren eremuan edo inguruan

Aditza kendurik. *Askotan aurkitzen da aditzaren elisioa: «Confessatuco-diót citharan Jangoicoa, ene Jangoicoa. Cithara contricioa, negarra soñua, ta confèssioa cántua» 27at., 1; «Ni orréna; ori nerea; bióc elcarrénac beticos» 37at., 4.*

Aditz laguntzailea kendurik. *Eredu bezala, ematen ditugu zenbait adibide:*

«Ezauntzen ta confessatzendút» 27, 3;

«Orréc gú beticos iduquigaizála bere escutic... ecarrigaizála, eramán, itzú-li ta biúrr, nola duén placér» 44, 3;

«Amátzen ta estimatzendút, onésten ta maitatzendút» 44, 3;

«Amatzendút, eta deseatzendút» 44at., 4;

Nor edo nork kendurik. *Subjektu bezala pertsona izenordea egon behar denean, maiz kentzen da edo ipini gabe gelditzen da. Ageri denean, kontraste bezala aurkitzen da. Zenbait adibide:*

«Nic eracutsicodizút Medicu sendaquíñ ederrbát» 13at., 3;

«Errán bada zúc ere» 13at., 3; baina:

«errancio humil, Jauna, cerbáit albadezáque imbezágu caridade» 13at., 3;

«Sinestendút guciá dezaquéla» 13at., 3;

«placer barimbádu ta convenibarimbáda» 13at., 3;

«Segúro nágo berórren aldétic» 27at., 4.

Erkadan lokarririk gabe. *Askotan gertatzen da hau, adibide hauek erakusten duten bezala:*

«Jauna, moguibedi; biz urricárri; salvagaitza; galduac gára» 63, 2;

«cerén gaizquiric ez séculan, óngui bai indígún beti» 43, 4;

«Alcinátus...: estimátus..., acusátus..., escátus..., offrecítus» 21at., 1;

«Animazaite seguitzerá: lagunducodízu: etzaitu utzico desamparaturic: bere adisquideén adisquide dá» 15at., 1;

«Eta escubátes brindatzendízu, bercearéqui laguntzendízu» 17, 1.

Hitzak aditzaren ardatzean. *Aditzaren aurretik eta atzetik joan daitezke, aditzak beste aditz bat duela menpean:*

«ongui iltzen laguntzeco» (I), 1;

«Asteco prestátzen iltzerá» 1, 12. zenb.;

«Iltzera doaienari Eaquindea, edo Exhortációa» 115, 1;

«Jangoicoa etorrizaizu visitatzerá» 13, 5;

edo adberbio bat:

«ongui iltzen lagúntzeco» (I) 1;

eramán óngui» 13, 5;

«sendátzea istántean osóqui nola gaizqui egón ezpálitz séculan» 13at., 3;

«*ta aguián deitugábe ére*» 13at., 3;

edo izen bat:

«*Erién óngui maneátzeco*» (I), 1;

«*Latinez parátuac*» (I), 4;

«*ártzera Sacramentuac*» 1, 2. zenb.;

«*Jangoicoarén báquea biz echean*» 13, 3;

«*Gógo óna biz, árimo, ta constância: eta echidén Jangoicoái, ta eramán óngui*» 13, 5;

edo aditz laguntzailea:

«*Amátzen ta estimatzendút*» 44, 3;

«*Seguitudíte Sanduéc*» 58, 1;

«*nor daique libra?*» 120at., 1;

«*Eztá valioduén diña costa*» 58, 3;

«*ezin guindezóque pága millaetáic bát*» 120, 2;

«*albadezaquézu sinétsi, guciá dá possible sinestenduenái*» 14, 2;

«*Eztú naiízandu, eztú nai, ta eztú naico*» 119, 2.

Komunztadura. Zenbait esaldi jakingarri ipintzen ditugu:

«*Izazu Jesus onarí amóre ta fede vicia*» 14, 2;

«*ene pobreetáic bati eguitenduzéna*» 19, 3;

«*Caridadearí ta conformidadearí darráio confiánza*» 46at., 3;

«*Gorputzarén gaitzec dacárte arimarén ón ánitz: bát dá...*» 63, 4.

Aditzaren eraenketa. Aditz nagusiaren esanaiaren osagarri, beste aditz bat daiteke izan:

«*Ongui iltzeas cuidatzecó eaquindea*» 19at., 1;

«*Utzigaguína iltzera*» ‘*que nos matasen*’ 26, 3;

«*eracutsidaquióque emáten (‘a dar’) esquérrac*» 31, 2;

«*Eztú ez utzico galtzéra*» ‘*que se pierda*’ 47;

daiteke izan izen bat:

«*Eta zútas ére oroitzendá*» 28at., 1;

«*Nornáiec eta nonnái dezáque zervítza Jangoico andiarí*» 32, 3;

«*beiratzenbaitu humiléi*» ‘*que mira a los humildes*’ 33, 2; baina:

«*beirabéz bére séme Jesu Christorén ichúra*» ‘*contempla*’ 107at., 5;

«*Heribáti assistitzenció S. Felipe Neric*» 48;

«*adibenáza ni*» ‘*exaudi me*’ 41at., 4;

«*deibenáza beregána ni*» ‘*llámame*’ 41at., 4;

«*eztút guizonic lagundezadaníc*» ‘*lagun diezadanik*’ 22at.; baina:

«*ezpanaute lagúntzen*» 59at., 3 (Nor-Nori-Nork da erabiliena).

Akusatiboaren ordez genitiboa. Gehien gehienetan, akusatiboa aurkitzen da; baina genitiboa ere ageri da. Bukaera bezala -tze edo -te duten aditz izenekin gertatzen da horrela, eta horietatik datozen formekin. Nai aditzarekin ere bai, eta izen bilakatu den partizipioarekin:

«Erién óngui maneátzeco» (I), 1;
 «ilen ta vicien juzgátzera» 29at., 1;
 «gure borondatearén conformátzea» 45, 1 (subjectu ote?);
 «Ave Marien soñatzerácoan» 70at., 3; baina orrialde honetan bertan:
 «Orónac ematerácoan» 70at., 1 (subjectua da hemen).

Behar eta beldur. Aditzarekin lotzean, sortzen diren jakingarriak adiarazten ditugu:

«confessatzendút, eznuéla béñere offenditubeárr» 27, 3;
 «Errecibitu beardúzu devócio andiaréqui» 28at., 3;
 «Christio fiél fiñac eztú contentatubeárr errezuéqui» 54at., 3;
 «Ó Jangoico Jaun andía... nióren beárr ez, ta nióren menean eztagóna, bai gucióc berórren beárr garéla» 32, 4;
 «Jangoicoai zervitzatubeáarda cértan naiduen bérac» 55at.,
 «deusen beárr eztéla» 32, 3; eta:
 «ô iltzea, nor dá zure beldúrr, dacarzularic vicitza?» 78, 2;
 «neure obra guciés nitza beldúrr» 83at., 4;
 «Etzaziela beldurric izan» 'Nolite timere' 77, 1;
 «S. Rosa de Lima cegoláic bere condenacioarén beldúrrac icár icár» 47at.,¹ 1;
 «Sánduec solamente cúlpe zúte beldúrr, otezegóquen asárre Jangoicoa cóntra» 74at., 1;
 «Eztá becátu beldúrr izátea iltzeas» 78, 2.

Iragana. Aditza nola joaten den, eta ergatiboa nola moldatzen den adierazten dugu hemen:

«Bérac emána dúgu arima» 75, 3;
 «Berás Heli Sacerdóteac errána errán» 71at., 1;
 «eta niórc nión ezin izán deus oníc, ezpáda berórrec emaníc» 33, 5;
 «Señále ónac túzu, ez utzia zú infielen értean, parátua bere Elizan, esperátua orái árteo...» 126 at., 4;
 «Orréc emánac ditút» 37, 4; «orréc emánes» 33, 3;
 «Naidúzu honradáien ta zervitzadáien bere Magestadea zutas...?» 88at., 1;
 «pacienciaréqui guciá erdechstendá» 18, 2;
 «Samiñ ta látz diren janáriac dulzatzendíre azucre-licaréqui» 16, 1;
 «Dire mátsac: emén beardíre ichsticátu, ta prensátu» 17, 3;
 «Dá Jesus onarén itz erreála... naidúgun guciá escaturic emanenzaigúla» 18at., 2.

Bihurkuntza eta esaldi bihurkariak. Hitz hauen bidez egiten da: buru, ber, gueuroc; gueureac; eta aditza iraganean ipintzen dela ere:

«niórc ezdezáque presumítu bére buruas» 83, 3;
 «Inzógun bada donácio... Jaunari gueuren búrues» 37, 2;

«orréc eguingaitu beretáco gú» 73at., 2;
 «Berórri ematenáiz naizen guciáu» 38at.

Elkarkuntza eta esaldi elkarkariak. Elkar izenordea deklinatuz egiten da:

«Orí neréqui, ni orréqui, bióc elcarréqui» 73at., 2;
 «Baña bien értean aisa inendúgu langáu,... lagúndus elcárr» 25, 2;
 «elcárr naigaréla óngui» 'amándonos mutuamente' 96at., 2.

Joskera perpausetan

Joskera eta perpaus bakunak

Gramatiketan egin ohi den banaketa aurrean dugula, beren esanaiaren arabera ematen ditugu perpausak. Perpaus bakunak jartzen ditugu lehenik, adibide esangarriak hartzen ditugula bakoitzaren eredu bezala.

Perpaus enuntziatzaileak. *Bi eratara ager daitezke, baieztaile eta ezeztaille bezala:*

«Asco gaitz elduzaigu ordíc» 19, 1;
 «egún echegóntan obratudá salvácioa» 23at., 2;
 «Segúro nágo berórren aldetíc» 27at., 4;
 «Orrén escuétan éscu onetán dágo» 37at., 3; *eta:*
 «Guc eztúgu alá eguín» 26, 3;
 «ezpadúzie artzen, eztúzie izánen vicitza zeuren baitan» 23, 2;
 «macurrtugábe ez ezquérr ta ez escúi» 51, 3.

Perpaus galdetzaileak:

«Norc nor agraviatudú?» 28, 1;
 «Cergátic itenotedú ori?» 54, 2;
 «Cergátic eguitenotedú aimbérce excéssó Jesus ónac?» 68at., 5;
 «Otedá cembáit gaizquieguille, lapúrr, edo guiza-ilzále?» 50, 2;
 «Eztá erremedioríc gaitzgónen?» 102at., 2;
 «Sinestendúzu au?» 122;
 «Nauzu sendátu?» 22at.

Perpaus aginterazkoak:

«Ezgaizela tristátu Christioóc» 75at., 1;
 «Emanzagúzu gure egunoroco óguia» 86at., 2;
 «Deusec etzaitela túrba» 18, 2;
 «Ea, zaude arimo onaréqui» 115at., 1;
 «zoáz zeure echéra» 22, 1;

«*Alá guc ére diógun*» ‘*digamos*’ 14at., 3;
 «*Naibez, otoi*» 14at., 1;
 «*ea jaiquizaite*» 22, 1;
 «*Cuida bucátzeas óngui*» 19at., 2.

Hautapenezko edo gurarizko perpausak:

«*Ô norc lúquen aláco fortuna*» 24at., 3;
 «*Oh! norc ezlúquen offenditu séculan!*» 27, 3;
 «*Ô ezaunbacindez Jagoicoarén favórea...!*» 28at., 1;
 «*Ojalá beti cumplibaledi orrén borondatea*» 86at., 1;
 «*Ojalá ezpánu*» *offenditu*» 91, 4.

Harridurazko perpausak:

«*Ah gure esquerrgaitza!*» 26at., 3;
 «*Oh vicitza gaizqui empleátua!*» 27, 3;
 «*Ô Jaunarén ón ederra, cein beránt ezaundudúten!*» 106at., 3;
 «*ah! nola nindegóquen! ta nola nágon!*» 106at., 3;
 «*Ô cér egúna ura, eta cér órdua ura...!*» 81, 5.

Zalantzazko perpausak:

«*Occurritzenzaizu aguián cerbáit*» 30at., 3;
 «*Aguián atzencodá...?*» ‘*Numquid obliviscetur...?*’ 124, 2;
 «*Cergátic itenotedú óri?*» 54, 2.

Joskera eta perpaus konposatuak

Perpaus bakunak bezala, konposatuak ere beren esanguraren arabera bantzen eta sailkatzen ditugu. Liburuan barrena, perpaus bakunak eta junta-gailurik gabekoak oso ugari izan arren, konposatuak eta lokarritz txertatuak ere ez dira gutxi.

Hona hemen, behin da berriz konposaturik dagoen perpaus bat —baina esan behar dugu, ez dela maiz holakorik aurkitzen—:

«*Alá héri cengobát oñáce erruéqui, lograturic bere autará cein naizuen yágo; edo alá egón irur úrtes, edo purgatórioan irur egúnes solamente; autaturic au, aisagós bere ústes, eramánic espirituan purgatoriorá, án órduac úrte iduricequizquióla, necaturic irur órdu baño lén, lamentátus bere engáñua, erdechiric bérriz naibázue itzúli, itzúli bai itzuli &*» 60at., 1.

Ikusagun beste hau ere: «Dá Jesus onarén itz erreála, berabaitan mantentzenbagára, ta bere itzac gurebaitan, naidúgun gucía escaturic emanenzai-gúla» ‘Si manseritis in me, et verba mea in vobis manserint, quodcumque volueritis, petetis, et fiet vobis’ 18at., 2.

Noizean behin, hitz-ikara bezalako bat egiten dute gure buruan zenbait pasartek:

«Gloriará eramanbeartuenác naitu bére Sème Jesuchristorén confórme izandaitzen Jangoicoac» 'Praedestinavit conformes fieri imaginis filii sui' 63at., 1 eta 2; eta beste honek:

«Lázaro póbrea llágas beteric emén, ilcelaric eramanzutéla Aingueruec (sic -gue-) paraísorá, dió Jesu Christoc evangelioan» 63at.-64.

I. Erkadan ipiniak, lokarririk gabe. Goian hitz egin dugu honetaz, adibideak ere aurkeztu ditugularik. Ik. «Aditzaren eremuan edo inguruan» izeneko atalean, «Erkadan lokarririk gabe» deitu paragrafoa.

II. Perpau koordinatuak. Adibideak ematen ditugu.

Perpau kopulatiboak: Partikulak eta, ta, baitare, ez eta ezta dira. «Gógo óna biz...: eta echidén Jangoicoái, ta eramán óngui» 13, 5;

«ártu óngui (gurucea), eramán óngui, eta ségui Jesus gurucificátua» 15, 5;

«bere adisquideén adisquide dá, ta bere seguizaleén lagunzále» 15at., 1;

«logradezatengátic, ta abásto logradezáten» 21, 2;

«palacatzendá Jangoicoa...; admititzengaitu bere grácian; arintzendá conciéncia; desahogatzendá gogoa; libratzendá cuidado andienetic; eta alá dago bát libreágo ta alegreágo» 2lat., 1;

«vizcorrbéz ene féde héria, baitaré ene gorpútz héria» 14, 2;

«jaiquizaite; ártu sóñean zeure goatzegói ta zoáz zeure échera» 22, 1;

«eztiógu obeditu, ta ez cumplitu bere borondátea» 25at., 3;

«macurrugábe ez ezquér ta ez escúi» 51, 3;

«cerén ezpaitu mugaríc bere ontasúnac ta misericórdiac, eztaére neurriric Jesu Christorén merejimentuec» 27at., 4.

Perpau adbertsatiboak: Partikulak baña, baizik, ezpada, ala ere, bai, ezi, eta ta dira.

«apárta enegánic tragogáu: baña ez nauténa nic, baicic orréc naiduéna eginbédi» 18at., 1;

«nión eztaique errepausa, ezpada bere Jaunarén biótzean» 73at., 1;

«ene Jauna izáqui ain ón amáblea beréz... eta alaére nic offenditu bere Magestadea?» 49at., 3;

«Emén ez Aingueruac, bai Aingúruen Jaunac bérac convidatzengaitu» 24, 2;

«eta ur tantabát escatzenzuelaic (abratsac), ez emán, ezi errancequióla, oroizaite...» 64, 1;

«Ó Jesus óna, nic ánit zorr, ta guti dá pagatzenduténa» 61at., 2.

Perpau disjuntiboak: Partikula edo da.

«edo padecitu, edo il» 'Aut pati, aut mori' 17at., 2;

«cein naizúten bietáic, Jesus edo Barrabas» 38at.;

«bietáic bát: Edo libratucogaitu artáic; Edo lagunducodigu, eramáteco óngui» 15, 3;

«Amatzendút, Jauna..., yágo ezi errán edo pensadaiquen ón gucía» 44, 4.

Perpaua banatzaileak: *Lokarriak* dela...dela, edo...edo, ya...ya, eztare, an...emen, eta bata...berzea dira, *guk aurkituak*.

«dela goichságo, déla beranchágo, guti doáie óntan» 76at., 1;

«Cerén trabájuac, dirénac diréla, baitatózi Jangoicoarén escutic, edo disponitus, edo permititus» 51, 4;

«S. Bernardo dá herièn consólu, yá ematentuén arracioengátic, ya gaitz passatucituéla tionengátic» 66at., 3;

«Christio fiél fiñac eztú contentatubeárr errezuéqui, eztaré óbra onéqui sollic» 54at., 3;

«justicia salvo, eztaique pássa penaricgábe, déla án, déla emen» 60, 2;

«S. Tiago ta S. Juanen Amac escatució Jesus onari, manazézan jarritezcoó bi semegáiec, bata berarén escuietic, bércea ezquerretic bere erreinuan» 16at., 3.

III. Perpaua menpekoak.

Menpeko perpaua subjektiboak: *Gero ipintzen ditugun perpaua objektiboak denak, uste dugunez, subjektibo bilakatu daitezke, aditz laguntzailea aldatuz, hots, laguntzaile iragangaitza ezartzen badugu. Aurkitu ditugun zenbait adibide:*

«Jesus ónac errána dá... ardezála bere gurúcea, eta seguidezóla» 15, 5;

«Señále, oroitzendéla zútas Jangoicoa» 16, 3;

«Vicitzea óngui da habilitáde ándia» 19at., 2.

Menpeko objektiboak: *Era askotara antola daitezke, hots, a) subjuntiboaz, b) -la atzizkiaz, d) ezi juntagailuaz, e) erlatiboaz, f) partizipioaz, g) aditz izenaz eta h) zeharkako galderaz. Adibideak:*

a) «Amac escatució Jesus onari, manazézan jarritezcoó» 16at., 3;

b) «ezaundu beardúgu, badugúla cúlpa» 18, 2;

d) «Erremédioa... Dá errátea, ezi penaturic gaizquieguínas valiatubeargárela...» 19, 1;

e) «pensátus passatuzuéna» 16, 1;

f) «nauzie zuéc ere joán?» 14at., 3;

g) «manazézan jarritezcoó» 'que se sentasen' 16at., 3; «daquiténac eramánten» 'sobrellevar' 15at., 3.

h) «Eztaquizie cer escatzenduzien» 16at., 3; «Óntan aguéri dá diógun amóre, ta cembát» 54at., 3.

Perpau erlatiboak: *Perpau hauek taxutzeko zenbait hitz eta atzizki erabiltzen dira, hots, -n atzizkia eta zein, bai-, nor eta zer; hemen sartzen ditugula ere edozein, non, nondik eta nora. Jakina, gehien ageri direnak -n, zein eta bai- dira.*

Bai- ageri bada, ez zaio aditzari -n atzizkia eransten behin ere; baina zein (salbuespenik badago honekin) nor, zer, non, nondik eta nora ipintzen badira, orduan idazten da -n hori. Edozein berriz, subjuntiboarekin joaten da.

Erlatiboa osatzeko, -n erlatibozko atzizkia erabiltzen bada, «erreferente» bezala dagoen hitza, perpau erlatiboaren aurretik edo atzetik ageri daiteke.

Erlatibozko perpau murriztaileak sortzeko, -n hartzen da; baina esplikatzailak egiteko ere balio du atzizki honek. Besteak, hots, zein, bai-, nor, non, nondik eta nora esplikatzailak antolatzeke dira; nor eta edozein bereziak direlarik.

Adibideak ematen ditugu hemen orain:

-n. «*Samiñ ta látz diren janáriac*» 16, 1;

«*nic sinestendút dióna S. Pedroc éguia*» 21, 3;

«*Bitárteo ez atzén obligácio adiaracibearrdirénes*» 27at., 5;

«*Ni naiz janári viciá jautsinitzána cerutíc*» 23, 2;

«*Ojalá bálitz órren amórea arima viztunazána, ta súa consuminazána*» 44at., 2;

«*Beldúrraraztecó dire sollic gueuren becátuac, gure cóntra daudénac escátzen justicia*» 47at., 2.

zein. «*Cerén tugaric cúlpac, merejitúgun pénac, cein baitire nola peniténaciac Jangoicoac parátuac*» 52, 2;

«*Orréc, Jauna, bere pena sanduengátic, ceñen memória itenbaitut nic*» 42, 3;

«*dugúnac... anáia lén léna ta andiéna gucién salvazálea Jesus óna, ceñen márca daramágun*» 75at., 1;

«*Jangoico andiarén borondátea, ceñen conforme beárda izán guizeñaréna*» 51, 3;

bai-. «*Nor gure Jangoico Jauna becála, góra dagoláic, beiratzenbaitu humiléi céruan ta lúrrean...?*» 33, 2;

«*Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indidan favórea preservátzeas ta guardátzeas ni... erorcetíc berce ánitz cúlpa ta becatuetán, erericobainitza ('en que hubiera caído'), ezpanindue guardátu*» 34at, 2.

«*Munduarén ustés nor ére dén garaitzecó, golpatzecó, iltzecó bérceac, ura dá goápo*» 'el que sea (capaz) de' 55at.;

«noren becátuac barcatzentuén, barcátuac izanendiréla, ta norénac uztentuén barcatugábe, alá guelditucodiréla» 25, 2.

zer. «Cer beárden procurátu gueienic, dá contricióscó péna» 25, 2;

«Jangoicoai zervitzatubeárda cértan naiduen bérac» 55at.

edozein. «edocéin gogorácio edo gauza ocurridáien orréc naieztuenic, edo naiduenarén cóntra, ezdezála vália» 39at., 1;

«edocéin tentácio edo peligro aguidáien...» 39at., 2.

non. «negarréscó vállea, nón culpac eta pénac abásto elcarrén atzétic baitátóz contíno» 75at., 3;

«negarréscó vallegóntan, non trabájuac túgun abásto» 58, 3.

nondik. «estimatzendút berórren... ondasunquéta imménsoa neurrigabé-coa, nondic baitatorr ón dén gucía» 33, 5;

«Eliza, salvaciosco árca, ceruráco videa, nondic daiquen átra sálvo naiduéna» 35, 1.

nora. «eta imbezáda gracia eramáteas ni, nora eramánzuen ladrón dicho-sogúra» 42at., 1.

Perpaua lekuzkoak: *Perpaua erlatiboetan aurkeztu ditugu*, non, nondik eta nora adberbioen bitartez osatutako adibideetan.

Perpaua denborazkoak: *Hauetan ere zenbait atzizki eta adberbio erabil-tzen dira, hots*, artaño, arteo, -asgueros, baño, len, bitartean, -(r)ic, -la(r)ic, noiz, noiznai, ondoan, orduko, -(z)ean eta -(z)erakoan.

artaño. «Ó éne Jangoico Jauna, eztút utzico, bedeicanázan artaño» 41at., 2.

arteo. «susténtu divinoa... duéna vertúte gucía passarázteco aisa ta vizcór oraico vide dugúna, ellegatuárteo Cerúra» 24, 2.

-asgeros. «Doátsua guizóna suffritzenduéna tentácio, cerén ezi probátuas guéros emanenzáio Coróna...» 55, 3;

«Bein óngui atrasguerós, beticos óngui» 76at., 3.

baño len. «onetsibaináu ni jaiobáño lén ére, ta jaiogasguéros» 34, 4.

bitartean. «Orái naiz idúri cerbaiño, passátu-bitartean; desaguertucodá deus becála» 64at., 3.

-ik. «erresucitaturic ta igánic ceruétara..., guelditucéna» 28, 4.

-la(r)ik. «gaizqui nagoláic, nágo obéqui» 22, 3;

«Berás bere borondatea delaric gú héri egótea, héri egótean paciéncia onaréqui dá zervitzátua» 55at.;

«Oroibedi nitas, Jauna, doaieláic bere erreinurá» 57, 3.

noiz. «*Jaunac dáqui noiz árteo beárden idúqui úrrea súan, ta óguia lábean. Noiz beárden, atracodú*» 61at., 4;

«*auda órdua, noiz eztióten nic béñere faltátzen ene devotoéi*» 133, 2.

noiznai. «*noiznai convertidáien, admititucoduéla*» 102, 1.

ondoan. «*prestaturic elcebát belárres, egosióndoan chastaturic, ta ezin pássa...*» 24, 4.

orduko. «*Oroibédi nola, escatu-ordúco, offrecitución ladronai paraisoa*» 137at., 1;

«*Arima gorputzetíc berechsi-ordúco*» 140, 1.

-t(z)ean. «*Jaun ónac lendanic icusició biótza, ta parerá ellegátzean oiueguincio*» 23at., 2.

-t(z)erakoan. «*Zaquéo guizón chipiñtóbát igánce arbolabatéra, icústeco ándic passatzerácoan*» 23at., 2.

Perpau moduzkoak: *Atzizki eta adberbioen bidez sortzen dira hauek ere.*

-ak («*beldur*» izenlagunarekin aurkitu dugu). «*S. Rosa de Lima cegoláic bere condenacioarén beldúrrac icár icár*» 47at., 1.

ala nola. «*Ala nola loi-órea oficialearén escuán, alá ni berórren escuán, ene Jaun óna*» 71, 4.

ariora. «*orréqui valiadaquígun Christorén satisfaccioarén tesóro immen-sogártaic, laguntzengáren ariorá*» 61.

bekala. «*lécu guciétan becála, emén ére adítzen ta icustenzaituéla*» 59, 2.

gisan. «*amátu bearr guindue entráña gucies, ezin atzén, ezin soséga guindeizquen guisan amorearén úses*» 49, 2.

-ik. «*Jauna, cerbáit albadezáque, imbezágu caridáde, urricarituric gútas*» 14, 2;

«*Alá óngui eramaníc trabájuac dire Jangoicoaren amorearén seña-leac*» 16at., 1.

-la. «*Paratucéquio béin leprosobát belauríco escatzenzióla, Jauna...*» 14, 3.

nola. «*eguín ta deseguínbéz guciétan, nola duén placér*» 37, 4;

«*eguínbédi, ez nola nauten nic, bai nola naiduen berorréc*» 45at., 2.

nola nai. «*Orréqui óngui nágo, nola nai nágon*» 46, 1.

-s. «*ítendidán favórea... comunicátzeco elcarréqui bióc orácioan, adítus ene otoitzac, emánes bere gráciac, favorátus ón dén gucias*» 36, 4;

«*ítendidán favórea..., jautsis Cerútic enegátic Jangoicoa, ta guizón eguiníc passátus ánitz trabáju... orréc enegatic*» 34at., 3.

-t(z)en. «*béra dágo déies convidátzen*» 14at., 5;

«*Orái gueldizaite erretiraturíc beraréqui zeure biótz bárnean ichsil ichsila gráciac emátén*» 30at., 5.

Perpaus konparatzaileak: *Lehenbizi, berdintasun konparaketan erabiltzen diren hitzak ematen ditugu; gero desberdintasun konparaketan ageri diren hitz eta atzizkiak. Beharbada, ematen dugun adibideren bat ez da bete betean konparaketa, baizik eta moduzko perpausa edo.*

A. Berdintasun konparaketak. *Adibideak:*

adiña. «*meréji adiña péna eztút*» 60at., 2.

ain. «*beti ta béti egotegúra...*, ain *béri milla urteén búruan, nola lembicico egúnean*» 65, 2.

ainberze. «*Eztíó emánen oní aimbérce cárga, trabáju, ta péna, nola eramanzuén bérac*» 50 bis at., 2.

bekala. «*Cumplibédi orrén borondatea céruan becála lúrrean ére*» 53, 6.

bezain. «*Fedea bezain firme beárda izán esperánza*» 100, 2.

diña. «*Eztá valioduén diña costa*» 58at., 1.

nola. «*Ain éguia dá au, nola fedea*» 43, 3;

«*Eztúzu aláco missioríc, nola heritásun onbát*» 62, 2.

B. Desberdintasun konparaketak. *Adibideak:*

baño... -ago. «*gu gueuróc naigáren baño obequiágo*» 23, 2;

«*guc deseála, ta pensaála baño yago ta yago*» 33at., 4;

«*Eta guc baño obéqui dáqui*» 45at., 3;

«*ni baño onágo cé*» 77at., 2.

-ago ezi. «*Ó ilbanitza lenágo ezi ellegátu erórtzera becátu mortálean!*» 49at., 2;

«*Onestendút yago ezi gauza guciác, yágo ezi gústoc, yago ezi conténtuac, yago ezi hónrac*» 30, 2;

«*Gloriará joán obedúzu egónes héri, ezi ez infernurá sáno egónes*» 62, 2;

«*Onestengaitu obéqui ezi gueuróc onestengáren*» 45at., 3.

Perpaus kausazkoak: *Hemen aurkitzen ditugun hitz, aurrizki eta atzizkiak -as geros, bada, bai-, ezi, -la, -laik, nola, zeren, zerengatik eta zergatik dira. Erabilienak zeren, ezi eta bai- dira; besteak askoz gutxiagotan ematen direla. Bestalde, zeren hiru modutara aurki daiteke: bakarrik, edo bai- eta ezi aurrizki eta hitzarekin batean. Zergatik juntagailua, bakarrik ageri da, aurreko galderan zergatik adberbioa dagoenean eta aditzak -n atzizkia hartzen du. Zeren bakarrik doanean, aditzak -n atzizkia hartzen du; besteekin ez.*

-asgeros. «*Jauna, etorridenasguerós eguitera gráciac pobreari, escatzen-diót lenic emandezádala becátuen barcamentu ósoa*» 31at., 2.

bada. «*Eta bada Jangoicoaren grácias, Jesús onarén médios esperatzen-dúzu gozátzea..., badezaquézu orái suffritu*» 64, 4.

bai-. «*Cerén trabájuen videgónaíc baitoáie... procéssio luce edérr lucitua, baitúgu quidári, alcindári, ta lagún goápoac*» 52, 1;

«*Sinestendút..., naiz gure buruchsólec ezin enténda nola, ásqui baita berórren itza*» 29, 3.

ezi. «*Gucióc goáz mundugónaíc, ezi ezgaude emen egótes*» 75, 3;

«*Aita, barcabezóte, ezi eztaquite cer aidiren*» 109, 1;

«*Jesus óna, bego enéqui, ezi ilúna dá yá*» 139, 3.

-laik. «*zureá dá ceruétaco erreinua, zuregátic pagatudueláic aimbérce Je-sus ónac*» 48at., 1.

-la. «*acaituríc etzánce lúrrean, aláco vicia baño naiagozuéla il*» 24, 2.

nola bai-. «*Emén nola baita destérru ta negarréscó vállea, eztá gauza oníc segúr ta betíco*» 80, 4.

zeren. «*Motivoa dá, cerén alá baita..., baitatózi..., brindatzentigun..., pro-gatzendén..., eta órtañ iten baizáio..., dágon..., seguitzen ta imitatzendugún..., baita..., dén..., baitágo..., baitoáie..., merejitúgun..., ematendiógun..., baita..., goartzengaitúten... (&)*» 51-52.

zeren bai-. «*eztá yá izanén negarríc..., cerén passatubaicire léngoac*» 'quia prima abierunt» 64at., 3.

zeren ezi. «*Zaude, Pablo, ásqui dúzu ene grácia, cerén ezi gaitzeán erreffi-natzendá virtútea*» 'quia virtus in infirmitate perficitur' 22at.

zerengatik. «*Bai. Cerengátic Jangoicoarén glória ta sendagállá gloriósoa dá barcátzea*» 90, 2.

zergatik. «*Cergátic bada alá? Cergatic dén óna*» 50, 2.

Perpauis ondoriozkoak: *Aurkitu ditugun partikulak ain...ezi, ala, ala bada, bada, beras eta orgatik dira.*

ain...ezi. «*Ain óna dá Jesus, ezi óngui eguinnáiez alcinatzendá béra*» 14 at., 5.

ala. «*Pensa Jangoicoaren escutic... elduzaizúla eldudaquízun gucía...: eta ala eztéla gaitz eguiascoric, baicic becátua sollíc*» 73, 2;

ala bada. «*Alá bada zuc ere naibauzu sendátu, ártu confessioarén erreme-dioa*» 22at.;

bada. «*Sinestendút bada, Jauna*» 14, 2;

«*Errán bada zuc ere*» 14, 2;

«*Bada orrá oráció labúrítóa ta propía*» 14at., 1.

beras. «Orduán (errancio) Sánduac, berás zureá dá ceruétaco erreinua, zuregátic pagatuzueláic aimbérce Jesus ónac» 48at., 1;

«Berás orréc sollic beárdu heritu éne biótza» 50, 3;

«Cer imbeardúgu berás?» 72at., 3.

orgatik. «orgátic dút yágo péna offendituas» 117at., 1.

Perpaua baldintzazkoak: Ba- eta barinba- ageri dira maizenik; gero baldin...ba-, baldin...barinba- (behin aurkitu dugu), artaño, -larik, nola, nonta eta ezperen (?). Ik. -t(z)ekotan ta -t(z)ekos perpaua xedezkoetan.

Lehenbizi, lokarri hauen adibideak ematen ditugu; eta gero, esanaiari begiratzen diogula, beste talde bat.

A. artaño. «eztút utzico, bedeicanázan artaño» 'Non dimittam te, nisi benedixeris mihi' 41at., 2.

ba-. «cerbáit albadezáque, imbezágu caridáde» 14, 2.

baldin... ba-. «Eta baldín óngui errecibitzenbauzu, erranéndu...» 23at., 2.

baldin...barinba-. «baldín beraréqui padecitzenbarimbádúgu...» 61.

barinba-. «Aita, possible barimbáda...» 18at., 1.

ezperen. «Nor edo cer náiz ni berórren áldean, manatzenbaitida amadezá-tela, ta ezperén, meachátzen miséria andíac?» 103at., 2.

-larik. «emanendú osasúna, bearrdelaric» 13at., 1.

nola. «Nola naucan bere amórean ta gracian, imbez enéqui nola naiduen» 54at., 2.

nonta. «nonta humillatzengáren, ematucodú golpea» 60, 1.

B.1. «beraréqui mantenitzen bagára, segúro gára» 15, 3;

«Jauna, naibadú, banazáque sendátu» 14at., 1;

«cerbáit aldabezáque, imbezágu caridáde» 14, 2;

«mantenitzenbagára... emanenzaigúla» 18at., 2;

«sendátzeco aiságo, convenibáda» 21at., 1;

«ezpadúzie ártzen, eztúzie izánen vicitza» 23, 2.

«alá pagatu bazue..., nola beárdu pagátu...?» 50 bis, 2.

2. «ellegabanédi uquitzera..., sendatuzonáiz» 24at., 3;

«galtzenbaguinázque, orí litzáquela gueuren cúlpa» 40at., 1;

«nainúque eramán..., albanezáque» 54, 1;

«Milla vici barimbaguindúza ére,... ezin guindezóque pága» 120, 2;

«Galtzenbálitz au, gáldua dá cóncha ére» 76, 2;

«Cerbáit óngui banu ere, artucodút ichsilic egótea» 83at., 3.

3. «convertitubáze, barcatucoció» 48;

«Cein ón cén orái, izanbaguína ayén guisará!» 25at., 3;

«Utzibaguina iltzera ere,... merejizué» 26, 3;
 «berarén borondatea imbaguindez beti, beti óngui guinázque» 45at., 3;
 «yago ere inencigu, ezpaguindio esquérr gaichstos pagátu» 26at., 3;
 «Oh! Ezpaguindu séculan eguin becatúric, cein ón litzáquen orái!»

26, 3;

«Ezpaguindue ortaráco...escaidaríc, bentzáit bearrguindue zervitzátu...» 26, 3.

Perpauk kontzesiboak: *Hemen*, naiz, ezpa-...ere, datorrena datorrela, dena dela, *eta horrelakoak sartu daitezkeela uste dugu*.

datorrena datorrela. «datorréna datorréla, deusec yá ezdezáque eguin gaizquiríc» 18, 2.

dena dela. «Gorpútzas déna déla, biz salvo arima» 17, 3.

ezpa-...ere. «Ezpálitz ére bérce motivoric..., bearrguindue sufritu» 56at. ere. «sendátzea grácias paguricgábe, ta aguían deitugábe ére» 13at., 3.

Perpauk xedezkoak: *Atzizkien bitartez edo eta aditza subjuntiboan ipintzen dela, sortzen dira. Atzizkiak hauek dira: -gatic (aditz izenari edo subjuntiboari erantsiz), -t(z)eko, -t(z)ekos, -t(z)era. Bestalde, -t(z)ekos atzizkiak baldintza ere adierazten duela, uste dugu.*

-gatic subjuntiboari erantsirik. «emén ez bárca, barcadézagátic eternidádean» 17at., 1;

«Ni, dió, etorrinitza, logradzatengátic vicitza» 21, 2.

subjuntiboa. «Errecibitu beardúzu..., errandézan» 28at., 3;

«Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna, itendidán favórea..., galezná-dien» 36, 1.

-t(z)eagatik. «eztiógu obeditu, ta ez cumplitu bere borondátea, cumplitzegátic gueuren passióne gaichstoac» 25at., 3.

-t(z)eko. «emén bearrdire marcátu gurúceas, berechstecó gálduen ertetic» 17, 3;

«laguntzenbaitu edérrqui, sendátzeco gorputza ére» 21, 2.

-t(z)ekos. «Alá guc ére diógun, oníc izatecós, norengána joaingára, ezpá-da orrengána?» 14at., 3;

«Beti ere beárda estimátu ta billátu Jangoicoa, izatecós oníc» 19at., 2.

-t(z)era. «igatecó ('para') án góra coronátzera glórias» 16at., 1;

«Prestatzecó ártzera elizaco ordenamentuac» 21, 1.

-t(z)ekotan. «Bérac emána dúgu arima, itzultzecotán, noiz manadézan» 75, 3. Oharpena: *Adibide honek baldintza ere adierazten ote du?*

II. ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO. ITZGAIAC.

(I)

(Gurutze) Erién óngui maneátzeco, eta ongui iltzen lagúntzeco, Cem-báit itzgáien oroigárri ta asiéra, escritúra sagratuetáic, ta sanduetáic beréch-siac, escunará izáteco cér errán bearrorduán Apez-Aitac bere hume espiritualeíi, cláro, pláu, ta sencillqui parátuac.

Biz Jaungoico andiarén gloriátán, eta arimen prochután. Amen.
Azqueníc eguína mila zorzi eún ta zazpigárren urtean.

Goárt. Latinez parátuac dire berárias, ez alá errateco eriarí, ez,baicic oroigarrítaco memoriarén amóres, obéqui alá oroitzecó errannaidénas.

(Iat.)

A. Amórea dá gueiën beardéna. Ô ene Jesus, nainúque errecibitu Sanduec becála nic ere alicáco obequienic: baña emén eztú aurquitúco gauza oníc, ezpada borondáte óna. Onéqui nainúque onétsi bearrbecála. Ones-tendút ene biótz guciaréqui, arima guciaréqui, entráña ta indárr guciéqui. Onestendút yago ezi gauza guciác, yágo ezi gústoc, yago ezi conténtuac, yago ezi hónrac &. Nainúque onétsi affécto, effécto, ta perfectoaréqui &. Nainúque orren amóres vici ta il (Icusázu beiti caridad. pag. 44.)

30at.

Comecatzerácoan

Pax huic domui &. Asperges me hysopo &.

Ea, ellegatudá sacramentugóntan gloriaco Errégue Jauna béra, Jesus óna podóre ta amore guciaréqui: Estimazázu; baña errecibitu beárda, garbituríc arima: Ortáco confessatuzára. Occurritzenzaizu aguián cerbáit, erreconciliatzecó? & *Omnia ut in Manuali.*

Comecatu-ondoreán

Ea, errecibitudúzu gure Jauna: Orái gueldizaite erretiraturíc beraréqui zeure biótz bárnean ichsil ichsila gráciac emáten: lenic óngui etórria, *Nondic* niri aimbérce ondásun, nola etórria berorren *Magestadea* enegána? Óngui etórdela ene Jaun oneguia & Guero emán esquerr milla milla. Guero egón errétzen amoréscó affectoetán, amatzenduzúla biótz guciaréqui, arima, entráña, indárr, ta ántsia guciéqui yago ezi gauza guciác, yago ezi mundua &. Guero escátu nauzúna alá arimarén, nola gorputzarén, ezi Jesus dá Salvazále: baña arimarénac éscá sueltoqui,

31

gorputzarénac, convenibada. Offrecitu amatucozuzúla betícos; eta zeuroi utzizaite berarén besoetan.

(Goárt. Barimbáda búru ta dembóra ásko, eracutsidaquióque emáten esquérrac guisaóntan (sic) ére:

Ongui-etórrria dá lenic:
 Sinétsi, Onétsi, Laudátu:
 Dena emán, Beardéna escátu:
 Offratzéa dá azqueníc.

1. *Onguietórrria* déla gloriaco Errégue Jauna bere probreñoagána. Nondic niri aimbérce ondásun?

2. *Sinétsi*. Ceren ezi sinestendút firmequiró berórren *Magestadea* da-góla presénte &. pag. 29.

3. *Onétsi*. Onestendút ene biótz guciaréqui &. p. 30.

4. *Laudatu*. Cer emanendiót ene Jaunari, emandidanagátic niri? Nic ezdezóquet emán millaendáco bát: ene pártes ta enéqui báteo áma, estima, bedeica, ta laudabezáte Ainguiruec (sic) eta sanduec Ama Virginaréqui. Laudabezáte céruéc, egúzquiac, ilárrguiac, izárrec, láñuec, ta an goraco gauza guciéc. Laudabezáte súac, aiceac, &. Canticum trium puerorum.

31at.

5. *Dena emán*. Itendiót, Jauna, ene buruarén ta gauza gucién erres-titúcio ta entréga & ut infra p. 37.

6. *Beardena escátu*. Jauna, etorridenasguerós eguitera gráciac po-breari, escatzendiót lenic emandezádala becátuen *barcamentu* ósoa, ta *gracia* orrén beguitán. *Bigarrena* emandezádala auxilio efficáza, ez erorcecó berórren *desgracian*, ta becatuetán séculan. *Irugarrena* emandezquidála vir-túteac, humiltasúna, castidádea, paciéncia, mansotasúna, fede vicia, espe-ránza sánoa, *caridade* bétea, ta gañarácoac, eta quéndu ene vicioac: itzbá-tes, innazála guizón berribát berórren gustorá. *Laurgarrena* emandezádala iltze óna, ta bere assisténcia lancegártan, ta ondórean salvacióscó senténcia. Escatzendiót alabér gorputz-ástogonendáco osasúna convenibáda: baitaré Elizaren onagátic &.

7. *Offratzéa*. Offratzendiót Aitari, Semeari, ta *Espiritu* Sanduari ach-súri divinogáu & Ama Virginarí bere Seme ederra; Ainguiruái &.&).

Ô Jesus, ori nereá, ta ni orréna betícos. Amen.

32

3

Jaungoicoarí Gúrte, Adorácio, Laudário*Soli Deo honor et gloria in saecula saeculorum.*

Nornáiec eta nonnái dezáque zervítza *Jangoico* andiarí, baitágo lecu guciétan presénte bere *Magestadea* eta deusen beárr eztéla: *Jangoicoa* (l.) *dá espíritu*, dio *Jesu-Christoc* (l.), eta *adoratzeunténec* *beautela* *adorátu* *espírituas* ta *eguiáz* (sic). Ala bada zuc ere quartogóntan ta goatzegóntan, naiz héri egón, ain óngui nola témploan, dezoquézu zervitzátu biótzas amátus, ta estimátus bere *Magestadea*, eta biótz-bárnean eguínes gúrte, adorácio, ta laudário espírituas. Errán alá;

Affectoac (l.) = Ô *Jangoico* Jaun andía gora bacárra, bere pareric eztuéna, Errégue gucién Errégue, Jaun gucién Jaun, ta gauza gucién Jabe, nióren beárr ez, ta nióren ménean eztagóna, bai gucióc berórren beárr garéla, berórren péan eta ménean gucióc an goiti, ta emén beiti lécu ta dembóra guciétan. Ô Jaun eguiáscoa infinitoqui óna, poderósoa, sabioa, jústoia, principio eta fin gauza guciéna, guciétas dezaquéna eguín eta

32at.

deseguín, nola duén placér; eta gaizqui deníc ezpaitezáque eguín ta eznái ére: eta berórrec eguína, dena déla, baita óngui eguína, naiz guri neque idúri:

Oná nic emén berórren preséncian biótzes curturíc humil humíla, lurréco arñloac becála, sin sinés adoratzendút orrén *Magestadea* presénte aditzen

ta icustenduéna dén gucía, biótz barnécoac ére. Berórren Magestadearí biz hónra ta glória, laudáριο, amóre, ta estimáριο gucía orái ta beti guciengánic. Amen.

Timete Deum, et date illi honorem. Humiliamini sub potenti manu Dei.

Jangoico Jauna, diót eta naidiót izán orren Magestadearí estimáριο, beldurrtásun, ta errespéto dagoquióna: Humillatzenáiz berórren mempé-coa ta becatária becála berórren éscu poderoşoarén péan. Artzendút ontzát azotteřogáu, ta apatzendiót éscua. Biz berórren amóre ta gloriatán *solamente* aurquidezála pobregóneć grácia orren beguietán, ta eztágola óri ene cóntra.

33

Quis sicùt Deus noster, qui in altis &.

Nor gure *Jangoico* Jauna becála, góra dagoláic, beiratsenbaitu humiléi céruan ta lúrrean, gorátus lurretíc beártsua, eta miseriaetáic librátus pobréřoa? Nere ezúrr guciéc dióte, Jauna, nor beróri becalacoric?

Confessátzen ta estimatzendút berórren *Magestade* soberánao, ceñen áldean eméngo Errégueac baitire nola chinúrriac, eta deus becála gende guciac: Gure goratasunic andiéna bailitzáque admititza orréc gú bere grácian. Ori naiagonúque ezi mundu gucía.

Confessátzen ta estimatzendút berórren podóre infinitoa, baitezáque naiduen gucía necatugábe ta moguitugábe; eta niór ezin daiquela mógui, ez vici, ta ez izan ére momentubátes, ezpáda orréc emánes.

Confessátzen ta estimatzendút berórren ontásun, ta ondasunquéta iménsoa neurrigabécoa, nondic baitatorr ón dén gucía, eta niórc nión ezin izán deus oníc, ezpáda berórrec emaníc.

Confessátzen ta estimatzendút berórren chsaquin-

33at.

tásun infinitoa, icustenbaitu gucía bátean gucis claroqui, léngoac, oraicoac, guerócoac, ta biotz barnécoac ére, ceñen áldean gucióc baicára ignoránte.

Confessátzen ta estimatzendút berórren ederrtásun ta santidáde bete betéa faltarcigábe, ceñen áldean gucióc baicára beártsuac.

Confessátzen ta estimatzendút berórren justicia ta misericórdia; naibadú, banazáquela condéna; ta oroát, naibadú, banazáquela salva. Naibez, Jauna, yago eguín enéqui misericórdia, ezi justicia.

Confessátzen ta estimatzendút berórren liberaltasúna ematenbaitu guc deseáala, ta pensaála baño yago ta yago, mereji eztugunéi ere.

Confessátzen ta estimatzendút, Jauna, berórren perféccio ta ón gucién bete betéa, ezdezaquéna níorc enténda dén diña, eta guciéc amátu ta estimatubearrduténa, óngui izatécós. Ori nainúque nic, áma ta estimadezáten guci guciéc enéqui. Amen. Ama ta estimabezáte nola beárrden. Amen.

34

4

Jangoicoarén cembáit óngui-eguinen ezauntza, Conféssioa, ta esquérrac

Quid retribuam Domino pro omnibus, quae retribuit mihi?

Alde gucietáic gaude inguraturíc *Jangoicoaren* ongui-eguínes, guc ezin pága, ta ezin conta-ála: Baña ón dá oroitzea berére, confessátzea, ta esquérr emátea dezaquégun diña. Cer emanendiót Jaunari berac niri emantidanengátic? Goácen errepassátus cembait:

1. *Praedilectio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, eguindidan favóre betirócoa, onetsibaináu ni jaiobaño lén ére, ta jaiogasgueros beti, beti óngui eguítén, eta gaizquiríc ez béñere. Esquérr milla milla.
2. *Creatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, eguindidána criátzeas ni beretáco, emaníc gorpútza ta arima, eta ditúten poténzia, sentido, ta indárr guciác, berórren ezauntzeco, amátzeco, ta zervitzátzeco mundugóntan, eta gozátzeco bere glorian guero betícos. Esquérr milla milla.
3. *Conservatio*. Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna,

34at.

eguindidan favórea conservátzeas ta mantenitzeas aimbérce dembóras, manátus eguzquiái, ceru, izárr, lañu, aire, sú, lúrr, ta urái, ta ganaráco (sic) gauza guciéi, lagundezadátela viciarén atratzéco; ta yago déna, bere besótan idúquis berórrec ni, ta bere escuaréqui lagúndus contíno. Esquérr milla milla.

4. *Praeservatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indidan favórea preservátzeas ta guardátzeas ni condenaciotíc ántiz áldis, baitaré iltzetic, ta berce ásko malúrr aguizeizquidanetáic, baitaré erorcetic berce ántiz cúlpa ta becatuetán, eroricobainitza, ezpanindue guardátu. Esquérr milla milla.

5. *Redemptio*. Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna, indidan favórea erredimitzeas ni ta errescatátzeas Deabruarén escupetic, jautsis Cerútic enegátic *Jangoicoa*, ta guizón eguiníc passátus ántiz trabáju, pássio, ta eriótze doloréscoa gurúcean orréc enegatic, gloriaco Erréguec lurréco arřoagatic, ónac gaichstoagatic! Esquérr milla milla.

35

6. *Ecclesiae aedificatio*. Ezauntzen ta confessatzendút Jauna, indidan favórea plantátzeas múnduan bere Eliza, salvaciosco árcá, ceruráco videá, nondic daiquen átra sálvo naiduéna. Esquérr milla milla.

7. *Vocatio*. Ezauntzen ta estimatzendút, Jauna, indidan favórea deitzeas ta beréchsteas bere echéco, bere Christio izatéco, bere familiacoetáic bat bere márcas señalátua. Esquerr milla milla.

8. *Provisio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indidan favórea supplitzeas bere Elizan, ta ornitzeas salvacioráco diren médio ta erremédio gucíes, eguietafedearén *ezaumentuas*, doctrinas, Evangelioco conséjues, *mandamentues*, *sacramentues*, ta gañaráco deseadaizquénes. Esquérr milla

9. *Justificatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indidan favórea, barcátzeas anitz aldís nere becátuac, ta admititzeas berriz eta berriz ni bere grácian penitenciaco *sacramentuarén* medios, meréji ezneláic. Esquérr milla milla.

35at.

10. *Sustentatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jau- (sic) indidan favórea alimentátzeas ene arima *sacramentuan* bere gorpútz preciosoarén erregaloaréqui, acidáien gloriaráco. Esquérr milla milla.

11. *Comitatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indidan favórea irautean presénte bere *sacramentuan* contíno gure compañian, consolátzeco gú negarréscó vallegóntan, erremediátzeco beárr guciétan. Esquérr milla milla.

12. *Immolatio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, itendidan favórea sacrificátzeas eta offrátzeas bere búrua egunóro mézan enegatic, berritus bere pássio ta eriótze passatuzuéna bein, eta mostrátus baduéla amóre passátzeco anitz áldis, bearrbalíz. Esquérr milla &

13. *Gubernatio*. Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna, itendidan favórea, bere *providenciaréqui* gobernátzeas ene vicia beráches ta gogórres, erre-gálos ta azotéffoes, ónes eta gait-

36

zes, ta ásko manéras, ta guciói onnáies, galeznádien niolatéco manéran. Es-quérr milla milla.

14. *Custoditio*. Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna, itendidan favórea manátzean bere Ainguiruái, guardanázan ni, nola guardatzenbaináu érne contíno. Esquerr milla milla.

15. *Specialis protectio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, indídan favórea cuidátzeas nitas especiálqui, librátzeas ásko peligro, lánce, ta gaitz beréchs, ya izantúten, ya izannuzquenetaic, nola eztaquitéla. Esquerr mi-lla &.

16. *Communicatio*. Ezauntzen ta confessatzendut, Jauna, itendidan favórea admititzeas ni bere preséncian comunicátzeco elcarréqui bióc orá-cioan, adítus ene otoitzac, emánes bere gráciac, favorátus ón dén gucias. Es-querr milla &

17. *Inspiratio*. Ezauntzen ta confessatzendút, Jauna, itendidan favórea inspirátus gogorá ón dén gucía, argúitus *ezaumentua*, mogúitus

36at.

borondátea, tirátus onerá, erretirátus gaitzetic aláco manéran, ezi orrén al-detic izanen nitza sándu ta doátsu. Esquérr milla milla.

18. *Praedestinatio*. Esperanza dút, Jauna, predestinauéla (sic) bere gloriaráco bere borondatéz (sic), ta nainauéla salvátu. Esquérr milla milla.

19. *Praeparatio*. Ezauntzendút, Jauna, itendidan favórea prestátzeas vide guciac, ta medio guciac lén ta guéro, ta orái bérean, atranádien ni ón-gui ta sálvo. Esquérr milla milla.

20. *Salvatio, et glorificatio*. *Esperanza* (l.) dút, Jauna, orrén piedá-dean ta Jesus onarén *merejimentuetán*, seguratucoeduéla arimagáu beretáco vician, despeidan, ta ondoréco juicioan; eta emanendidála asqueníc grácia gucién coróna, baita bere gloria. Esquérr milla

Jauna, ezauntzentúten ta ez túten favorengátic ematendiót esquerr mi-lla milla; eta emanbezóte ón guciéc *eternidadean* amen. *Jangoicoac* maite zú; Zúc ere maita *Jangoicoa* amén.

37

5

Donácio, errestitúcio, ta entréga Jangoicoai (I.)

S. Pabloc erratendigu, erósiac garéla precio ándian, au dá, Jesu *Christorén* viciarén ta odol preciosoarén cóstus: Eta gutáic niór eztéla vici beretáco, eta niór eztéla iltzen beretáco: Ezi vicibagára, vicigaréla Jaunarendáco: eta iltzenbagára, iltzengaréla Jaunarendáco. Berás vicigaitzen, edo ilgaitzen, garéla Jaunarénac. Inzógun bada donácio, errestitúcio, ta entréga Jaunari gueuren búrues alá:

* Jauna, emén ceruarén preséncian eguitendiót ene buruarén ta gauza gucién donácio, errestitúcio, ta entréga gogotíc betícos osoquí erreservaic-gábe:

Arbéz, Jauna, ta beretáco iduquibéz ene libertádea: ene biótza, arima, ta gorpútza: ene memoria, *entendamentua*, ta borondátea: ene poténzia, sentido, ta facultáde guciac: ene dén ta deitzendén guci gucia. Orréc emánac ditut: berórri itzultzentiót. Manabéz, eguín ta deseguínbéz gucietán, nola duén placér. Niri emanbezáda bere *gracia* ta amórea betícos, eta

37at.

ásqui dút: orréqui nago áse ta contént. Amen.

Ematentiót gultza guciac: ene bárnean ta cámpoan dén gucia: ene obra, itz, affécto, *pensamentu*, *moguimentu*, ta errespirácio guciac; baitaré

virtúte, dóno, ta ón guciac, baitire orréc emánac. Gucióc berórren éscuan uztentút gogotic. Amen.

Jauna, orrén escuan, ta orren ampároan uztentút egúngo eguneán, egunóro, eta azquén eguneán neure buruáu, neure ón eta gaitzac; osásun, heritásun, trabáju, alivio, péna, ta consolációac; neure vicitza, iltzea, ta ilondorécoa. *Pater, in maus tuas*. Aita ona, berórren escuétan encomendatzendút ene espiritua: Orrén escuétan éscu onetán dágo. *Domine Jesu, suscipe spiritum meum*. Jesus Jauna, arbez bere ampároan bere conturá ene espiritugáu.

* Ô ene Jaun ta Jabe óna ta bacárta, orréc naibanáu ni beretáco, nic naidut beróri enetáco. *Ni orréna; ori nere; bióc elcarrénac beticos amen*. Ni orren pobréñtoa, ta orí nere Jaun ta Jabe óna:

38

Orí nere ondásun gucia: Orí nere consoláció ta aleguería: Orí nere atseguin ta gusto gucia: Orí nere hónra ta glória: Orí nere amóre gozo gozóa: Orí nere ampároa ta segurántza: Orí nere descánsua ta errepausa: Orí vicitza, ta salvációa: Orí nere biotzarén áse bete betéa, nauten ta beauten ón gucia nic deseála ta pensaála baño yágo ta yagócoa guciétaco, eméngo ta ángo, oraico ta gueróco secula seculorum. Orréqui sollic óngui nágo. Amen.

Proprio filio suo non pepercit, sed pro nobis omnibus tradidit illum. Quomodo non cum illo etiám omnia nobis donavit? Dió S. Pabloc:

Jangoico Jaunac etzió barcátu gure amóres bere seme *proprioari*, au dá, Jesus onarí, baicic entregatuzué gú guciengátic. Nola datéque ez emátea gauza guciac beraréqui báteo? Baña Jesus onarí nor ere emantendén gucis, arrí ematenzáio Jesus óna especialquiró. Cer dá emátea? amátzea, afficionátzea, quadrátzea. Bada tra-

38at.

tu-guisagáu, trucadagáu proponitzendizu Jaun ónac zuréqui: berac nai du, zuc naibauzu. Cer trucáda? Zú ematenbazára Jaunái, Jauna zuri ematenzai-zu: eta beraréqui ón gucia, consoláció, aleguería, gústo, glória, biotzarén áse ta naidezáquen gucia... Jaunarén contrarioái emantendénac logratzen-duéna dá petárdo, ta perdicio. In bada cóntu, nola Pilatoséc proponitució-ten Judioéi, *cein naizúten bietáic, Jesus edo Barrabas*, proponitzenzaizula zuri, *yá ceñi naizáren emán, edo Jaunari, edo contrariorari?* Emanzaite, fátuo ezipazára, emanzaite Jaunari gucis ta beticos. Jauna, niore eztú drechoric ni-

tas, baicic orrén *Magestadeac*. Berórri ematenáiz naizen guciáu betícos. Ematendiót ene arima, dagon amorosturíc orrén *Magestadeas*: ene memó-
ria, eztáien orói baicic órtas: ene *entendamentua*, ezdézan pénsa, baicic
orren gustotán: ene *borondatea*, ezdézan nai baicic orréc naiduéna: ene bió-
tza, ezdézan onétsi ta ez gaitzétsi, baicic orréc onesten, ta gaitzestenduéna:
gorpútz-ástoa & &.

39

6

Arimarén Contrátua eta Páctoac Jangoicoaréqui

Eguinzágun, iduribazaizu, contratu-guisabát *Jangoico* Jaunaréqui, óngui dagoquigúna gurí, eta bere *Magestadeai* quadratzenaióla daquigúna; sínétsis dagóla presénte adítzen ta aprobátzen,

erratendiogúla:

Gure *Jangoico* Jauna, guc lurréco arřfoguébec naidúgu, orréc naibadú, ajustátu berorréqui contrátugáu ta pactoguébec betícos:

1. Lembicoa, izangaitzela orrén *Magestadea* eta gú elcarrénac betícos: orí guréa, gú orrénac: orí gúre Jaun eta Jabe, gú orrén esclavo ta zervitzári: Orréc naiduéna naidugúla gúc ere, orréc naieztuéna gúc ere ez: Orréc gú betícos iduquigaizála bere escutíc, utzigábe béñere, ecarrigaizála, eramán, itzúli ta biúrr, nola duén placér; eta gúc ezdezógula deustan erresisti, bai obeditu guciétan. Itzbátes, cumplidaiéla osóqui orrén *borondatea* gútas, ta gútan. Amen.

39at.

2. Bigarréna, edocéin gogoráció edo gauza ocurridáien orréc naieztueníc, edo naiduenarén cónta, ezdezála vália, baicic oraidaníc dagóla erre-vocaturíc, ta deseguíníc, ain nola ezpálitiz. *Amen.*

3. *Irugarrena*, edocéin tentácio edo peligro aguidáien orrén cóntra, dagóla oraidanic ordúco firmaturic itzgáu *eztutélanái alacoric: errána errána*. Amen.

4. *Laurgarrena*, gúre óbra, itz, affecto, gogorácio, atsáldi, ta *mogumentu* guci guciac doazéla betiró gure Jaunarén gústo, eta gloriatán. Amen.

5. *Bortzgarrena*, guregánic eta gurebaitan eguindaitzen ón guciac doazéla unituric Jesus ónac eguincituen onéqui. Amen.

6. *Seigarrena*, gure edocéin gauza onetán naiguinduquéla izandáien zervitzátua gure Jauna álgucía ta ain nola sacrificabaguindézo aldióro gure vicia bere amóres. Amen.

7. *Zazpigarrena*, gure desoea litzáquela pulsáldi ta atsaldióro desegútea, errevóca, ta errecom-

40

pensátzea gure Jaunari eguín ta eguitenzaizquion offénsa guciac, nola orái deseguín, errevóca, ta errecompensátu naiguindúzquen gogotic algucian. Amen.

8. *Zorzigarrena*, gure desoea alabér litzáquela pulsaáldi ta atsaldióro aprobátzea eta offrátzea Jaunari eguín ta eguitentióten zervitzu ón guciac Sánduec, Ainguéruec, Ama *Virginac*, eta Jesus ónac bérac, nola orái bérean aprobátzen, ta offratzentiógun gueuren biótz guciéqui. Amen.

9. *Bedratzigarrena*, gure pulsáldi, ats, eta *mogumentu* guciac izandaitzéla bérce aimbérce amorésco affécto, ta arimarén ántsia *Jangoicoagána*. Amen.

10. *Amarrgarrena*, vicibagára, vicigaitzéla orrendáco, Jauna; ta iltzenbagára, ilgaitzéla berórrendáco: eta aláco manéran vici ta ilgaitzéla, ezi gure vician ta iltzean izandáien zervitzátua ta honrátua orrén *Magestadea*. Amen.

11. *Amecagarrena*, gueureas etsituric, baña berórren ónas seguraturic, au déla gure confe-

40at.

sio léna ta azquéna, gueurengánic eztugúla ta ezdezaquegúla gauza oníc bátere: ón guciá déla gure Jaunagánic; eta gaizqui déna gubaitan orí déla gueurengánic: salvatzenbagára, orí izanendéla *Jangoicoaren gracias* Jesús onarén médos: ta galtzenbaguinázque, orí litzáquela gueuren cúlpa: baña

esperánza dugúla, triumfatuco duéla gure culpagánic orrén ontasúnac, nobletasúnac, misericórdiac, eta gráciac, ezi gure gaichstoa baño yago dá berórren óna, ta azquenéco berórrec beárdú irabáci victória, eta gúc cantátu berórren misericórdiac *eternidadean* amen.

12. *Amabigarrena*, deitzen gaitueláic juiciorá contuétara, ezcaitzála útzi bacarric; dagóla guréqui gure fiadórea Jesus óna; eta berarén santidá-dea ta virtúteac izandaitzela gure vicioen ta becátuen ordáña ta errecompensa: berarén *merejimentuéqui* suplidaiela gureén fálda: azqueníc berarén atténcios (sic) emandaquigúla sal-

41

vacióscó senténcia betirócoa. Amen Amen.

* Bitárteo eméngo trabajuřfoguebec diréla berórren izeneán ta amoretán unituric Jesus onarén trabáju andiéqui, ta purgatório-guisa gloriarátzeco ondórean. Ortáco ematendiguláic orréc trabaju, digúla ere *suffrimentu*; escubatéqui uquitzengaitueláic, iduquigaitzála berce escuaréqui; trágo samiña brindatzendiguláic, gozadezágula bere amorearén ta consolacioarén esnearéqui: Heritasungáu déla Jesus onarén pássio dolorescoarén uniónean: goatzegáu berarén guruceco goátze gogórrarén memórian: gúre néque-pénac berarén néque péna erruagócoen memórian &.

Ô gure *Jangoico* Jauna, admitibéz ontzát gure borondategáu, ta confirmabézqui contrátu ta pactoguébec, berórren gloriatán, ta gure salvaciotán. Berórren borondátea biz mantenitzea gú emén bere *gracian* contíno, eta án bere glórian betíco. Amen.

Jangoico andiarén bedecioa bétorr gure gáin, eta bégo guréqui beti. amén. amén. amén.

41at.

Non dimittam te, nisi benedixeris mihi.

Ô éne *Jangoico* Jauna, eztút utzico, bedecianázan artáño. Jesus onarén amoreagátic limósna pobrefogóni, emandezádan bere bedecioa, eta betíco salvacioarén baiméndeá. amén. amén. Jesus.

Mane nobiscum, Domine, quoniam advesperascit, et inclinata est jam dies. Ô Jesus óna, gueldibedi guréqui, ezi ilúna dá yá, ta alcina doáie egúna.

Anima Christi, sanctifica me; corpus Christi &

Ô Christorén arima sándua, sandubenáza ni:

Christorén gorpútz preciósoa, salvabenáza ni:

Christorén odól precíósoa, ordibenáza ni:
 Christorén llagaco úr divinoa, garbibenáza ni:
 Christorén pássio doloréscoa, azcarrtubenáza ni:
 Ô Jesus ón oneguía, adibenáza ni:
 Bére llágaen bárnean alchabenáza ni:
 Ez útzi berorregánic berechsinádien ni:
 Etsai gaichstoagánic gordebenaza ni.
 Eta ene iltzeco órduan deibenáza beregána ni:
 Eta joanaráci beregána, bere sanduéqui laudadezátén nic ére beróri se-
 cula seculorum. amén.

42

*Deus qui pro redemptione mundi nasci voluisti, circumcidi, à Judaeis re-
 probari, & ex S. Augustino.*

Ô Jangoico Jauna, munduarén erremedioagátic naiizanbaizue jáio gui-
 zón; ta circumcisioarén léguea cumplitu, nola balitz becatári; ta suffritu
 condenazátén Judioéc gaichstotáco; salzézan Judas Traidóreac, ta entre-
 gátu apa falsubátén medios, lotuzezátén sóca ta cateéqui; eramanzézáten
 sacrificátzera nola achsúri oneguía; ta presentazézáten moldegaizqui Anás,
 Caifás, Pilatos, ta Herodesen alcinean; acusazézáten testimonío falsuéqui;
 azotees ta escualdies herizezátén; escárnios, errán gaichstos, lichstus ultra-
 jazezátén; coronaturíc arancees búrua golpazazóten canaréqui; béguíac ven-
 daturíc jocazézáten irris eta emáncas; biluchsiríc josizezátén gurúcean itzeé-
 qui escu oñetaic; gurúcean josiríc gorazézáten airean; parazézáten bi
 ladrónen érdian; beazún ta hozpin edátera emanzezóten; ta lánzas idiquize-
 zóten bulárra.

Orréc, Jauna, bere pena sanduengátic, ceñen

42at.

memória itenbaitut nic, eta bere gurútze ta eriótze sanduagátic liberabenáza
 ni infernuco penaetáic, eta imbezáda *gracia* eramáteas ni, nora eramánzuen
 ladrón dichosogúra orren áldean cegóna gurucificaturic, ô Jesus óna Aitaré-
 qui ta *Espiritu* Sanduaréqui vicidéna ta erreinátzen dagóna

saecula saeculorum. amen

Jauna, misericórdia: Christo, misericórida:
 Aita *Jangoicoa* ceruetaco Jauna, misericordia niri.
 Seme *Jangoicoa* munduarén Redentórea, *misericordia* niri.

Espiritu Sandu Jangoicoa, misericórdia niri.
Trintáte Sándua, *Jangoico* bacárta, *miser cordia* niri.
Urrucaribédi, barcabezáda: Urricári, adibenáza.
Gaitz gucietáic, ta becatu gucietáic librabenáza.
Berórren iratíc, eriótze eternotíc librabenáza.
Bere óngui etorriagátic mundúra, librabenáza.
Bere guizón eguite, jaiótze, ta vicitzeagátic, librabenaza.
Bere gurúce, pássio, ta eriotzeagátic, librabenáza.
Bere berriro vizte, ta cerúra igateagátic, librabenaza.
Bere juicioco eguneán, otói libra ni becatária.

43

7

**Jaunarén Espirituaréqui gure Espiritua
itzatzecó, óna börtz itze, baitire bortz C;
Caridádea, Conformidádea, Confiánza, Contriciónéa, ta Compassiónéa.**

1.^a *Caridádea. Qui manet in charitate, in Deo manet, et Deus in eo.* Mantenitzendéna caridádean mantenitzendá Jangoicoan, ta *Jangoicoa* arrenbaitan.

Ego diligentes me diligo. Caridadea(l.) dá amátzea *Jangoicoa*: eta *Jangoicoac* (l.) dió, *nic amatzentút amatzennauténac ni*. Naicindúque chsaquín maite zaituen, amatenzaituen *Jangoicoac* zú. Orrá chsaquiníc, naibauzu. Ain éguia dá au, nola fedea. *Amazázu, ta amatenzaitu.*

Nos ergò diligamus Deum, quoniàm ipse prior dilexit nos. Dió S. Juanec, *Guc bada onetsizágun Jangoicoa (l.), cerén berac lenic onetsigaituen gú.* Berrez dá gucis óna ta amáblea: bérece álde gucis óna guretáco ére, ta gúre amázale bacárra. Gucis amatugaitu beti, cerén gaizquiríc ez séculan, óngui bai indígün beti: cerén criatugaituen gú beretáco: cerén conservatugaituen orái árteo: cerén preservatugaituen ásko

43at.

gaitzetáic: cerén erredimitugaituen bere odolarén cóstus: cerén paratudígün Eliza ceruráco vide bacárra: Cerén berechsigaituen bere Christiotáco gú bere échean: Cerén ornitugaituen medio ta erremédio gucíes salvatzéco: Cerén barcátu gure gaizqui eguínac, ta admititugaituen berriro bere grácian

ásco áldis: Cerén sustentatugaituen bere gorpútz ta odól preciósoen errega-loaréqui: cerén diráuen *sacramentaturic* contíno gure compañian desterru-góntan: Cerén sacrificatzendén egunóro gure amoreagátic aldárean: Cerén cuidatzenduén gútas beti *providencia* amorosoaréqui biális ónac eta gaitzac gure onnáies: Cerén guardatzengaituen gú pobreóc bere Ainguéru ederr-gáien medios: Cerén admititzengaituen bere comuniciorá gú adítus ta fa-voorátus orációan: Cerén indígun bacóchai anitz favóre beréchs: Cerén pre-destinatugaituen bere gloriaráco: Cerén prestatzentigun vide guciac araráco: Ceren berarén órdes vicicogáren glórian &.

44

Erranzózu bada biótz guciaréqui sin sinés:

* Ene *Jangoico* Jauna, nic lurréco árřo pobregónec ezdezáquet amátu orrén *Magestadea* merejiduén adiña, baña aldezaquéten gucia naidut amá-tu. amen.

Amátzen ta estimatzendút, onésten ta maitatzendút choil gogótic ene biótz guciaréqui, ene arima guciaréqui, ene entráña, indárr, ta ánsia gucié-qui.

Amatzendút, Jauna, gauza gucién gañetic, yágo ezi erregálo ta gústo guciac, yágo ezi consoláco, ta conténtu guciac, yágo ezi hónra, estimáco, ta amóre guciac, yágo ezi ederrtásun ta ondásun guciac, yágo ezi convenién-cia ta descánsu guciac, yágo ezi osasúna ta vicitza, yágo ezi múndua, yágo ezi cérúa, yágo ezi errán edo pensadaiquen ón gucia. amen.

Amatzendút, ta naidut amátu affectoaréqui, effectoaréqui, ta perfec-toaréqui; nau errán, affectoaréqui empleátus arima ta biótz gucia amoro-zturic (sic) orren amoretán: effectoaréqui trabajátus ta obrátus al gucia orrén borondatearén cumplitzen: ta perfectoarequi padecitus, consumitus, ta iles

44at.

orren amorearén útses orren gloriatán. amén.

Amatzendút, eta naidut orrén amóres vici, ta orrén amóres il. Ojalá bá-litz órren amórea arima viztunazána, et súa consuminazána! amen.

Amatzendút, eta nainúque nola S. Theresac, nola sanduric andiéne, nola Ainguéru ec eta serafíne, azqueníc nola María *Santissimac* berac. amen.

Amatzendút, eta deseatzendút amadezátan guci guciéc, eta beti ceruan becála lúrrean ere.

Amatzendút, eta alegratzenáiz amadezáten céruan diren sánduec, eta lúrrean diren biótz préstu gucíec, ezi préstu dénac ezdezaque baicic amátu; ta amatzeneztuéna eztá préstu. amen.

Amatzendút, eta péna dút ezdezátén amátu ásko chárr miserableéc múnduan, ta alacoetáic izanbaináiz neuráu ere sobra dembóras. Barcátu, Jauna; misericórdia, ta erremediabéz.

Ene arima eztáielá yá empléa, baicic orrén gustotán; ene biótzá dagóla amorosturic orren *Magestadeas*; Ene memória ezin atzén; ene *entendamentua* &.

45

2. *Conformidádea*. Caridadearí dachicóna dá conformidádea, au dá, gure borondátearén conformátzea Jaunarén borondatearéqui, nola létra erreglaréqui.

Nolite conformari huic saeculo, sed reformamini in novitate sensus vestri, ut probetis quae sit voluntas Dei bona, beneplacens, et perfecta. Rom. 12.

Dió S. Pabloc, ezgaitzela conformátu mundugonéqui, bai erreformátu espiritua berrítus, próguac emánes cumplitunaidugúla déna déla *Jangoicoaren* (l.) borondátea óna, óngui quadratzenaíona, ta perféctoa. Irur prógu badire: *afféctoa*n agueridéna *lembicicoa* (l.), naiizánes naiduéna *Jangoicoa* (l.). *Bigarrena* (l.) *efféctoa*n, obrátus nola naiduen: *Irugarrena* (l.), *perféctoa*n padecítus ta suffritus trabáju. Azquengáu dá proguric obéna; baña badire óntan ere gradoac: Apaléna dá suffritzea pacienciaréqui: gorachságo dá suffritzea arimo vizcórr sendoaréqui: oráño gorágo ére dá suffritzea de-seoréqui yágo náies trabáju: Gorén goréna dá suffritzea alegueréqui nola sanduec. Baña preciso déna ta ásqui

45at.

doi dóia, ez faltátzeco conformidádean, dá suffritzea pacienciaréqui berére. Eztá debecátzen deseátzea ta escátzea libragaitzan gaitzetíc *Jangoicoac*, naidú: baña gueldítus berarén disposiciorá, naiezpadú.

* Heriarén biótzéan ta ágoan bégo béti peticio andigúra *Christoc* eracutsizuéna itzas ta exémpluas, *Cumplibédi orrén borondatea* (l.), *Jauna*, *céruan becála lúrrean ere*. Eta erranzuéna pássio alcinean, cegolaric odolizerdítzen congojarén útses, *Aita*, *possible barimbada*, *passa enegánic tragogáu*: *baña eguinbédi, ez nola nauten nic, bai nola naiduen berorréc. Fiat voluntas tua.*

Jangoicoarénac gára gú: eta *Jangoicoa* dá guréa. Gú bere echéco húme ta zervitzári: bera gure Aita, Jaun, ta Jabe. Onestengaitu obéqui ezi gueuróc onestengáren. Eta guc baño obéqui dáqui cer zaigun convéni. Eta berarén *borondatea* imbaguindez beti, beti óngui guinázque. Fia ta Confia berabaitan, eta errán humíl:

Inveniat servus tuus gratiam in oculis tuis. Jauna, ta Aita ona, aurquidezátela nic *gracia* orrén begui-

46

etán: iduquibenáza beti bere amórean: Orréqui óngui nágo, nola nai nágon. Asqui dá beróri enetáco.

Tuus sum ego. Ni orréna, orí nerea: baña orí yago ni baño; eguimbez nitas béreas becála. Nic eztút nai borondáte proprioric: Orrén borondátea dá nere borondátea: Orréc naiduéna naidút; naieztuéna naieztut orái ta beti. Alá biz. amen.

Christo confixus sum cruci. Christorén compañian Christoréqui josiric naut egón gurúcean. Jaunarén escutic ónac artubaitút, gaitzac cergátic eztút artubeárr? Aláco escu amorosoagánic azoteñeoac ere óndire: artzentút ontzát, ta éscua apatzendiót. Nola maitanázan, goápo náiz. S. Pedro M. quejatzencequiólaic, nola uztenzuén trabáju andibátean, zequiellaric zególa culpaticgabe, *errespondatució (l.)* gurucetic, *Eta nic, Pedro, cer culpa nué, paratzecó gurucegóntan?*

Cum ipso sum in tribulatione. Trabajután dagonaréqui dagóla gure Jauna, dió berac: lagun—

46at.

tzendú eramáten: dágo beira nola daramázun: eramázu óngui berarén amo-reagátic: alá berac izanendú placér, eta zeurórrec irabáci.

3. *Confianza. Sperent in te qui noverunt nomen tuum, Domine. Confidite, ego sum, nolite timere.*

Caridadearí ta conformidadearí darráio confíanza: ezi ezaunduasguéros *Jangoicoaren* óna, eztaique útzi maitatugábe, ezta ere confiatugábe. *Confiabezáte ezauntzenduténec*, dió Davidec: eta Jesus ónac, *Confia; ni naiz: etzaiztela lótsa.* Baða S. Tiagoc dió, *dichósoa dèla guizóna suffritzen-duéna trabáju, cerén ezi progatuasgueros errecibitucoduéla coróna.* Anima, passátzera cerbáit Jesus onaréqui, gozatubeauzuláic glorian beraréqui. Cer prénda dúgo ortáco?

Quoniám bonus, quoniám in saeculum misericordia eius. Quia apud Dominum misericordia, et copiosa apud eum redemptio.

Confianzarén ciméndua *Jangoicoaren* óna ta *misericordia*.

47

Fiadóre Jesus óna: Prénda *Jangoicoaren* itz erreála emanic daucána, ezi edocéin órdus convertidáien becatária, izanendéla barcátua. Prénda Jesus onarén pássio ta eriótze passatuzuéna, eta ichsurizuén odól preciúsoa gu salvatzeagátic. Prénda bere amóre gueiéguia gure gána, guregátic jautsiric ceruetáic bere *Magestadea* errevestitzea gure naturalezarén zamárta pobreas, eguitea gure quide, aide, ta anáia, eta infiniciobát excéssu amoréscu eguintuénac salvatunáies gú. Eztú ez utzico galtzéra costazaióna aimbérce. Eztúgu gueuréc nai gueurén salváicia? bai; bada gueuréc baño naiágo dú Jesus ónac, eta badezáque naiduéna; bagaudezque segúro berarén aldetic. Señáleac ere baitúgu: Señale bere cúna jaiótzean, gambéla; goátzea ilcerácoan, gurúcea; ta passioco *instrumentu* gañarácoac; ta gucién gañetic *sacramentu* aldarécoa. Señale bere izén *proprioa* Jesus Salvazálea; nola eztaiquen atzén

47at.

bere izénas, atzen eztáien gure salvátzeas. Señale bere bulárrean, oiñ, ta escuétan lláguen cúntzeac, conservatzentuénac cláro edérr glórian ére, nola amoréscu létrac daudénac escátzen gure salváicia. S. Rosa de Lima cegoláic bere condenacioarén beldúrrac icár icár, Jaunac erráncio, *nic eztút condenátzen, baicic naidéna condenátu bera*. Alá condenatucé Judas.

Beldúrraraztecó dire sollic gueuren becátuac, gure cónta daudénac escátzen justicia: eta alá gueurén aldetic dá beldúrra, Jaunarén aldetic confiánza. Baña penatuasguéros becátues, beldúrr baño confiánza yágo izanbeárda, cerén yágo diren Jesus onarén *merejimentuac*, ezi gure becátuac: eta gure gaichstoa garaitzendú Jesúsén ónac. Gu becatári; Jesus becatárien salvazále. Au dá Jesus, ceintas murmuratzenzúten Fariseo hypocritec, *onéc admititzentic becatáriac, ta ayéqui bazcaltzendic*.

48

Au dá Jesús erratenzuéna, etorricéla gálduen billa: *Eznáiz etórri deitze-
ra justoac, baicic becatáriac: ezi eztúte Medicu-bearric óngui daudenéc, baicic*

gaizqui daudénec. Au dá Jesus contatuzuéna hume galduarén parábola, cein contént errecibituzuén Aitac, nola & baitaré árdi galduaréna, nola billaturic Arzáiac artuzuén soñean & Au dá Jesus erranzuéna, gózo yágo dutéla Ainguéruéc becataribaten convertitzeas, &. Au dá Jesus deituzuéna S. Matheo, Zaqueo, *Magdalena*; librátu adultera; sendátu Malcorí beárria; escátu barcácio bere etsaiendáco; salvatu ladróna, Longino, S. Pedro, S. Pablo &. &. Judasi eguincio sobra convertiarastéco, ta convertitubáze, barcatuoció. Agrávio ándia gure Jaunái, eta calte gucia bere buruái itendió galcenduénac confiánza. Orí nailúque gure etsái madaricátuac. Heribáti assistitzenció S. Felipe Neric: ta despeituric zoeieláic carrícan ezaunduzué *Jangoicoaren* árguis arimagárren peligroa: itzulicé: aurquituzué yá desesperaturic casi:

48at.

galdeguincio, bada norengátic passatuzué aimberce Jesus ónac? Arc, becatariengátic. Sanduac, eta zu cer zará? Becatári andibát ní. Orduán Sánduac, berás zureá dá ceruétaco erreinua, zuregátic pagatuzueláic aimberce Jesus ónac. Alá consolaturic joánce mundugóntaic. Berás sollic Fariseoen guisará becatári izan ta naieztirerénac (sic) ezaundu ta confessátu becatári, dire de-sauciátuac: Gañaráco becatári confessatzengarénoc gauden desconfiaturic gueuren búrués, baña seguraturic Jaunarén ónas.

In te, Domine, speravi, non confundar in aeternum. Jauna, orrenbaitan dút confiánza, seguratuconauéla beticos. *In justitiâ tuâ libera me*: Bere ontasúna valiabequida nerearén fáltan. *Redemisti me Domine Deus veritatis*. Cá-río edérr pagatunáu:Eztú utzico galdáien beregáu, eztaiengátic ere malógra enebaitan précioa, bere odól precíosoa. *In pace in idipsum dormiam &*.

49

4. *Contrición*. *Cor contritum et humiliatum, Deus, non despicias*. Naiz izánic becatári ándia, barimbadágo óngui penaturic biótzes, *eztuéla*, dió, *Jangoicoac (l.) despeitúco beregánic*. Becatári confessagaitzen, eta gaizqui eguínas penagaitzen.

An (sic) óna ta amáblea dén Jaunagátic, aimberce ón induén, ta aimberce gaitz passatuduenagátic gure amóres, guc bearrguindue eguín ta deseguín azquén atseráño. Baña ortáco biótz edo escaidaric ezpaguindue, bentzáit amátu bearrguindue entráña guciés, ezin atzén, ezin soséga guindeizquen guisan amorearén útses. Ez alá amátzea dá gaizqui eguína: cer dá atzéntzea ásko dembóras? Cer dá úztea bere *Magestadea* lurréco miserien-

gátic? Cer dá desobeditzea? *Jangoico* óna offendítu, eta gueuroc galduric gueldítu!

* *Pater, peccavi in caelum, et coram te.* Hume galduarén guisa itzuligaitzen Aitagana, erratendiogúla, Aita, becátu eguindút, ta gaizqui eguin-

49at.

dút ceruarén contra, ta berórren cóntra. Ez náiz digno deinazáten berórren hume. Etsué orréc alacoric meréji enegánic: Eztida orréc niri gaizquiric eguín séculan, baicic anitz óngui. Edérrqui pagatudiót. Damu dút: barcabezáda.

Ô amatubánu beti sanduen guisará, nola beárnuen, ta nola cén arráccio, ta obligáccio! Ô ezpánue beñere nere vician offendítu! Ô ilbanitza lenágo ezi ellegátu erórtzera becátu mortálean! Ô *entendamentuarén* itsutasúna! Ô poténciac gaizqui empleátuac! dembóra gálduac; ene Jaunarén amóreac ta favóreac malográtuac!

Quis dabit capiti meo aquam &. Norc emanlezádan contriciobát ain érrua, ezi acabanádien penas? Motivoric áscodá: ene Jauna izáqui ain ón amáblea beréz (sic); ta berce álde ain nere amazále fiña: eta alaére nic offendítu bere *Magestadea?* nic bere *Magestadea?* Barcátu, Jauna; yago ez offensaric séculan &.

50

5. *Compassionea. Christo confixus sum cruci.* Christoréqui báteo nágo gurúcean josiric, enténda, biótza compassionéz (sic). Ichequitzecó *caridadea*, mantenitzecó *conformidadea*, acitzecó confianza, logratzecó contriciónea, ta berce áscó virtúte, dá aguitz on beirátzea Jesus óna beteric nequepénes pássioan, ta josiric gurúcean, eta acompañátzea Compassióneas.

Beira noizean noiz achsurigárri, eta galde zeure buruarí; nor dá pobreñfogúra alá paraturic, ta ain maltrataturic? Otedá cembáit gaizquieguille, lapúrr, edo guiza-ilzále? Ez, eztá alacoetáic, baicic *Jangoicoaren* achsúri ón oneguia. Cergátic bada alá? Cergatic dén óna, ta onestengaituen gú sobra.

Dilexisti me plus quàm te, quia mori voluisti pro me. Dezoquézu errán eguiáz (sic), Jauna, onetsináu orréc ni yago ezi bere buruorí, utzideláic acabátzera enegátic. Norc ala onetsináu ni iruzquiarén péan, naiizanduenic ala útzi bere búrua enegatic? Berás orréc sollic beárdu heritu éne biótza dolóresco amóres, ta amorésco dolóres, dacusateláic nor norengátic.

50at.

Christus passus est pro nobis relinquens exemplum. Jesus ónac passatu-zué aimbérce guregátic, emánes exémpu, seguidezagungátic. Alque daqui-gúla ez passatunáias gúc becatáric cerbaiñño beragátic eta gueurengátic, icusiric passatuzuéna bérac guregátic. Eta yago álque daqui-gúla ez yago penátzeas biótzean becatuengátic, ceñen casos aimbérce penaracizúten gure salvadórea.

Vadam ad montem myrrhae. Ongui eramátécó heri egótea dá on beirá-tzea Jesus gurúcean: beira bát banáca miembro sandugáiec; búrua aranceés coronaturic: aurpéqui ederrgúra ubelduric ta itsusturic; oñac ta escuac itzeés josiric; bulárta idiquiric; gorpútz gucia urraturic &. Ô Jesus óna, erranendiózu, *ni goatzegontan heri banágo ére, heriágo egónce ori gurúcean:* Berórren compañian conformátu, confortátu, ta consolatuconáiz. Orréqui óngui nago nola náí: Applicabezada bere bálsamo divinoa: Alchabenáza bere llaen bárnean &.

50 bis

Berce bortz itze, edo C. Compuncionea, Castigácioa, Constáncia, Compañia Jesusi eguitea, Zelo fiña.

6. Compunciónea Justiciaren beldúrres, ezi alá pagatu bazue Jesus ónac bercerén becatuengátic, nola beárdu pagátu becatáric bereengátic. Nola eznái suffritu pena gutibát emén *Jangoicoaren* escutic nola peniténzia lebebát paratzendigúna berac? Erránbearda, *peccavi et vere deliqui; et ut eram dignus, non recepi.*

7. Castigácioa, gorputzarén cóstus *satisfaccio* ematendá *Jangoicoai*, ta purgátzen arima, nola aren casos eguín áscó cúlpa. Sarrbeitez pénac, ta atrabeitez cúlpac, ció batec: eta bercebatec cantatzenzué, Bada pena damazúna zure culpec merejí: Arráicio dá eramátéa Bai arimo onarequí: bai arimo onarequí.

50 bis at.

8. Constáncia, ezi alás edo olás passatubeárr, pássa animóso datorréna; eztá etérno; passatucodá; ta arinágo, barimbadá *suffrimentu*, ala nola indárr yago duénac, aiságo daráma cárga.

9. Compañia eguín Jesusi gurutzéco videan; ez útzi bacarric. Errégue doáien videas, naiz aldápa góra, ségui bere págeac. Eztió emánen oní

aimbércé cárga, trabáju, ta péna, nola eramanzuén bérac; eta lagunducodió; ezi ezió níori emáten sobra &.

10. Zelo fiña, itze dóble séndoa, au dá ánsia ta anhélo andibát *Jangoicoaren* gloriarén, ta arimen salvacioarén. Logradáien óngui *Christorén* pásio doloréscoa, salvátus arima, naiz cósta. Adimpleo ea quae desunt passio-num Christi in corpore meo. ad Colossenses 1.

51

8

Conformidáde ta pacienciarén motivo cembáit ercadán, edo seguídan

Óngui artzecó, ta eramáteco óngui *Jangoicoaren* izeneán trabájuac, neque-pénac, ta naigábeac,

1.^o Motivoa dá, cerén alá baita *Jangoico* andiarén borondátea, ceñén confórme beárda izán guizonaréna, óngui izatecós, macurrtugábe ez ezquér ta ez escúi deustan ére.

2.^a Cerén trabájuac, dirénac diréla, baitatózi *Jangoicoaren* escutic, edo disponítus, edo permitítus, brindatzentigúla bere *Magestadeac*.

3.^a Cerén brindatzentígún erregálo-guisa amóre ónes, gure onnáies, adiarácis onestengaituéla, gutas oroitzendéla, ta ez atzéntzen.

4.^a Cerén trabáju suffritzean progatzendén gueieníc, eta aguértzen *Jangoicoai* diógun amórea, eta órtan itenbaizáio placér, ta zervitzu obenétaic bát aguitz estimatzenduéna.

5.^a Cerén óngui suffritzean dágon guizonaren

51at.

perfécioa, ta oni darráion coróna. Jacob. 1.

6.^a Cerén suffritzean seguitzen ta imitatzendugún Jesu *Christo* gurucificátua, eramánes norc bere gurúcea berarén atzétic.

7.^a Cerén suffritzegói baita Jesu *Christoc* eracutsizúen videá, sanduen videá, gurucearén videá, ceruráco vide erreála, naiz dirúdien erchicára.

8.^a Cerén trabájuen escaidan dén iragazvide ándia, eta trabájuen dembórac sanduen feriac, biltzecó anitz ondásun arimarén, anitz merejimentu, anitz grácia, ta ántiz glória.

9.^a Cerén trabájuen suffritzean guréqui baitágo gure Jauna présente beira nola portatzengáren, assistitzen amoróso, ta lagúntzen óngui eramátéco; escubátes úqui, bérceas idúqui; bérac edán trágo principála lenic, ta guéro guri emán urrupařčobát gozaturíc bere amóreas, ta neurrituríc churr chúrra, ezi nióri eztió emáten soporta ála baño yago; eta aliviatzendú noiz beárden.

52

10.^a Cerén trabájuen videgónaíc baitoáie gloriaráco dirénen procesio luce edérr lucitua, baitúgu quidári, alcindári, ta lagún goápoac, Jesus óna lénean, aldácan bere Ama *Santissima*, atzétic sanduac ta sandac, animatzengaitutéla gú ére, ta favorátzen.

11.^a Cerén tugularíc cúlpac, merejitúgun pénac, cein baitire nola peniténaiac *Jangoicoac* parátuac.

12.^a Cerén suffritus óngui ematendiógun *Christoréqui* báteo satisfácio *Jangoicoai* zorrdiogúnas.

13.^a Cerén suffritzegáu baita purgatorio-guisabát, ceñéqui purgatzendén arima lengo becatuetáic.

14.^a Cerén trabájuec goartzengaitúten eguitetíc áasco becatú, ta eguitetécó gána quentzendigúten.

15.^a Cerén trabájuec ilaraztendúten munduráco afficiónea, vanidádeac, ta vicioac, erretirátzen galvideetáic, eta tirátzen *Jangoicoagána*.

16.^a Cerén trabájuec progátzen ta errefinatzendúten virtútea, sandúzen arima, amorósten Jangoicoas, eta apegátzen Jesus onarí.

52at.

17.^a Cerén oroiaraztengaitúten iltzeas, juicioas, inférnuas, eta vicitza seculácoas.

18.^a Cerén trabájuen óngui eramátea baita prenda onbát gueróco gloriarén. Rom. 8. v. 17.

19.^a Cerén eméngo trabájuac baitire nola azároa ángo eraicioarén; nola aránceac ángo arrósa loreén; nola pérlac ángo coronarén; nola *merejimentuac* ángo premioén; nola vézperac ángo festarén.

20.^a Cerén trabajuac diren labúrr ta deus guti, darraióten gloria-montioarén áldean. *Momentaneum &*

21. Cerén alabér guti baitire, merejidúgun Purgatorioarén, edo infernuarén áldean. Azqueníc

22. Cerén, naibadúgu ezpadúgu, alás edo olás, beárrco passátu trabáju déna: ta eztén erremediátzen, gáldus paciéncia, bai gálcen *merejimentua*, dañatzen arima, desgustátzen *Jangoicoa*, ta aumtátzen (sic) néquea: zeique-láic, suffrítus, emán gústo *Jangoicoai*, provéchu bere arimái, anitz irabáci, ta arindu trabájua, cumplitus *Jangoicoaren* borondátea. amen.

53

9

Conformidáde ta Pacienciarém (sic) motivoac beréchs bat banáca, ta ebén Actoac

1.^a Goácen suffrítus arimo onaréqui, cerén alá baita *Jangoico* andiarén borondátea, alá naibaitu bere *Magestadeac*: eta ásqui dá: Nor gára gú, erráteco ezétz?

Actoac. = *In capite libri scriptum est de me, ut facerem voluntatem tuam; Deus meus, volui, &*

Errágun Davidéqui: Jauna, libruarén lembicico ójan daucat assentaturíc, eguinbeautéla orrén borondátea: ene *Jangoicoa*, alá naidut gogótic ere: eta berórren léguea ene biotzarén érdian. amen.

Pater, si possibile est, transeat à me calix &

Errágun Jesus onaréqui, Aita, possible barimbada, pássa enegánic tragogáu: baña ezpadaique excúsa, eguinbédi ez nic nauténa, baicic naiduéna berórrec. Aita gurearén peticio andigúra eguín maiz:

Cumplibédi orrén borondatea (l.) céruan becála lurrean ére. Orréc naiduéna naidút; naieztuéna naieztút.

53at.

2. *Jangoicoaren* escutíc, éscu onetíc eldudá: Artu óngui aláco escutíc becala; Job sánduac erranzuéna:

Si bona suscepimus de manu Domini, mala autem quare non sustineamus. Ónac artubaitúgu Jangoicoaren (l.) escutíc, gaitzac ere cergátic eztúgu artubeárr? Ezi guciác dire ón escugártaic, óngui artzenbadire. Sandugárc osasúna ta ondásun izán, eta guciác galduric Deabruarén persecúcios, ala ére ció, Jaunac emán, Jaunac edéqui: nola zuén placér, alá dú eguín: biz bedecátua Jaunarén izén sándua.

Jesús óna préso iterácoan Judioéc ilaracináies, defendatunáies S. Pedroc atrazué ezpáta: Jaun onéguiac erráncio, *itzulázu ezpatagói bere maguirá. Ene Aitac brindatzendidan tragogáu, eztúzu nái passadezáten nic?* Alá gaizgói Jangoicoaren escutíc eldudéna pássa óngui, cúrtus búrua, ta apátus éscua. Óngui etórria déla alaco escutic déna déla: ontzát artzendút: eta nainúque era-

54

mán alegueréqui sánduen guisará, albanezáque; bentzáit bai arimo onaréqui: eta dén gutiéna bentzáit pacienciaréqui. Naiz eguín cincúria naturále flacoarén cásos, baña ez órtzac irríca, ez itzuli ózca, ez errábia chacúrr gaichstoarén guisa: ori ez &.

3. Trabajugói dá señále, oroitzendéla *Jangoicoa* zútas; da señále, óngui naizaituéla, ezi ori dá Jaunarén erregálo itendioténa bere onetsiéi; alá dió bere *Magestadeac: Ego quos amo, arguo et castigo, Nic erreprehenditzen ta castigatzenút maite tudánac.* Eta S. Pabloc ere dió, *zeatzentuéla Jangoicoac (l.) bere humetáco artzentuen guciac.* Cergátic itenotedú ori? Cergátic naituen óngui: ezpadire ónac, ontzecó; eta ónac badire, obetzecó; eta nola nai déla, salvatzecó, dela ónes, dela gaitzes. Tobias Sanduari bere itsutuagátic errancio S. Rafael Aingueruac, *Cerén baicina Jangoicoaren (l.) biotzéco onésia, cé preciso probátzea trabajugorréqui.* Oroát Job sándua. Baña nor onetsizué edo onetsizúque aim-

54at.

bérce, nola bere Seme *proprioa* Jesús? Eta nóri emáncio trabáju yago? Alá erráncio Jesus bérac S. Teresari, *Ene Aitac maiteágo duenari ematéndio yago trabáju: eta ebén ariorá dá amórea:* Ez bada pénsa eméngo gaitzac diréla gaitzes beti, ez, baicic ónes, amóres, eta gure onnáies: eta alá errán: Aviso l.

Ego in flagella paratus sum; Jauna, ni berórren humea naiz, ta naidut ere izán. Prest nágo errecibitzerá orrén azóteac, nola erregáloac. Naiz gor-

putzarí etzaizquion góchso azóteac, baña gogótic artunaitut bearrtudaláic. Nola naucan bere amórean ta *gracian*, imbez enéqui nola naiduen.

4. Christio fiél fiñac eztú contentatubeárr errezuéqui, eztaré obra onéqui sollíc: Beárdu ellegátu passátzera trabáju arimo onaréqui *Jangoicoagátic*. Ontan aguéri dá diógun amóre, ta cembát: ori dá proguríc obéna. Errezátzea contú déla offrátzea Jaunari cobre: obrátzea óngui offrátzea cillárr: baña padecitzea óngui ori dá offrátzea úrre ta pérla

55

precióso bere *Magestadeai*. Alácoes itenzue sendagállá S. Pabloc gusto andiaréqui, *Linbentèr gloriabor in inf(irmitatibus)* & Eta animátzeco gú suffritzerá, erratendígu, *nondum usque ad sanguinem restitistis*, *Oráño eztúzie anitz golpe, ánitz llága, ánitz odól ichsúri Jangoicoagátic, nola Mártyr gloriosoec*. Bada dén trabajúfíoa offrátu *Jangoicoai* amóre andiaréqui.

Aff. Jauna, suffritzeco dudána naidut suffritu orren amóres gogótic ére, ta offratzendiót unituríc Christorén trabáju, passio, ta eriotzearéqui.

5. Personarén perféccioa, goapotasúna, ta avantállá dágo suffritzean arimo onaréqui trabáju. *Beatus vir qui suffert, quoniam cum probat(us) & Dio San Tiagoc, Doátsua guizóna suffritzenduéna tentácio, cerén ezi probátuas guéros emanenzáio coróná Jaunac offrecituduéna amatzendutenéi bere Magestadea* (1.). Ô cémbat sandu eguindirén heritasúnen proguéqui! Cémbat coróná!

55at.

Munduarén ustés nor ere dén garaitzecó, golpatzecó, iltzecó bérceac, ura dá goápo: baña Christorén légue bérrian nor ere dén suffritzecó anitz gólpe, trabáju, ta néque-péna, ori dá goápo. Goápo cire Apostoluac, ceaturíc baizoézi contént beteric alegráncias. Goapo cire Mártyr gloriósoac, passatzenzuténac arimo andiaréqui áscó martyrio. Goápo cé S. Francisco Xavier trabáju anitz ándien érdian clamatzenbaizue, *yago, Jauna, yago*. Goápa cé S. Theresa baicio, *edo padecitu, edo il*. Alabér casi contíno héri egotenzeláic ta alégre baicio, *gaizqui nagoláic, obéqui nago*. Genio guisagáu dúte dirénece goápo *Jangoicoaren* échean, baitíre Sánduac: cerén ézi doáz eguines Sanduac, ta moldátus gólpeca gólpeca trabajuéqui. Arrácioac ere badio, ceren ezi comunquiró yago costadénac valiodú yago: Berce álde *Jangoicoai* zervitzatubeárda cértan naiduen bérac. Berás bere *borondatea* delaríc gú héri egótea, héri egótean paci-

56

éncia onaréqui dá zervitzátua. Eztágo errezáztean, eztágo barúztean, ta bérce obra ón eguitean aimbérce, nola padecitzean anitz ta edérrqui. Ellegatuárte padecitzerá alá, eztá niór goápo *Jangoicoaren* echean, naiz erréza, naiz eguín ásko devócio eta gauza. Yago estimatzendú paciéncia onarén sacrificioa neque-penen érdian: yago quadratzenzáio biótz penatuarén ansiabát ta oroipenbát alacoetán, ezi milla gauza aisíta. Quadratucéquio Josef Egiptocogúra presondéguian; Job sándua llágas beteríc estrabillean; Jonas Profeta balearén tripa-bárnean; Daniel Leonen cubilan; irur muticogáiec Babiloniaco sulábean; Susanna arricátzeco ceucáten lécuán; S. Pedro ta S. Pablo carceletán; Mártyrac martyrioen lecuétán. Alá zúc gambaragáu, ta goatzegáu templo-guisabát itzulidezaquézu, ta zeure biótza aldáre: órr zeure bárnean offrátu *conformidade* ta pacienciarén sacrificio: aitucozaitu, ta beirátu amoroso &

56at.

6. Motivo andibát suffritzéco trabájuac óngui dá seguitzeagátic Christioéc Jesu Christo, cenéngánic dugun Christioen izéna. *Christus passus est pro nobis, relinquens exemplum* & dió S. Pedroc, *Jesu Christoc padecituzuéla guregátic, útzis exémplu, seguidezágun vide beras. Virum dolorum*, deitzendu Isaiasec *Jesus doloréscu guizóna*. Ezpálitz ére bérce motivoric, *solamente* imitatzeagátic bera, bearrguindúque suffritu cerbáit trabáju. Cér soldado dá, bere errégue dabilaláic aldapagóra nequetán, alquetúco eztenic egóteas aisa béra celáian? Erremedio propía trabajuetán dá beirátzea Jesu Christo gurúcean. Llagagaietáic dário pacienciarén unguéndu preciósoa, vizcorrtzecó gure indarrgábea. Beirazázu arimarén béguis, ta erranendúzu, *ah! heri andiágo egónce nere Jesus óna, goátze gogorrágoan, yágo trabáju ta penaéqui, ni baño*. Dá ere consolutáco izátea aláco lagúna, aláco penaéqui ta culparicgá-

57

be. S. Pedro M. alá consolutucé trabáju andibátean, erratearéqui Jaun ónac gurucetic, *eta nic, Pedro, cer culpa nué, paratzecó gurucegóntan?*

Nos quidém justè, nam digna factis recipim(us) & Erranbearrdúgu errancióna ladrón ónac lagunái gurucetic gurucerá, *Guc arracioréqui pagatzendúgu pena, merejibecála: baña Jaunonéc eztú culparic bátere*. Alá pagatzenbadú culparic eztuénac; arracio dá pagadezágun dugúnec cúlpa.

Oráció óna dá heriaindáco ladrón árc eguincióna *Christorí* gurucetic gurucera, *Oroibedi nitas, Jauna, doaielaic bere erreinurá*. Errespondatubai-cio bere *Magestadeac* agotic agorá, *Segúrqui erratendizut, egún izanenzaréla enéqui paraisoan*. Ô ladrón fortunósoa, cein lasterr arrapatuzuén paraisoa! Esquerr lagún divinoái.

Acompañazágun trabajuarén gurúcean: otoiz eguinzógun, oroidaiéla gútas: Aguián inendigu lécu guri ére bere paraisoan. amen.

57at.

7. Motivo ederra suffritzecó trabáju dá ori baita Jesus ónac eracutsi-zuén videá, ta Sánduen videá, gurucearén videá vide erreála ceruráco.

Nonne haec oportuit Christum pati, et ita intrare in gloriam suam? Cío Christo (l.) bérac, etzue beárr passátu Christoc (l.) orí guciói, ta alá sártu bere glórian? Bére glórian sarceco passatubearbázue aimbérce, beira eztén arráco passátzea gúc al gucia, sarceco bercerén glórian?

Per multas tribulationes oportet nos introire in regnum Dei, dió S. Pa-bloc, passatubearrdugúla ásko trabáju, sartzecós *Jangoicoaren* erreinuan.

Regnum caelorum vim patitur & dió Jesu Christoc (l.), Ceruétaco errei-nuac indárr naiduéla, ta indarr iteuntenéc arrapatzeuntéla. Indárr naiduéna dá arimo ándia *garaitzeco passióne proprioac (l.), eta suffritzecó trabájuac*. Valio dú *infinito*: dá arráco costadaquigun cerbaiño. Orái néque; guero descánsu.

58

Qui vult venire post me, abneget semet (ipsum) & Gloriaco errégue Jesu Christoren prégoa dá au, *Naiduénac etórri éne atzétic, úca bére naicundeéi, arbez bere gurúcea, ta seguibenáza*. Seguitudúte Sanduéc guciéc, nor bere gurucearéqui: procéssio edérr lucítua: convidatzengaitúte gú ére, naibaitúgu segúitu, eta animatzengaitúte seguitzerá; ta offrecicendigúte lagúntza jásteco gurúcea. Zure gurúcea orái dá heritasungói: eramázu óngui: lagún ónac túzu trabájuen videgóntan: biz arimo óna, ta etzaizu faltáco *Jangoi-coaren gracia*: premiao dá infinito: glória imménso: Descánsu óna izaindú-zu án: Suffri émen orái cerbaiño.

8. *Non sunt condignae passiones huius temp(or)is &*

Evarén hume desterrátuac gára vicigarénoc negarréscó vallegóntan, non trabájuac túgun abásto: baña deus gúti dire emanenzaigun gloriarén

áldean, ezi S. Pabloc diónes, *momentubatéco neque pichscagónec, óngui eramaníc, dacárr gloria-montio eternobát céruan*. Eztá valioduén

58at.

diña costa. *Suffrimentua* dá précioa, ceñéqui erostendén. Eztá cário, bai mérque edérr.

Baña arará baño lén ére pagatzendá óngui trabajúñfoa *Jangoicoagátic* eramatendéna: Dú placér bere *Magestadeac*, baña provéchua gueuréc: *battendáco eún*: gorputzarén cóstus irabaztendú arimac ánitiz virtúte, ánitiz *gracia*, ánitiz *merejimentu*. Orgátic trabájuen dembórac dire Sánduen feriac. Orgátic escatzenzué S. Francisco Xaviérec, *yago, Jauna, yago*. Codicia-guisagáu eracutsició Jesus ónac S. Theresarí erranes, *Ustedúzu irabáztea dagóla gozátzean ni? Eztágo baicic anitz amátzean, obrátzean, ta padecitzean*. Animazaite bada, ta errán,

Aff. Jauna, ezpanáiz gauza ni, Sánduac becála, deseátzeco ta eramáteco alegrequi trabájua, bentzáit nainúzque eramán pacienciaréqui berórren amóres, alá orrén borondátea cumplitus logradezádan emén anitz grácia, ta guéro ánitiz glória. amen.

59

9. *Cum ipso sum in tribulatione*, ps. 90. totus apt(us).

Conformátzeco heritasúnean, baitaré consolátzeco, ta confiátzeco, dá sinéstea fedes daquigúna, ta beirátzea arimarén béguis *Jangoicoaren Magestadea* presénte, lécu guciétan becála, emén ére adítzen ta icustenzaituéla: baña ez orí *solamente*, baicic ere, barimbazaude berarén *gracian*, dagóla zuri assistitzen amóre ta cariño especialaréqui, nola Aita óna húme onetsiarí. *Zuréqui nago*, dio, *zeure trabáju bitártean*: Ez lótsa: etzaitu utzico, ezpadúzu lenic úzten zuc béra. Emandizuláic trabajuñfogáu, etorrizaizu visitátzera: emandizúnac trabájua, emanendizu alivio, edo consoláció bearrdéna: bérac mortificátzen, ta berac vizcortzendú: parátzen cárga, ta emáten indárta jas-tecó, eta arintzendú lagúndus eramáteco aiságo; ezi orgátic erratendá, ta eguia dá, *eztióla nióri emáten cárga yágo jasiála baño*. Beira dágo nola portatzenzáren, ta escubátes úqui, bérceas idúqui, lagúndu, ta bere

59at.

órduan librátu inendízu. Idúqui paciéncia: ez berantétsi; bérac dáqui noiz ta nola: Aita dá, cuidatucodú zútas: utzizaite berarén besótan. Eztizu falta-

túco Jesús ónac ere zuregátic vicia emanzenac: amparatucozaitu bere Ama *Santissimac*, herizái ederra baita: ezta descuidatúco zeure Aingueru guardiácoa. Pénsa gucióc daudéla zuri beira. Pénsa *Jangoicoa*, nola Aitaric obéna: Maria *Santissima* nola Ama amorósa: Jesus anáia *lembicicoa*, ta Aingúerua centinéla.

Affect. Ô Jauna, orrén amparorá utziric nágo: naiz héri gorpútza, nola dágon orren *gracian* ene arima, óngui nágo. Eznazála desampára.

10. *Omnès sancti quanta passi sunt tormenta!* Eztire beti trabájuac castigu; Dire Sánduen prógu: Cémbat passatudúte sanduguciéc ellégátzeco duten gloriará! In contu, deitzenzaitutéla zú ére berengána, ta erratendizutéla, eta zuc eztúzu naico passátu cerbaiffo guréqui ta gure atzétic? Naidut gogotic ere, baña indarríc eztút, ezpanaute lagúntzen &.

60

11. *Peccavi, et veré deliqui, et ut eram dignus, non recepi.* Motivo ándia suffritzeco pénac dá izátea cúlpac: eta ebén ezauntzea ta confessátzea humilqui dá medio óna *Jangoicoaren* palacatzecó, ta heriarén sendatzecó, ezi nornái berachstendá, ta erretiratzendú azótea, icustearéqui bércea humillaturic confessátzen bere cúlpa. Chacúrرتtoa (sic) ére urtiquitzendeláic Nausiaren oñetará humil aincúrias zeatzerácoan, Nausiac obéqui barcatucodió, ezi auncas itzultzenzaionái subérr órtzac irricaturíc. *Jangoicoaren* charcúrřfoac gara gú: heritasúna cóntu déla emátea zároas: aburritzea ta cónta itzúltzea litzáque nola ózca jocátzea: ori ez eguín, cerén ezi litzáque obligátzea Jauna, ematecó erruágo: baña ezta debecátzen ay ta oy, ta cincúria eguitea, baita natural; nonta humillatzengáren, ematucodú golpea.

Goácen bada ezaundus éguia: Guciéc baitúgu gueurén culpac; eta justicia salvo, eztaizque pássa penaricgábe, déla án, déla emén, ta aiságo dá emén:

60at.

Heritasungói contú déla penitenciabát *Jangoicoac* paratuduéna. Ontzát ártu, ta eramán óngui, fiaturic alá libratucozaréla gueróco penaetáic, ezi *Jangoicoac* (l.) *eztú castigátzen bi áldis bát, ta béñere sóbra ez*, baña berachágo emén. Heritasunarén penitencia gogorrcará idurizáio gorputzarén adisquidearí; baña berách idurilequióque orí, baldín egonbáce inférnuan edo purgatórioan chastátzen, edo icústén, nola pagatzendiren cúlpac án. Alá héri cegonbát oñáce erruéqui, logratúric bere autará cein naizuen yágo; edo alá egón irur úrtés, edo purgatórioan irur egúnes *solamente*; autaturíc

au, aisagós bere ústes, eramánic *espirituan* purgatoriorá, án órduac úrte iduricequizquióla, necaturíc irur órdu baño lén, lamentátus bere engáñua, erdechiríc bérriz naibázue itzúli, itzúli bai itzuli &

Aff. Errán bada maiz humil humila, *Jauna, becátu sóbra eguindút; ta sinés gaizqui eguindút; eta meréji adiña péna eztút; valiabequida Jesus.*

61

12. *Adimpleo ea quae desunt passionum Christi in corpore meo.* Trabáju andietán cegolaríc ció S. Pabloc, *nago cumplitzen Christorén (l.) trabájuen falta déna nere gorpútzean.* Etzué passátu *Christoc* sobra ere trabáju? bai. Etzué pagátu guciengátic? Bai. Etzué emán satisfáccio abásto? Bai. Cer falta dá bada? Eztá deus falta berarén aldétic: falta dá gure aldétic pagátzea dezaquegúna: orréqui valiadaquígun *Christorén* satisfaccioarén tesóro immensogártaic, laguntzengáren ariorá. Orái bada *cumplici falta déna gueurén gorputzarén cóstus*, naidu errán S. Pabloc. Heritasúnean gure paciéncia déla medio bere éscus *Jangoicoac* artzendú satisfáccio zorrdiogunarén. *Gára Jangoicoaren (l.) húme ta heredéro*, dió Apostolu berac, *ta Christorén (l.) primu edo heredero lagún, si tamen compatimur, baño baldín beraréqui padeitzenbarimbadúgu.* Abásto pagatuzué gure fiadóre divinoac: baño guri valiatzecós, dá preciso juntátzea gure aldétic gúc ére gueurén corradóñoa (sic).

61at.

Ea bada valiazaite orái dúzun escaida ónas: eramán pacienciaréqui trabajugói zeure becátuen satisfacciotán *Christorén* compañian: errán,

Aff. Ô Jesus óna, nic ánit zorr, ta guti dá pagatzenduténa: baño dén pichsca unituríc berorren passio dolorescoaréqui valiabequída. amen.

13. *Ampliùs lava me ab iniquitate mea &.*

Erratenció Davidec *Jangoicoai (l.)*, *Jauna, yago ta yago garbibenáza ene becatuetáic.* Ortáco dá purgatorio-guisabát heritasúna: óntan delaríc paciéncia, gorputzarén costus purgatzendá aríma, ta errefinátzen nola súan úrrea. Lucecára idurizaigu comunquiró purgatoriogáu *suffrimentu* ta *ezau-mentu* faltas: baño Jaunac dáqui noiz árteo beárden idúqui úrrea súan, ta óguia lábean. Noiz beárden, atracodú. Oh! nolaco purgatórioa passaracicióten gure becátuec Jesus onarí! Cer dá arren áldean guc passatzendugúna? Eta berac ez izáqui purgatzecoric, bai guc.

Aff. Jauna, orren izeneán biz ene purgatoriogáu: biz ene arima quadráble gárbi edérr orrén beguietán, naiz déla gorputzarén cóstus. amen.

62

14. *Ecce sto ad ostium, et pulso.*

Dá heritasúna ala nola Jaunac gure atarrietán deitzea, idatzarraraztecó. *Oná ni, dió, nago atárian déies.* Dá ala nola emátea páloas Artzái ónac ardiarí, zuzenaraztecó. Cémbat vicidire osásun ónean atzenduric *Jangoicoas*, nola ló gaichstobátean? Bialtzendióte *Jangoicoac* idatzartzále onbát, au dá heritasúna. Dabiltza zoroqui zabarturic; tiratzendióte gaitzarén máquila, ta ecarraraztentú zuzenviderá. Alá ez *solamente* purgatzentú léngo becatuetáic, baitaré quéntzen itéco gana urréngoan, itzularácis acordurá, ta itzális passioneén súa. Oh! Eztúzu aláco missioric, nola heritásun onbát. *Gaizqui nagoláic, nago obéqui*, cio S. Theresac. Eta cembát infernuráco cirenác osásúnean, daude orái glórian, gaitzac diréla medio? Gloriará joán obedúzu egónes héri, ezi ez infernurá sáno egónes. Biz sáno eta salvo arima, naiz dela gorpútz eriarén cóstus. Intencigói (sic) dú gure Artzái ónac deitus ta emánes heritasunarén maquilaréqui: Imbeardéna dá adítu, obedítu, ta errespondátu óngui:

62at.

Aff. Aditzendút, Jauna, orrén déia; entendatzendút amoréscó golpeffó-gáu ene onnáies. Ezauncendút amóre didála, oroitzendeláic nitas, ta oroiaztennaueláic ni, galeznádien. Esquérr milla diót, ta atrabenáza salvo edocéin guisás. amen.

15. *Virtus in infirmitate perficitur.*

Irur aldís escaturic S. Pabloc librátzea trabáju batetic, aituzué Jaunaren errespuésta; *ásqui dúzu ene grácia, Pablo, ezi virtútea dá aguéri, ta progatzendá heritasúnean.* S. Martac ta S. Magdalenac bialiric Jaunari mézu, nola cégon heri berén anáia Lazaro, erratenciótela, *Orréc maite duéna heri dágo.* Errespondatuzué, *gaitzgáu eztá iltzecó, bai Jangoicoaren (l.) gloriatáco.* Alá pénsa, naiz héri uztenzaituen gutibát, orgátic maite zaituéla Jaunac. Gaitzgói eztéla gaitzes, baicic ónes, ilarázteco vicioac ta passióneac, acitzecó ta vizcorcecó virtúteac.

Aff. Jauna, alá convenibada, nagóla ala, orréc naiduen árteo. Eta sendatzenbanáu, biz orri obéqui zervitzátzeco. Iténdut propósito &.

63

16. *Domine, ad quem ibimus? Salva nos, perimus.*

Trabájuec atzenaraztendúte bát múnduco vanidadeés, oroiarázten *Jan-*

goicoas, ta apegátzen beragana, ta Jesús onagána. Beira orái, cér valiodizun múnduac. Deus oníc izatecós, preciso dá escátzea Jaunari, nola S. Pedroc, *Jauna, norengána joanengára?* Eta nola bérce Discipuloec, *Jauna, moguibedi; biz urricári; salvagaitza; galduac gára.* Jauna, ontáic libratzenbanáu, ematendiót itz, zervitzátzeco berórri sollíc indárr guciéqui, despeituríc secu-lácos munduco *vanidadea &*.

17. *Memorare novissima tua, et in aeternum &*

Gorputzarén gaitzec dacárte arimarén ón ánitz: bát dá oroiaráztea novissimoés edo azquenecoés, iltzeas, juicioas, inférnuas, ta glórias, *ceñetas oroigaitzela*, dio *espíritu* (l.) sanduac, *ta eztugúla becatuoric eguinén séculan.* Oroigárrí ónac dire trabájua: cistaco ónac oñáceac: ebéqui Jaunac mortificatzendú guizóna, viztecó: heritzendú, sendatzecó: humillatzendú, goratzecó: alá gaitzetic atratzendú ón &.

63at.

18. *Praedestinavit conformes fieri imaginis filii sui &*

Gloriará eramanbeartuenác naitu bére Sème *Jesuchristorén* confórme izandaitzen *Jangoicoac*. Anitz gauzetán daique bat conformátu; baña bat principála dá eramátean beraréqui gurúcea: eta orí berói gloriaco prénda ta señále. Doctrina Christioan galdeguitendá, *cein dá Christioarén señalea?* Errespondatzendá, ezi *gurúce sándua*. Gurúce sándua dá *trabájua pacienciaréqui suffritua*: señále óna, joatecó *Christorén* atzétic Cerúra. S. Juan ta S. Tiagoren Amac escatucioláic Jesu *Christorí* bi semegáien jarrarástea bi aldetáic bere erreinuan, Jaun ónac errancióte amoltsuquí, *Eztaquize cer escatzeunzien. Badezaquéze passa nic passatubeauten trágoa?* edo *trabájua?* Nola erranbález, *trabájua dá lén*, ta preciso, ellegatzecó erreinurá, ta artaráco medio, señále, ta prénda. Emén *trabáju*, án descánsu: emén *gurúce*, án *corón*a: emén *naigábeac*, án *glória*: ezi *glória* án, ta *glória* emén eztatéque. Lázaró póbrea llágas beteríc emén, ilcelaríc eramanzutéla Aingueru-

64

ec paraisorá, dió Jesu *Christoc evangelioan*: eta abráts erregalátua oricéla inférnuan; eta ur tantabát escatzenzuelaic, ez emán, ezi errancequióla, *oroizaitte vician eramancinduzála ónac, eta Lazaroc gaitzac: bada orái dágo au gozátzen, eta zú penátzen.* Norc eztú naico gaitz puscabát passátu emén, gozátzeco beti án?

Artu bada *trabajugói* nola *gurucearén* señálea, eta prénda betiróco gloriarén. Etzázula náí descánsua ain lastérr: echí oráño gutiflobát: acompaña-

tubeauzu Jesus óna passátzean trágoa: eztá arráció passátzea bérac sollíc gucía, eta gúc deus passatugábe gozátzea berarén cóstus. *Orréqui naidut, Jauna, passátu beárr dén gucía: baña neuráu sollíc eznáiz deustáco: bego ené-qui Jauna, eznazála utzi &.*

19. *In patientia vestra possidebitis animas vestras.*

Dió Jesus onac, *zeurén pacienciaréqui seguratucoúzie zeuren arímac.* Pacienciác dacárta salvácoia. Eméngo trabájuen azároac ángo eraicio gloriáscoa. Eméngo aranceéc ángo arrósa-lóreac: emengo nêgu penáscoaác ángo úda gústos bétea &. Eta bada *Jangoicoaren*

64at.

grácias, Jesús onarén médios esperatzendúzu gozátzea edérrqui beticos glórian, badezaquézu orái gutibát suffritu paciéncia ónean &.

20. *Momentaneum hoc et leve nostrae tribulationis &.*

Animatzecó suffritzerá, erratendígu S. Pabloc, cer dá *eméngo trabájua ángo gloriarén aldean? Momentubatécoa, deus guti becála.* Orái náiz idúri cerbaiño, passátu-bitártean; desaguertucodá deus becála ángo lembicico istántean. *Absterget Deus omnem & Jangoicoac (l.) edérrqui bere sanduéi chucatucoúte berén beguietáco negárrac, dió Escrituran (l.), eta eztá yá izanén negarríc, ez quejaríc, ez oñáce, ta alacoric, cerén passatubaicire léngoac; joánce négua, etórri úda &.*

Ô cér egúna ura, noiz deitzenzaituen bere descansuco paraisorá Jaun ónac! Cer órdua ura, noiz arturíc berén escuétan Ainguiruec (sic) zure arima eramacodúten (sic) triúmfoan! Noiz errecibitucozaitúten Sánduec ta Sándec berén Compañian alégre, emánes onguietórria ta zóri ónac! Noiz Maria *Santíssímac* deitucozaituen beregána amorósa! Noiz Jesus onac & &.

65

21. *Quis poterit habitare de vobis cum igne devorante?*

Medio onbát, suffritzecó pacienciaréqui emén déna déla, dá beirátzea arimarén béguis, nólaco pénac dauden padecitzen condenátuac inférnuco sú-lécean! Principálqui pénsa eternidadegúra, béñere ez atercegúra: bétí ta bétí egotegúra bátean lamentátzen, clamátzen, marráchscas, ta desesperátzen, ain bérri milla urteén búruan, nola *lembicico* egúnean, ta andic milla millón oroát, bétí bétí bétí ártan. Artáic libragaitzen, ezi arrén aldean guciá deus.

Pénsa alabér, *Jangoico* ónac cein erruquiró penaraztentuén purgatorio-co súan arima escogituac sándac, bere onétsiac, ta bere gloriaraco tuénac. Deus eztire passatzendíren pénac emén ángoan áldean. Angoac icúsizituen bátec; gueró penitencia arrigárriac eguitecò, erratenzué, *gueiagocoác icusitút*. Eta edocéin *Christioc* óngui ezauntzenduenác offendituduéla *Jangoico* óna, beárdú errán edocéin trabájuen érdian, *gueiagocoac merejitút*. Jauna, eznazála condéna; emén bucabédi éne péna.

Pati timetis: exire non vultis: Quid faciam vobis? Angelus ad quemdam episcopum Rodríguez tr(atado) 8. c. 21.

65at.

22. *Deus autem noster omnia quaecumque voluit, fecit.*

Gure *Jangoico* Jaunac naiduen gucía eguindu, ta eguinéndu béti ére, naibadúgu ezpadúgu. Zútas oroát eguinéndu alás edo olás naiduéna: berás obedá naidezázun zúc naiduéna bere *Magestadeac*, orréqui eguinendá zuc naiduzúna. Conformazaita, ta manténi paciéncian: ezperén eztá erremediátzen gaitza gáldus paciéncia, bai gáltzen *merejimentua*; dañátzen arima; desgustátzen *Jangoicoa*; ta aumentátzen néque-péna: cóntra daiqueláic suffritzearéqui emán gústó *Jangoicoai*; próchu zeure arimai; ántiz irabáci; ta arindu trabájua. amen.

Perditio tua ex te, Israel, salus autem à Domino. Jacta super Dominum curam tuam, et ipse te enutriet. Omnem sollicitudinem vestram projicientes in eum, quoniam ipsi est cura de vobis. 1. Petri. 5.

Jangoico Jauna, gure Aita óna, gure amazále ta ón gucía, onestengaituéna obéqui ezi gueuróc gú, guregánic túgu cálte tugúnac, beragánic óna; cumplibedi bére *borondatea*, ta eztá gaitzíc; gaitzac ere ón &.

66

10

Cembáit Sanduen heritásun ta pacienciarén exémpu cembáit

1. Job, Tobias, Ezechias &. Escritura *sagratuan*.

2. S. Juan *Chrysostomoc* (epistula 5. ad Innocent.^m; 6 et 14 ad Olimpiad., et 129 ad Theodor.) contatzentú bere sucárr continoac, estomágoco miñac, egozgále, burucomiñ, játeco gogáitz, logábe, &.

3. S. Agustinec maiz heritzencéla dió bere cartaetan: eta 149.^{an} dió etzeiquéla ibili oñes, ez egón chutiric, ez jarriric ere gorputzeco andidúra, llága, ta oñaceén cáso.

4. S. Honorato Arlesco *Obispoac* zitue aimbérce, ta ain erru oñáceac, ezi ayen cáso yágo ezi iltzeas baicio compassióne S. Hilarioc. Arc aláere ció, *Cer dá nic passatzeunténa sanduec passatzenzutenarén áldean? Guizón andiéc passatzentúte trabáju ándiac, ta ortáco jaiodire, emáteco guciéi exémpu pacienciarén.*

5. S. Gregorio ándiac escritvitzendú, gotarén oñaceén passiónes ceucála gorpútza earrturic, eta gutitán ceiquéla jaiqui goatzetic: eta berriz, *solamente* iltzeac ematenzióla consólu: eta Eulogiorí escribi-

66at.

tzendió, bi úrtes ezin jaiqui céla goatzetic; bitárteo cási béti cególa ayosquetán. Eta Maximianorí, cególa goátzean aspáldian, ta sucárr ándias errétzen, ta bérce ásko miñes, de *manera* ezi nailuquéla il, ta ori escatzencióla Jangoicoarí suspiros eta negárres.

6. *S. Geronimo* azquén urtetán ain ezinduric cégo, ezi etzeique gorátu goatzeán, baicic arrapátus éscus socabát ceucána paraturic ortáco.

7. *S. Bernardo* dá herién consólu, yá ematentuén arracioengátic, yá gaitz passatucituéla tionengátic (sic.) (epist. 144-145-266 eta 310.)

8. Burucomiñes izancire penátuac *S. Chrysostomo*, *S. Domingo Loricato*, *S. Theodoro*, ceñéc escaturic *S. Pacomiori* librazézan, onéc errespondatució, suffrizezála humiltásun ta pacienciaréqui. *S. Lidvvina* (sic.), *S. Duintino Apezpicu Asturic.*^e, *S. Francisco Xavier* maiz burúco baidoes, edo liluracioes. *S. Luis Gonzaga* burucomiñ contínoes: *S. Theréssa* maiz.

9. Atsa nequetán, estúl contíno, ta pechoco miñ *Beda venerableac*. *S. Platon Mongeac* emerétzi úrtes berce gaitz ascoen gañetic: eta *S. Romualdoc*.

67

10. Gota *S. Gregorio* andiac: *S. Julian Martyrac*: *S. Anon Coloniaco Apezpicua*: *S. Bonifacio Apezpicua* órtas acabatucé.

11. Apostema usaizues *S. Lidvvina*, *Macrina* *S. Basilióren* arréba, *S. Diego*. Job sándua arrac zerizquióla.

12. Cancer, edo cancilla *S. Aldegundes*, *S. Galla*.

13. Estomagoco miñes *S. Gregorio*, *S. Chrysostomo*, *Anaxanon Abadea*, *S. Catalina Virgina*, *S. Brigidarén* alaba, ezin comecatubaize orgatic iltzéco: nola *S. Juliana Falconeri*.

Dysenteria ta odol járioas *S. Bernardino*, orgátic inbaicitue amalaur predicu eriotzeco amábi doloreén gáin: baitaré *S. Francisco Xavier* especiálqui iltzeco órduan: *S. Ygnacio*: *S. Batildes mónja*: *Beda*: *S. Domingo Loricato*: *S. Isidoro Sevilacoa*: *Hugo de S. Victor*: *S. Domingo Guzman* sucárr andiéqui iltzeco: *S. Theodoro Estudita*: *S. Bernardo*, &.

14. Sucárr eta egárris *S. Aldegundes*, *S. Teodoro Estudita*, *S. Audomaro Apezpicua*, *S. Gil* dá Avogatu ortáco.

15. Guiltzurrunetaco miñes *S. Zoilo*: *Hydropesias* *S. Lidvvina*; *Benjamin Móngé Sándua*.

16. Ijadaco miñes *S. Pio V.*; *S. Lidvvina* ta egozgale &.

67at.

17. Játeco gogáitz *S. Anselmoc*, *Bernardo*, *Beda*, *Isidoro*.

18. Perlesia bere vici gucian casi S. Servuloc, S. *Gregorio Apezpicu Trajectensis*, S. Romulac, S. Theressac.

19. Saietseco edo *costadoco* miñ S. Paulinoc, S. Mauroc.

20. Pestes edo izúrrias ildire Sándu eta Sánda ándiac, S. Macário, S. Melito Móngé, S. Lutverto, S. Luis Gonzaga &. Ochallarén azquén egu-néan Martyrologio *Romanoac* emantendú facultáde celebrátzeco Mártyr becála ánitz *sacerdote*, Diacon, ta légo iltzirénac zervitzátzen herieri Alexandrian: alá guizonic obénac ildire *caridades*.

21. Inflammacio ta desmáio S. Gorgoniac.

22. Egozgále odolesco S. Dositeoc beti: ta S. Felipe Neric.

23. Llága, pócio, ta árr S. Daniel ta S. Simeon Estilitac, ceñéc arr erorcencequizquiónac llagatic goratzenzúzte erránes, janzáze emandiziéna *Jangoicoac*. S. Thebaldo *Senonenseac*, Joaquin Servitac etzúte nai útzi quentzera árrac, eztaré inezzáten oráció sendatzecó. S. Bonna. S. Finna vicicéna milla, bortz eún, ta laurogueita *irugarren* urtean.

24. Itsutasúna Tobias, S. Lidvvina, S. Esperanza *Abadesac*.

25. Chinchurrico miñ ta erchidúra S. Bernardoc; Ma-

68

rrancotasúna S. Bernardinoc, cein sendatubaizue ortaic Ama *Virginac* milá-gros predicazezangátic.

26. Espiritátuac Alexándro Abadea, Estagirio Mongea.

27. Eritásun luceén exémpu S. Lidvvina ogueitamárr ta yágo úrtes héri egoncéna norctaquí cémbat gaitzgéneros, izánic *Jangoicoaren* maite especiála, ta asco ondásun erdechstenuéna berceendáco. S. Clara oguèi ta zórtzi úrtes. S. Goar zázpi úrtes, *Jangoicoagánic* erdechizuén heritasunaréqui ez izateagátic Apezpicu. S. Odision borz urtes oñáce uerruèqui. S. Margarita *Romana* amalaur úrtes. S. Ubaldoc bi úrtes passatuzué continoco il- tzebát *tormentuen* ta congojarén passiónes. S. Amato Abadea cási vici gucián héri oñaceéqui aráguíac consumituríc, aguerturíc ezúrrac. Cembát passatuzué S. Teresac? Eta beti bazué cer edo cer suffritzéco, gloria *Jangoi-coai*, dió berac. Nequéz (sic) aurquitucodá Sanduríc passatueztuenic herita-súnen purgatórioa, ta oñaceéna: eta cembatenás sanduágo, ta yago, héri po-bréñoen consolutáco.

Lembicicoa (l.) Jesus oñetáic bururáño, guizón doloréscoa, naiz báteo Jangoico (l.) eguiáscoa.

68at.

Jesu Christo Redentore, Fiadore, Pagadore.

Propter nimiam charitatem suam, quâ dilexit nos Deus, filium suum misit in similitudinem &

Christus factus est pro nobis obediens usque ad mortem, mortem autem crucis.

Jangoicoac digun amóre guciégua agueri dá atrátzean gure fiadore Jesu *Christo Jangoico*-guizóna, eta aimbérce amorésco excésso eguitean gure onagátic. Itzulógun ordáña.

Ain andía, ta ain chipí, Jesus, ori enegátic,
Badacúsat cergátic, Amorosteagátic ní.
Barimbadut biotzíc, Jesus, naidut ilartaño,
Ori yago guciac baño, Ori naidut bacarríc.
Jesus onac maite ní, Nic ere maite Jesus!
Ay amoregónen sús erre ta ilbanindedí.

Cergatic eguinotendú aimbérce excésso Jesus ónac? Cergatic dén ona, ta amatzengaituen gú sobra. Cerc jautsiaracizué gloriatic? Amóreac. Cerc passaráci aimbérce? Amóreac. Cerc ilaráci? Cerc &. Amóreac. Amóreac.

69

11

Héria despeitzerácoan gauóro

Orái despeidan ceñatubearzaitut úr bedecatuaréqui: *Gurúce Sanduarén † señaieagátic gure † etsaietátic libragaitzázu † gure Jaun ta Jangoicoa (l.) Aitarén, ta Semearén, † ta Espiritu Santi Jaunarén izénean. Amen Jesus.*

Deinde aspergendo lectum et cubile circùm, dicat: *Exurgat Deus, et dissipentur inimici eius, et fugiant qui oderunt eum, à facie eius. Sicùt deficit fumus, deficiant: sicùt fluit cera à facie ignis, sic pereant peccatores à facie Dei.*

Antiphona.

Salva nos, Domine, vigilantes; custodi nos dormientes: ut vigilemus cum Christo, et requiescamus in pace.

V. *Dignare, Domine, nocte istâ*

R. *Sine peccato nos custodire.*

V. *Miserere nostri, Domine.*

R. *Miserere nostri.*

V. *Fiat misericordia tua, Domine, super nos.*

R. *Quemadmodùm speravimus in te.*

Domine, exaudi orationem meam: Et clamor &

Dominus vobiscum. Et cum spiritu tuo.

69at.

Oremus. Visita, quaesumus Domine, habitationem istam, et omnes insidias inimici ab eâ longè repelle: Angeli tui sancti habitent in eâ, qui nos in

pace custodiant, et benedictio tua sit super nos semp̄er: Per Dominum nostrum Jesu, &.

Benedicamus Domino. Deo gratias.

Benedicat et custodiat nos omnipotens Dominus Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus: Amen.

Ad Beatam Virginem. Sub tuum praesidium confugimus sancta Dei genitrix, nostras deprecationes ne despicias in necessitatibus, sed â periculis cunctis libera nos semper Virgo gloriosa, et benedicta. Ora pro nobis, sancta Dei genitrix: Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus. Concede nos famulos tuos, quaesumus Domine Deus, perpetuâ mentis et corporis sanitate gaudere, et gloriosâ B. Mariae semper Virginis intercessione â praesenti liberari tristitiâ, et aeternâ perfrui laetitiâ: Per Dominum nostrum Jesum Christum filium tuum &.

70

Euscarás naibauzu alá

Salvagaitza, Jauna, gaudeláic idatzarriric:

Guardagaitza gaudeláic lôac arturic:

Vicigaitzen Christo Jaunaréqui,

Ta errepausa báquean beraréqui. Amen.

Naibez, Jauna, gaurr nor denagátic

Guardatu libre gú gaitz gucietátic.

Urricári gutas, Jauna, biz urricári,

Orrén bearr baicára ta becatári.

Eguinbez, otói, misericórdia guréqui.

Nola ustedúgun esperánza onaréqui.

Gure ésquea, Jauna, adibéz; eta escátua eguinbéz.

Visitabéz, otói Jauna, echegáu, eta apárta eméndic etsaiarén gaitz guciac: Beude emén berórren Ainguéru Sánduac, guardagaizáten gú báquean, eta bego guréqui berórren bedeicioa beti, Jesu Christo (l.) gure Jaunagátic. Amen.

Jangoico (l.) Jaun gucis poderosoarén, Aitarén, ta Semearén, ta Espiritu (l.) Sanduarén bedeicioa betorr gure gáin, ta bégó beti. amen. Jangoicoa (l.) biz zuréqui orai ta beti.

70at.**Orónac ematerácoan. Ave maria.**

*Ó Jesusen Ama ederra,
Biz bedecátua ordugúra,
Noiz eguzquiric obéna
Emancindígun mundúra. amen.*

Jangoicoac salvazaizala Maria grácias bétea &. Gloria &

*Jauna bere Amaréqui amatzendút:
Cóntra eguinas damu dút:
Ordugóntaic yá beticos
Gucis amatunaidút. Amen. Jesus.*

Ave Marien soñatzerácoan.

1. Jangoicoarén Ainguiruac mezu emaníc. Concebituzué Mariac Spiritu Sanduaganíc. Ave Maria.

2. Oná Jangoicoarén Esclava: Eguinbédi nerequi, zuc errán becala. Ave Maria.

3. Eta Jangoicoa guizon eguincé: eta gutártean vicitucé. Ave Maria.

Biz laudátua ta bedecátua aldaréco *sacramentu* sándua, ta Maria *Santissimarén* Concepcio gárbia, cein izanbaice concebitua becátu *originalaren* mancharicgabe &

71

12

**Asteco prestátzen iltzerá:
Oráño perill andiric eztelaric, dagolaric
ezbaieán cértara emainduén. Conformátzeco,
datorréna datorréla:**

1. *Pater, si possibile est, transeat à me &.*

Deséa órdu ónean, éasca, ta espéra *Jangoicoagánic* sendátzea, alá barimbadú placér bere *Magestadeac*, nola emancigun exémpu Jesus ónac bere pássio-alcinean eguinzuen orácioan, *Aita, possible barimbáda, librabenáza ontáic*: baña beti egón béra becála confórme *Jangoicoaren* borondaterá. Utzizaité segurqui berarén éscuan. Aita dá, ta naizaitu óngui, eta dáqui obéqui gúc baño cer zaigun convéni: eta beti naidu gure óna gueuréc báño obéqui. Errán bada:

Affect. Sicút lutum in manu figuli, ita ego in manu Domini. Ala nola loi-órea officialearén escuán, alá ni berórren escuán, ene Jaun óna. Orréc eguín, ta berórrec deseguín, nola duén placér. Orrén escuétan éscu onetán dágo. *amen (l.)*.

71at.

2. *Dominus est: quod bonum est in oculis suis, faciat.* Badaquízu *Jangoico* Jauna déla zure, ta nere, ta guci gucién Jaun ta Jabe, indezaquéna gu-

ciétas, ta deseguin oroát, noiz ta nola naiduen bere *Magestadeac*: *berás gú ezgára gueuréac*, S. Pabloc ción becála, *baicic Jaunarénac*: *eta vicibagára, vicigaréla Jaunarén*; *ta iltzenbagára, iltzangaréla Jaunarén*; *eta il edo vici, beti garéla berarén*. Berás Heli Sacerdóteac errána errán:

Affect. Jauna dá; óngui idurizaióna eguinbéz gutas, ta gure gauza gucíes. Jangoico (l.) Jauna, nitan, nitas, ta niri dagoquidan gucías cumplibédi orren borondatea (l.) orái ta beti. amen.

Orréc naiduéna naidut nic: Orréc naieztuéna naieztut nic ere. Orréc naibadú sendanádién, sendanadiéla; naibadú héri nágon, nagóla héri; oroát vici, oroát il: Bereá nau ni, bereás becála eguinbéz, nola naucan beti bere amórean ta grácian. amen.

72

3. *Ecce quem amas, infirmatur*. S. Martarén, ta S. Magdalenarén anáia Lázaro héri cegolaric, bi aizpec bialicióte Jesus onarí mezugáu, *Jauna, oná berórrec onestenduéna héri dágo*; errangábe zetórla, edo sendazezála, baicic ásqi cela emátea mézu, fiaturic inenzióla obéqui cegoquióna onestenzuenarí. Badá oná héri Christioarén oráció propía:

Affect. Ó ene Jesus Jauna, orréc onétsi ta onestenduengáu héri dago. Jesus salvazálea sendazálea, oroibedi bere izénas, ta eguinbéz enéqui grácia. Orréc itenduéna ongui eguína dá, dena déla. Oh! betiró imbalédi orrén borondatea (l.), yá ezlitzáque gaitzic: Gaitzac ere lirázque ón. Alá nere escátze gucíac bucatzendíre óntan, orréc naibadú, placér barimbadú. amén.

4. *Pater noster... fiat voluntas tua &*. Jesus ónac bére ágo sánduas erránzuen orációa dá obéna, Aita guréa, ta propía oraico peticiogúra. *Cumplibedi zure borondatea (l.) & Alá errán:*

72at.

Jauna, berórri dagóquio manátzea: niri dagoquida obeditzea: Eta nere viciac ta mundu gucíac baño yágo validú orrén borondatearén cumplitzeac. Eguinbédi, cumplibedi gucíetan: laudátua biz ta gorátua beticos Jangoicoaren (l.) borondatea (l.) gucíis jústoá, gucíis góra, ta gucíis amáblea.

5. *Perditio tua ex te, salus autem â Domino.*

Guc eztaquígu cer dén obé guretáco: bérece álde gara gaizqui inclinátuac. Badáqui gure Aita ónac, ta beti bere humeén onnáies iténdu itenduéna. Oh! imbaguindez beti guc berarén *borondatea!* Beti guinázque óngui! Baña gueurén *borondateac* galtzengaitu: berarén *borondateac* salvatzengai-

tu. Cer imbeardúgu berás? Utzi gueurén *borondatea*, eta emán berarén borondaterá gucis osoquiró erreservaricgábe.

Ó *Jangoico* (l.) óna, misericórdien *Aita*, consolácio *guciarén Jangoicoa* (l.), ene amazále ta onguieguille bacárria, berórri entregatzendiót ene libertá-dea, ene biótza, arima, ta gorpúza, ene memoria (l.), entendamentua (l.), ta *borondatea* (l.), ene deitzendén ta dèn *gucía* & pag. 37.

73

6. *Ex quo omnia, per quem omnia &*

Pensa *Jangoicoaren* escutíc ta bere éscus elduzaizúla eldudaquízun *gucía* lén ta guéro, becátuas lándara, eta *gucía* amóre ónes, dela osásun, déla heritásun, déna déla: eta ala eztéla gaitz eguiascoric, baicic becátua sollíc: quén au, eta guerostíc gaitz deitzendirénac ére ón itzultzendire onestendute-néi *Jangoico* óna. Errán bada gogotic:

Ó éne *Jaun ta Aita* óna, óngui-etórria déla berórren escutíc datorréna, naiz azótea: *Escua* apatzendiót, búrua cúrtus errecibitzeco gólpea. Biz *Jangoicoaren* (l.) izénean. amen. *Yago dá ori oroitzea nitas, ezi nic óngui ártzea bialdezadána. Óna dá beróri, eta ón dá bialtzendídan gucía, naiz deidezáten gaitz. Jangoico* (l.) andía dá manatzendídana óngui artzecó, ta eramateco óngui: *Eta nor naiz ni, erratecó ezézt?*

7. *Inveni hominem secundum cor meum.*

Jangoicoac naiduéna naiizátea guizónac dá bióc elcarréqui conformátzea. Alácoas dió, *Aurqui-*

73at.

tudút guizonbát ene biotzarén confórme. Alácoa izanzaizque zu ere, naibauzu. Eta cer imbeauzu, baicic nai izán? Berdín, naiezpacindúque ére, inéndu zútas naiduéna. Naiizanzázu, ta fortunóso zára: *gucía* itzulicodá zure oneráco. Naiz erauntsi gaitz *gucíac* zure gáin, etzaitu uquitúco fñantfábátec ére, zauzquieláic *Jaunac* zú erreposátzen bere biótzean. Gorde-lecu góra paratudúzu án:gaitzic ezín elléga. Fia *Jangoicoan*. Noec diluvioarén acabánzan bializuén úsoa arcatic volátus ta errevolátus arát onát, eta ezin aurquitus non barátu, itzulicé arcará. Usogárren guisará dá guizonarén arima: nión eztaique errepausa, ezpáda bere *Jaunarén biótzean conformidade* osoaréqui. Múnduco gora beraen diluviogóntan, oná non dúzun árca salvacióscoa, oná errepausa.

Aff. Ô Jauna, orréc eguingaitu beretáco gú: eta eztaique errepausa gure biótza, ezpáda orrenbaitan. Berórren besótan uztenáiz: eznazála orréc útzi ni séculan. Ori neréqui, ni orréqui, bióc elcarréqui beti, ô Jesus, datorréna datorréla.

74

8. *In patientia vestra possidebitus animas vestras.*

Nauzu erremediobát propía gaitz gucién? *Jangoicoaren* amóre púroa dá bálsamo divinoa: onéqui eguitendá paciéncia ta conformidadearén unguendu precíosoa: orrá gaitz gucién erremédio: onéqui deusec ezin gaizquiric eguín. Irabaztecó calteetán ére, nauzu árte onbát? Ori dá paciéncia ta *conformidadea*. Orréqui goátzean hériac dezáque aimberce irabáci, nola sánoac témploan, ta yago ere. Orréqui naiz gáldu-idúri, deus eztá gáltzen, mantenitzendeláic *Jangoicoa*. Sinetsi, onetsi...

Affect. Ô Jesus, herién lagún ta consolazále óna, ni naiz héri maldérr; ori barimbádago neréqui, ni orréqui nago contént trabajuetán ére. Ori barimbádút, deus etzaida fálda: ori, sollíc ere, ásqüi dút. Orrén grácian (l.) dagonái cerc indezóque gaitz? Alá óngüi cégo Noe dilúvioan: Ongüi Isaac ezpatarén péan: Ongüi Josef presondégüian: Ongüi Moyses Egipton etsáien érdian: Israeldárrac itsasgórrian: Jonas balearén tripan; Daniel leonen cubilan; Job estrabillean; irurgáiec sulábean; S. Pedro ta S. Pablo & &.

74at.

9. *Si Deus pro nobis, quis contra nos? Jangoicoa barimbada gure favóre, nor gure cónta? Sánduec solamente cúlpe zúte beldúrr, otezegóquen asárre Jangoicoa cónta: gañarácoan ez tristátzen, bai alegratencíre pénes eta trabájues. Gú ezgaizque alégra: bentzáit ez sóbra trista, ez sóbra lótsa. Ez útzi erórcera gógoa gorputzaréqui, alá biac lirázque eróriac, baicic góra gógoa berére. Guerócoas ez ártu gaitzíc lendanic: Útzi *Jangoicoaren* escurá. Bérac inendú bearrdéna: Utzágun disponidezála. Cuida *solamente* mantentzeas berarén *gracia* &*

*Aff. Prést dágo, Jauna, prést dágo ene biótza. Penadút nere cúlpe yago ezi penaguebétas. Naibanáu librátu culpa ta penaetáic, dá doble gracia (l.): bentzáit librabenáza culpaetáic. Heritzenbanáu escubatéqui, guardabenáza bercearéqui. Manatzendida paciéncia ta conformidadea (l.): Emanbéz manatzenduéna, eta manabéz naiduéna. Gaitzgáu eztáieia izán gaitzés, bai onés *Jangoicoaren* (l.) gloriatáco, ta neure salvacioráco. Amen.*

75

13

**Iltzera doaienarén Conformatzecó,
Confortatzecó, ta Consolatzecó iltzean**

1. *Nolumus vos ignorare de dormientibus, ut non contristemini, sicùt et caeteri &.*

Cuida sendátzeas ta vicitzeas emén, *Jangoicoac* naiduen árteo; baña *Jangoicoas* barimbadágo eramátea zú ontáic, joán conformátus berarén borondatearêqui. Bérac emána dúgu arima, itzultzecotán, noiz manadézan; eta bérac dáqui noiz dén obé guretáco despeitza eméndic. Gucióc goáz mundugóntaic, ezi ezgaude emen egótes, baicic vidanabárr: Niór eztá guelditzen emén. Errégue, ta Erreguína, Principe, Jaun, andi ta chipi, póbre ta abráts guciéc dúte joátea noiz deitzenduén bacócha gucién Jaunac. Gú baño obeác joandíre alcína, Sándu ta Sanda goápoac: Joánce Sánduen Sándua Jesus óna: Joánce bere Ama *Santissima* ere. Daude vici obeagócoan, *Jangoicoaren* paraisoan: eta ándic dau-

75at.

de convidátzen gú, deitzen, echidéten, edátzen berén éscuac, laguntzéco. *Ez-gára gú errbeztécoac* (sic-zt-) *baicic Sánduen erritarrquideac, ta Jangoicoaren (l.) echécoac ta familia berécoac, Christio becála, dugúnac Aita guréa Jangoicoa* ceruetan dagóna; gure Ama amorósa Maria *Santissima*; gure anái arrébac Sánduac eta Sándac; anáia lén léna ta andiéna gucién salvazálea Jesus óna, ceñen márca daramágun: Ainguiruac bérriz gure guárdiac ta adisquideac. Badúgu lagunzále fránco. Ezgaizela tristátu Christioóc eméndic joáteas ala nola infielac Esperanzaric eztuténac, dio S. Pabloc.

2. *Unam petii â Domino, hanc requiram, ut inhabitem &*

Eméngoa dá desterru ta propioqui negarrésco vâllea, nón cûlpac eta pénac abásto elcarrén atzétic baitátoz contíno. Alá eméngo aldía labúrr izandáien disponditú *Jangoicoac*, ta viáge, ta peregrinacio-guisabát gueuren sorrту errirá, cein baita Cerúco paraisoa. Ango vicitza baita vi-

76

citza seculácoa, vicitza eguiáz, vicitza zori onécoa ta deseagárria, non eztén gaitzíc, ta ez gaitzarén perillíc, ta ez memoriaríc ére, bai ondásun, gústо, ta naidezaquézun guciá. Ura deseátu, ura escátu ta billatubeárda: arrén áldean deus eztú valio eméngoac, misérien mindéguiac.

3. *Moriatur anima mea morte justorum, et fiant novissima horum similia.* Eztá gaichsto procurátzea ta escátzea gorputzarén osasúna ta vici luceágo, placér barimbadú *Jangoicoac*; baña arimaréna bėti dá lén, óntas cuida gueiágo. Gorpúta dá nola arimarén cóncha edo cája: barnéco pérла preciósоa becála dá arima; edo obéqui erratecó, dá *Jangoicoaren* imágina ta semejanzará. Galtzenbálitz au, gáldua dá cóncha ére: baña ura salvátus, bióc sálvo. Berás tontería dá, gorpútzas cuidádo ánitz izátea, ta caso gúti arimas. Bego bada *Jangoicoaren* escurá, noiz naiduén deitu bére gána, ezi beti deitzendú demboraric obénean: Gure cuidádo guciá biz bucátzea

76at.

óngui eméngo áldia sánduen guisará. Guciá dágo órtan, joátean óngui eméndic; dela goichságo, déla beranchágo, guti doáie óntan.

4. *Beati mortui qui in Domino moriuntur &*

Zori onécoac diréla, dió Espiritu (l.) Sanduac, emendic doacínac Jangoicoaren (l.) fedean ta amórean: Alácoen deitzea dá deitzea descansatzerá. Naturál dá vicináia; baña graciarena dá despeitzea arimo onaréqui: eta Christio onaréna offrátzea bere Jaunarí bere viciarén sacrificioa berarén zervitutzán: beragátic vicitu, ta beragátic bucátu. Bein óngui atrasguerós, betícos óngui: Eta moméntu báten ménean dagóque betirócoa: Eta óngui iltzea dá jaiótzea vici oberá. *Anima mea in manibus meis semper. Jauna, ene arima utziric daucat orrén escuétan*

5. *Qui credit in me, etiamsi mortuus fuerit, vivet.*

Christioéc dúgu consolácio ándia, Jesu *Christo* iltzena gure amóres, ta marcatugaituéna bere arditáco: Ustedúzu utzicotuéla bereác desamparaturic bearr-

77

orduán? Eztitu utzico, cerén erosidituén cário edérr. Niórc eztitio quendúco bere escutic. Bérac errána dá: *Sinestenduéna nibaitan, naiz ildáien, vicicodá, eta vici ta sinesteunten guciác nibaitan, eztíre ilén seculácos. Etzaziela beldurric izán, ene saldo chipiñtoa, ceren zuén Aita cerúcoac dú placér emáteas zuéi bere erreinua. Eta ni naiz videá, eguía, vicitza, ta atária: Ene medios doaiéna salvatucodá. Christorén itzac díre. Gure errespuésta biz S. Pedroréna, Jauna, norengána joaingára? Eztá berce nión salvacioric, ta ez onic.*

6. *Justorum animae in manu Dei sunt, et non tanget &*

Jústoen arimac daudéla Jangoicoaren (l.) éscuan, dió Espiritu Sanduac (l.), eta eztiotéla emánen penaric iltzeac ére. Idúri bai eztaquitenen beguiei iltzendiréla; baña ayéc daude báquean. Orgátic deuséc ezdezóquete gaitzic eguín, daudelaric aláco éscuan. Orgátic deitzendá ayén iltzea locártzea Jaunarén besótan, cerén baitaude án báque ta errepausa ón bateán, idatzárrí árteco (sic.) eternidádean. Orgátic ére dá precíósoa Jaunarén preséncian bere Sánduen iltzea. Ó Jauna, misericórdien Aita, eta Consolácio guciarén Jangoico óna!

77at.

7. *Pater, in maus tuas commendo spiritum meum.*

Encomendazázu maiz zeure *espiritua Jangoicoaren* escuétán (sic), eta ez sóbra lótsa gorputzarén trabájues: Ortáco dá ón beirátzea Jesus óna, edo passio-alcinean odóles icerdítzen, edo bércé pausurenbátean, edo azque-neán gurucearén goátze gogorrgártan. Lagún alacoaréqui bazaizque conso-látu, diozúla, *ó ene Jesus óna, orréc yago passatuzué; eta ni baño onágo cé. Orrén Compañian passatunaidut nic.*

8. *Mihi vivere Christus est, et mori lucrum; cupio &*

S. Pabloc erratenzué, *enetáco vicitzea dá Christo, eta iltzea ganáncia. Deseatzendút despeitzea gorputzetic, egoteagátic Christoréqui(l.).* Alá deseátzea dá Sanduen grácia: baña naiz ez deseaturic, passátzea arimo onaré-qui dá Christioaréna, juicio duenaréna. Ez pénsa dén baño latzágo. *Eztá cer lotsátu, ta ez ajolaric izán gorputzarénas, dió S. Teresac, (in Vita) eta Jangoicoa (l.) amatzenduténac aiságo iltzendiréla.* Passatuzué Jesús ónac passioarén trágo latz samiñgúra, eta bereéi ematendióte urrupañobána, ta ori ere gozaturic bere amorearéqui, ta bere assisténciaréqui, passadezáqueten guisan óngui.

78

9. *Ubi est, mors, victoria tua? Ubi stimulus tuus?*

Eztá becátu beldúrr izátea iltzeas: eztaré iltzearen deseátzea, ezpáda iras, *aburrimetus*, edo tristúras, ta desesperácios. Daique deséa, ta alégra iltzeas, 1.^a ellegatzeagátic lén baño lén icústera *Jangoicoa*, nola Davidec, ta S. Pabloc. S. *Ygnacio* Martyrec ta S. Catalina *Senacoac* convidatzenzúte eriótzea zetórren lén baño lén. S. Luis *Gonzagac* gasteríc, errancioteláic iltzencéla, exclamatuzué, *laetatus sum in his quae dicta &* Bercebát noticiagorrequi alegráncias vizcorrtucé. Bercebátec ció iltzerácoan, *eznué úste, ain gózo zéla iltzea*. S. Theresac ilnáies cantatzenzúé, *Vicinaiz ez enebaitan, ta aláco viciain beira nágo, ezi ez iltzeas iltzen nágo*. Eta guero iltzerácoan ció, *ô iltzea, nor dá zure beldúrr, dacarzularíc vicitza?* Asco sándu Mártyr zeizqueláic libra, zoézi bérac martyrriorá náies. 2.^a Daique deséa iltzea *Jangoicoaren* amóres offratunáies bere viciaren sacrificio: ta orgátic laburtuzúte áscoc vicia trabájus, ta penitências. 3.^a Daique deséa iltzea, libratzeagátic becátuen perilletáic.

78at.

Daique ere deséa, ez icusteagátic aimbérce desórden, gaichstaquéria, ta *Jangoicoaren* offénsa. 4.^a Daique ere utzi iltzerá ez manchatzeagátic *honestidadea*: baitaré deseátu ta escátu *Jangoicoai*, libragaitzan eméngo trabajuetaic, nola dén *conformidade* ónean.

10. *Ó mors, quàm amara est memoria tua &*

Ezpalitz becuric, ezlitzáque motivo andiric, icitzecó despeidas eméndic. *Jangoicoa* dá manatzenduéna; eztáqui eguiten gaizquiric, baicic óngui bereéi. Gúre becátuac dire samintzenduténac despeida. Baña badá erremédio: Unguéndu preciosobát itendéna contricióscó negárras, *Jesu Christorén* odól divinoas, ta Ama *Virginaren* ésneas: naut errán, izatearéqui gúc péna amorosobát offenditúas *Jangoico* óna, *Christorén merejimentus*, eta Ama *Virginaren* empéñus barcatucodigúla *Jangoicoac*. Eta orréqui goácen confíanza onaréqui, noiz manatzenduén bere *Magestadeac*. Ez eramán bérce penaric, baicic offenditúas *Jangoicoa* onetsibeárrean. Penagáu bai eramán azqueneráño. *Quis mihi det, ut ego moriar pro te, Jesu mi?*

79

11. *Sed et si quis peccaverit, Advocatum habemus &*

Ez eta ere sobra icítu cóntu emanbearrdénas juicioan: ezi emánic dauca bere itz erreála, *emén barcatzendirénac bere Ministroen medios, guelditucodi-*

rèla barcátuac. Eta eztá atzendúco bere izénas, ta costatugaizquiónas. Personabát yá érdi-desesperaturic cegoláic, S. Felipe Neri *Jangoicoarén* inspirácios itzúli, eta asicéquo erráten, bada norengátic iltze *JesuChristo*? Arc *errespondatució*, ezi becatariengátic. Sánduac, eta zú zér zará? Arc, ni becatári gaichstobát. Orduán Sánduac, berás zureá dá paraisoa. S. Rosa Limarí erráncio *Christo* bérac, *nic eztút condenátzen niór, baicic naidéna condenátu bera*. Beñic bein gure adisquideric amanteéna beardúgu izán gueuren Juéz. Autará emanbaligúte nor naidúgun Juéz gure causan, ezquindúque berceric naico, baicic gure Jesus óna. Jesus beti izanenda Jesus: salvatucogaitu, alba-dezáque. Duénac Aita Alcaté, pleiturá segúr doáqué.

79at.

12. *Vivo ego, dicit Dominus, nolo mortem peccatoris &*

Consolaciotáco dá *juramentu* (l.) eguinduéna *Jangoicoac* (l.), *eztuéla nái galdáien becatária, baicic convéti ta salvadáien: Baitaré, noiznái convertidáien, admitituric yá eztéla oroitúco arrén gaizquí egúines*.

Vocabis, et dicet, ecce adsum. Noiznái deidezázun, istánte bereán errandenzúla, *oná emén naucázu. Providebam Dominum in conspectu meo semper, quoniam á dextris est mihi, ne commovear. Propter hoc laetatum est cor meum... quoniam non derelinques animam meam in inferno & Etsi ambulavero in medio umbrae mortis, non timebo mala, quoniam tu mecum*. Señále óna emandizu, ez *solamente* egúinas zú bere *Christio*, ta milla favoreés favorátuas, baita ere orái árteo echidénas, orái bereán emáteas salvatzéco medio guciac, naibauzu, berce ascorí ez becála: egóteas bere *Magestadea* presénte emén zurenáies, eta berac manaturic bere Ainguirua ere bai zure guárdian: Sánduac empeñátzen; gucién gañetic *Jangoicoaren* Ama, utzizigúna gure Amatóco Jesus onac ilcerácoan, *ecce Mater tua*. Salvaciósco señále obéna dá Jesus *gurucificatua*, bere llágac & *Proprio filio suo non pepercit, sed pro nobis omnibus tradidit illum; quomodo non cum illo omnia nobis donavit? Signum foederis inter me et inter terram*.

80

14

Moguitzecó deseaterá vicitza seculacoa

1. *Finem veró vitam aeternam.* Criatugaitu *Jangoicoac* gú, amátzeco bere *Magestadea* emén, eta gozátzeco vicitza seculácoan. Eztá emén *sola-mente* vici; vicitzendá céruan ere, eta vici óbea, zori onéco vicia, Sánduen vicia Ainguéruen compañian, Ama *Virgína*, Jesus ona, ta *Jangoico* berarèqui: Angoarén áldean eméngo vicitza ezpaita vicitza propioquí, bai iltze luebát. An án baita vicitza eguiáscoa sinés naiden guciarèqui, ta gaitzen perilligábe secula seculorum. Arára arára bearrdúgu antsiátu gogotíc. *Quando veniam?*

2. *Quemadmodum desiderat cervus ad fontes &.*

Emén nola baita destérru ta negarréscó vállea, eztá gauza oníc segur ta betíco, gaitzac bai abásto, ta perillac ingúr ingúr. An berriz alde guciétaic ondásun, gústó, conténtu, nolacoríc ez icúsi, ez aitu, ta niori ezin gogorátu den adiña. Emén peregrino, ausénte *Jangoicoaren* presenciatic, viáges gabiltza: An dá *Jangoicoaren* paraiso ta palácio erreála, errepausa, ár-

80at.

gui, glória, ta gustoarén lécuá, nón bere *Magestadea* aguertzendén bereéi, ta emáten gozátzera. An dá gure arimen sortu-erria propioquí. An daude gure Aita *Jangoicoa*, gure Ama Maria *Santissima*, gure aideac Ainguéruac, gure anái arrébac Sánduac eta Sándac: gure anáia andiéna Jesus gloriaco Erréque soberána: Eta guciác gure náies deitzen, ta convidátzen gú, eta

edátzen éscuac laguntzecó igáten. Nola eztúgu naico igán? Nola ez ántsias erránen, *quando veniam?*

3. *Nobis quoque peccatoribus... partem aliquam &.*

Oh! balítz lécu án guretáco ere, díózu. Eguinendú jautsicénac andíc guregátic, ta utzizénac parátzera gurúcean guregátic. Guc éscá ta éscá limós-nas, Jauna, becatári pobreffoguebéi lécu pichscabát órr Jesúsen amoreagátic, bere odól preciosoagátic &.

4. *Non secundum peccata nostra fecit nobis & ps. 102.*

Gure becatútec erchicigúte ángo atária: baña penatuasguéros gú ayétas, barcatzentígu *Jangoicoac* nola Aita ónac. Beldúrr bazára etsáies, urratucotú guciac bere gurucearén paloaréqui: *virga tua et baculus &.*

81

5. *Gaudium erit in caelo super uno peccatore paenitentiam &.*

Alegratzen-omendíre céruan, becataribát convertitzeas emén: Cémbat yágo alegratucodíre, atrátzetas eméndic óngui beticos? Cer alegránciac, eta vivac, eta acclamácioac, ellegátzetas gú aiengána? Eta gueuróc egonengára nágui? &.

6. *Euge serve bone & intra in gaudium Domini tui.*

Atratzenbazára óngui eméndic, ezaunducozaitu bere Christio becála Jesu *Christoc (l.)*, *ea alegrazaité*, erranendizu, *sarzaite zure Jaunarén gó-zoan*. Idiquiric ángo atári eternálac, sarrtucózára erregióne berrigártan berteric gózos ta admirácios, infiniciobát viva ta acclamácioen értean, astecó gozátzen *Jangoicoaren* glória, ta ez uztecó *eternidade* gucian. Ô cein lastérr atzenducoxáren eméngo trabajúffoes?

7. *Qualis tibi erit illa dies & Ó* cér egúna ura, eta cér órdua ura, noiz astenzarén biltzen arantzeguében lóreac, eméngo azaroarén eraicio dichó-soa! Cer órdua ura, noiz icusicodúzun *Jangoicoaren* óna, ta

81at.

cein óngui pagatzenduén inzáion zervitzu púchsca! Ô cer órdua ura, noiz astenzáren chastátzen *Jangoicoaren* erregáloac, sentitzen ángo fragránciac (sic), aditzen ángo musicac, icústen ángo icusgárrri miragárrriac! Cer órdua ura, noiz guciéc án artucozaitúten milla amóres eta besárca! noiz Ama *Virginac* amóre andiaréqui deitucozaituen bére húme maitea! noiz Jesu *Chris-*

toc edaturic bésoac besarrcatucozaituen beticos! noiz *Jangoico* andiac erre-vestitzenzaituen bere gloriaco ederrtasúnas, eta ondátzen bere ondásun ta gustoen *immensidadean*, ala nola arrái chipiñfobát esnéscó itsásoan! &.

Ea, manténi constánte paciéncian *Jangoicoaréqui* báteo gutiñfobát orái, ezi prémio andi gueiéguia dá esperatzendugúna *eternidadean*. Eztíre ez bardín (sic) oraico trabájúñfoac emanenzaigun gloriarén áldean gure Jaun Jesu *Chistorén* cóstus: ain óna dá gure Jaun zervitzatzendugúna! Oh! norc zervitzatulúquen Sanduen guisará! &.

82

15

Iltzea ontzát, edo óngui artzecó*Quis mihi det, ut ego moriar pro te, Jesu mi?*

Esca gure Jaunari osasúna órdu ónean, convenibáda; baña *Jangoicoas* barimbadágo eramátea zú beregána, utzizaite berarén éscuan errendituríc, ta emanzaite bérea becála gogótic, diozúla:

Ô ene *Jangoicoa* guizón eguinic ene amóres, emanzuéna bere vicia enegátic; emánbez pobregónece bereá orrengátic. Escatzenbadída ene viciarén sacrificiogáu, oná offratzandiót biótz guciaréqui. amen.

Artzendut ontzát ene iltzea, Jauna, noiz manatzenduén, berórren amóre ta zervitzutan. amen.

Naidút, orrengátic vici becala, berorrengátic il ére báí, cerén ni orréna baináiz. amen.

Naidút despeitu vicigóntáic, cerén despeitudíren Sánduac ére, Ama *Virgina*, ta Jesus berói ére bai, imitátzeco nic ére ál gucían. amen.

Naidut joán emendic, libratzeagátic offenditzetíc orrén *Magestadea*, ta emateagátic cerbáit

82at.

satisfáccio ene vici gaizqui igatuarén. amen.

Naidut joán, logratzeagátic alá nere azquén fina, ceintáco jaionitzan, baita ellegátzea icusterá ene *Jangoicoa* bére glórian. amen.

Naidut joán, pagatunáies alá cerbaiñto nere Jaunarí zorrdióten infini-
cioas, eta emannáies ala esquérr milla milla, enegátic orren *Magestadeac*
passatuzuénas. Eztá deus nic emátea ene vicia ene Jesus onagátic, emanzue-
laríc bérea éne Jesus ónac enegátic.

Naidut joán, berórren glória ta placertáco emánes dúten vicigáu. Milla
vici banítu, milla vici emanbearnitue gogotic.

Naidut joán, ô ene Jesus óna, orrén fedean ta *caridadean* unitus ene
iltzea orrenaréqui, onen cásoe énea izandáien óna. Ala orrén escuetán enco-
mendatzendút ene *espiritua*, assistinazála berórren Ama *Santissimac*,
Aingueruec, ta Sánduec, óngui atradáñien (sic). amen.

83

16

Beldúrr humil confiatuarén

Quis prior dedit illi, et retribuétur ei?

Nori zer zorrdió *Jangoico* andíac? Norc dezáque obligátu justicias pagatzerá deus? Eztió nióri zorr deus bere *Magestadeac*: bere Magestadearí bai guciéc zorrdióte, ta guciác berarén graciaren beárrean dire. Alá niórc ezdezáque presumítu bére búruas, ta bere óngui eguines, ezi ón guciá dá *Jangoicoagánic*, eta *solamente* fáltac gueuren gánic. Alá quadratzenzáio ezaundezágun, ta confessa humil, ez presumítu gueuren aldetic, bai beldúrrtu, baña báteo esperátu beragánic.

Affect. = Ene *Jangoico* Jauna, ón gucien itsáso, itúrri, ta principioa, ezauntzen ta confessatzendút ón guciá déla berorregánic, eta cerbáit óngui barimbadúgu ére, dela orréc emána grácias: gaizquiac *solamente* diréla gueurengánic. Ezauntzen ta confessatzendút, ezutéla nic cer presumítu neureás, bai confunditu, ta sollic berórren *miserordian* fiatu. amen.

83at.

Jauna, beldúrr dút neure gaichstoas, esperánza sollic berórren ónas. Eztida zorr deus; nic bai berórri zorrdiót infinito. Bearnió pagátu alnuquéna vician; baña induténa dá, ez pagátu, bai zórrac aumentátu, zervitzatu-beárrean, offenditu.

Si iniquitates observaveris, Domine, Domine, quis sustinebit?

Examinatzenbadítu erchiquiró gure gaichstaquériac, Jauna, Jauna, nor daique átra libre? Gure ón ustetugunetán ére aurquitucotú fáltac. Eta astenbadá cóntu ártzen, ta cárgu egúiten, ezdezóquet millaetaic bati errespón-da. Cerbáit óngui banu ere, artucodút ichsilic egótea, eta escátu ez justicia, baicic *miser cordia*, *gracia*, caridáde, ta limósna.

Non intres in iudicium cum servo tuo, cio David sánduac, *eztadiéla ási cóntu escátzen bere siervogóni*, *ezpaita niór atráco libre*, *ezpáda orren gracias (l.)*. *Verebar omnia opera mea*, cio Job Sánduac, *neure obra guciés nitza beldúrr*. *Nihil mihi conscius sum, sed & cio S. Pabloc*, *eztút sénti becuric ene conciencian*, *ba-*

84

ña eznáiz orgátic segur, *cerén juzgatzennauéna baita Jangoicoa (l.)*. S. Tiagoc cio, *anitz gauzetán offenditzendúgu guciéc*. S. Juanec dió, *barimbadiógu eztugúla becuric*, *engañatzentugúla gueurén buruóc*. S. Pedroc dió, *jústoá dói dóia salvatzenbarimbáda*, *cer izanendá gaichstoas ta becatárias?*

Dicam Deo, noli me condemnare. Jauna, nic eztút escátzen justicia, baicic *miser cordia*. Ezauntzen ta confessatzendút arrapatuconauéla nondicnai: merejitutéla pénac, ta ez glória: nazaquéla condéna, naibadú egúin justicia érchia. Ez eztút escátzen justicia, Jauna, baicic *miser cordia*: ez niri emán merejidudána, bai mereji eztudána.

Domine, si vis, potes. Jauna, berórren preséncian humil humíla diót, ezi *naibadú*, *banazáquela condéna*: Baña bércé álde confiaturic orrén ónas ta *Christorén merejimentuas* diót, ezi *naibadú*, *banazáquela sálva*. Nereas nago desesperaturic, baña orrénas seguraturic. *Apud Dominum misericordia, et copiosa &*

84at.

Venit filius hominis quaerere et saluum facere quod perierat. Naiz etsituric gueurén aldétic, beardúgu egón seguraturic Jaunarén aldétic. Ez errán nola Cáinec, *yago dá éne gaichstoa*, *ezi Jangoicoaren (l.) óna*: cerén ezi yágo ta yágo dá *Jangoicoaren* óna, ta amóre digúna; onéguis ta amóre gueiéguis jautsibaice salvátzera gáldua céna.

Domine, ad quem ibimus? Jauna, norengána joanengára? Eztá bércé nióndic oníc, ez esperanzaric ére, *ezpáda orrengánic*. Orréc *ezpagaitu amparátzen*, *cer inendúgu?* Cer izanendá gútas? Becátues beldúrr: orren juicio

jústoes beldúrr: iltzeas beldúrr: ondorécoas beldúrr: alde gucietáic beldúrr:
Salva nos, perimus, Salvagaitza, ezperén galduac gára. Valiabequígu orrén
óna.

Rex tremendae majestatis & Errégue gorén goréna, grácias salvatzen-
duéna, salva ni bainaiz orréna. *Ingemisco tamquàm* &. Nago emén penaturíc
culpes eta alqueturíc, bárca urricarituríc. Nereas desesperaturíc, orrénas se-
guraturíc nágo. amen.

85

17

**Iltzera prestatzecó, Actoac
Aita guréa, ta Elizaco orációac, edátus**

Goárt emén. Actoríc obénac beréz dire dauzquiénac Eliza Ama Sandac, nola Credoac, Aitaguréa, Ave-Maria, Salvea, contriciósco áctoa, ta alácoac. Especiálqui Aitaguréa *Christo* bérac bere ágo sánduas eracutsizuéna. Ónen errepetitzen, ta ónen peticioac soségu andiaréqui egotendire iltzerácoan cembait guizón sándu ta chsaquintsu. Eta orí litzáque aisa ta prochál, óngui imbalédi detenítus peticio bacóchean, chsegátus, ausnártus, ta errecocitus becála biotz-bárnean: aldebát, cerén baitire inspiratuac Espiritu Sanduagá-nic, berce alde, cerén nola baitaquizquite memórias fiélec, aiságo baitire errepassátzeco berenbaitan. Ala dá ón, oroiaráztea sacerdotéec ebétas berén zelo ta maña onaréqui erabáquis, edátus, ta bordátus becála itz yagoréqui, pensaarázteco, ta ichequiarázteco devocioan: eta yágo áldis peticio, edo ac-togáiec, ceñén bearrágo diren, ta naiágo. (Cembáit imprudente venoéi iduri-zaióte obé án egótea predicátzen heriarí gauza bérriac gutitán adituac, eta ori óius luzaró: baña devócio baño enfádo yágo ta moléstia ematendióte gutitáco dagonái. Obe dá noizean noiz tantacá becála errátea cembait ácto la-búrr sencill, útzis dembóra errepassátzeco ta considerátzeco hériac berebaitan &.)

85at.

Oná fórma-iduribát aitaguréan.

Aita guréa Ceruétan zaudena

Norc nóri erratendiót *Aita? Jangoico* (l.) andiarí, gucién errégue, Jaun, ta Jabearí nic lurréco arrfño miserablegónec. Eznitzáque tréve deitzera ala: baña Jesús onác, *Jangoico*-guizónac guizón gucién anáia lembicícoa eguincénac eracútsi ta manatucígu erráteco alá berarén compañian.

Bada ô *Aita óna*, beti onétsi ta onestengaituéna, criátu, conservátu, preservátu, cristiátu, mantenítu, ta milla manéras favoratugaituéna. *Guréa dá* caridadésco amóres, baña Jesús onaréna *propriedádes* ta *naturalézas*: baña gure anáia andigárc emancígu bere *Christioéi* potestáde eguitecó gú ere *Jangoicoaren* húme grácias eta limósneas.

Semegúra óngui óna dá beti Aitarén guisa: baña ni húme gaichstoa izannáiz aláco Aitarí eztagoquióna óngui. Aita, becátu eguindút ceruaren cóntra ta orrén cóntra: Eznáiz digno deinázan berórren húme: inbenáza bere nirabeetáic bát becála.

86

Ceruetan zaudena

Aita ceruán, humegáu lurreán, ceruarén ta infernuarén értean: cerúra náí nic ére, baña ez meréji: Infernúra eznái, baña mereji bai: cer izanendá nitas? Ó Aita óna, yágo dá oráño ere orrén óna éne gaichstoa baño: piedáde, imbéz piedáde neréqui: eznazála desampára Jesusengátic &.

Santificabédi zure izéna

Sándua dén becála, biz bedeicátua, estimátua, honrátua, laudátua orren *Magestadea* ceruan ta lurrean Ainguiruen ta guizonengánic: eta nic ere goatzegóntaic adorátzen ta estimatzendút ene ál guciaréqui; eta nainúque seguitu amátzen eta bedeicátzen *eternidadean*. amen.

Etorbedi zure erreinua

Errégue soberáno bacárr eguiáscoa, erreinabéz guciétan, nibaitan ere bai, bere échean becála, arbéz poséssio nitas betícos; manabéz, eguin ta deseguinbéz, nola duén placér: *solamente* aurquidezátela nic grácia orrén beguiétan. amen.

86at.**Cumplibedi zure borondatea (I.) &**

Oneán ta gaitzeán orréc naiduéna naidut, naieztuéna orréc nic ére eztút náí: Orrén gústoá dá ene gústoá; orréc nola duén placér, ni alá contént, déla héri, déla sáno, dela aisa, déla nequetán, nola naináuen óngui ní. Ojalá beti cumplibaledi orrén *borondatea* ceruan becála lúrrean ere! Ordúan ezlitzáque gaitzic, baicic guciá ón. Ni orréna, ori nereá bėti. amén.

Emanzagúzu gure egunoroco óguia &

Ô Aita óna, emanbéz daquiéna bearrdugúla alá gorputzarén, nola ari-marén. Orréc ezpadú emáten, eztá nórc emán. Emanbezáda osasúna, convenibada, ta grácia, ta indárr, ta consolácio, ta azquénean salvácio etérnoa. Cuida galeztáien aimbérce costazaióna.

Barcadazquiguzu gueuren zorrac &

Barcátu niri becátuac, ta becátuen pénac: ez eguín neréqui nic meréji becála justicia, bai mereji eztúdan *gracia* ta *miseriordia*. Merejidú ene partes ene Jesus onac: beragátic *Indulgenciabát* plenária, orréqui admitinazáten orrén glórian. Nic ere orrén amóres barcatzendiótet agrávio indidaten guciéi: Guciéi barcabezágu orréc. amen.

87**Eta ezcaitzazula útzi tentácion &**

Ô salvazálea, sendaquín soberánoa, icustannáu héri gorpútzean ta ari-man: Jauna, naibadu, banazáque sendátu ta salvátu. Ez permiti aguidaquidan tentácio andiric, edo trabáju gueiequiric: ez permiti erorinádien. Nere inténçioa dá ez consentitzea orren cóntra.

Baicic libragaizázu gaitzetíc

Gucis poderósoa dá berórren *Magestadea*, eta ni bérea náu: librabenáza gaitz diren gucietaic: librabenáza gaitzgónaic ére: libra cúlpa ta penatic: libra iltzetic gaizqui: libra condenacioco sentenciatíc: libra Jesus onarén *me-rejimentuengátic*. amen.

Ave Maria, ta Salvea oroát

Agúrr Maria, *Jangoicoac* (l.) bedeica, hónra, estima, goradezála: goza-bédi, alegrabédi zori onécoa &.

Maria Ama guría, graciásco esnéscó itsáso andía, itsasoco izárr edérra, señoira, argui &.

Gracias bétea ezin yagos mucurú gaingas in-árteo guretáco ere abásto, guciói gracia *agraciatua* &

Jauna zuréqui, eta zure favóre beti: naiduéna Maria *Santissimac*, naidu gucién Jaunac, deus ezin uca &

Bedeicátua zú ándre gucién ártean, dichósa, ona, amáblea, admiráblea, incomparablea, nior ez becála, guciác baño yago ta yago &.

87art.

Santa Maria Jangoicoaren (l.) Ama. *Jancoicoa* eguince guizón becatariengátic; berás becatariengátic *Maria* eguince *Jangoicoaren* Ana. Berás ô *Jangoicoaren* ta becatárien Ama, mostrabéz déla Ama.

Otóitz eguinbéz enegátic baináiz becatári. Cer eztió aguinducó aláco Sêmeac aláco Amari! *Otoitz* eguinbéz hume gaichstogónen favoretán orái ta eriótzeco orduán; vicinaizen bitárteo vicitzeco óngui, ta azquénean bucátzeco óngui. amen.

Jangoicoac salvazaizala erreina, *miseriardiaren* &

Zure gána deies gaude & Zuregána suspiratzendúgu & nic especiálqui orái goatzegontan héri nagoláic, eta orrén beárr gucis &

Ea bada gure Avogada &. beirabéz ene bearrái: urricaribédi nitas, ampara &

Eta desterrugónen & Palacabéz ene favore, eztagongátic ene cónta, ez-dézan eguin justicia neréqui, baicic *miseriardi* andía &.

Ô clementissima & Ô aldeguciétaic óna ta amáblea, eta nic bearrbecalácoa, otói otói, izannádien fortunóso beticos berórren medios: Elleganá-dien emátera gráciac glórian. amen.

88

18

Protestácio labúrřoac ilbañolén, indaizquénac, galdétus sacerdotéac, ta erres-pondátus heriac bai edo ez

1. *Gald.* Christio becálaezauntzen ta confessatzendúzu, *Jangoico* Jauna déla gure gucién Jaun ta Jabe, manadezáquena, eguín ta deseguín gútas ta gure dén gucías, nola duén placér; eta bérac eguitenduéna óngui eguína, ezpaitezáque gaizquiric eguín?

Erresp. Bai alá ezauntzen ta confessatzendút.

2. Errenditzenzára humil obediénte *Jangoicoaren* escupéan berarén esclávo ta húme becála, eguindézan zútas béreas becála naiduéna? *Er.* Bai &

3. Errecibitzendúzu heritasungói *Jangoicoaren* escutic becála, ta naidúzu eramán óngui berarén izénean eta amorean? *Err.* Bai Jauna.

4. Naidúzu seguitu ta imitátu Jesus óna eramánes guruceřřogói, eta juntátu zure trabájuac Jesus onarén trabáju andiagoéqui? *Err.* Bai &

88at.

5. Naidúzu honradáien ta zervitzadáien bere *Magestadea* zutas oneán eta gaitzeán, vicitzan eta iltzean edocéin guisas? *Err.* Bai &

6. Offratzendiózu *Jangoicoai* zeure persóna, ta gucía berarén amóre, placér, ta gloriatán? Bai

7. Deseatzendúzu lográtzea guizonarén azquén fina, ceintaco jaiogaren; baita ezaundus, amátus, ta zervitzátus *Jangoicoa* münduan, ellegátzea icústea ta gozátzea bere glórian? Bai

8. Eta baldin *Jangoicoac* disponitzenbadú zure eramátea eméndic, conformatzenzára? Bai.

Esquérrac

1. Badaquízu infiniciobát favóre eguín eta eguitendigúla beti *Jangoico* ónac: Ematendiózu esquérr milla milla, emannáies cêruan? Bai.

2. Ematentiózu esquérrac, cerén criátu, ta conservatuzaituén, eguín bere Christio, ta milla manéras favoratuzaituén? Bai.

3. Principalquiró esquérr milla diózu, ce-

89

ren *Jangoicoa* eguincen guizón gure amóres, eta passatuzuén aimbérce trabáju guregátic? Bai.

Fedearén

1. Christioa zareláic *Jangoicoaren gracias*, naidúzu vici ta il fede *Christioan*, eta firmátu orái professatucinduéna batáioan *Christoréna* becála? Bai.

2. Sinestendúzu firmequiró Jangoicobát ta irur Persóna, Aita, ta Sémea, ta *Espiritu Santi* (l.) Jauna? Bai.

3. Sinestendúzu Jesu *Christo*, *Jangoico* ta guizon eguíascoa, concebitucéla *Espiritu* Sanduaren virtútes, jaiocela *Virgína* Mariagánic; passatuzuéla pássio dolorésco, gurucificátu, il, ta orcizutela; ta bere virtúte propios erresucitaturíc igáncela Ceruétara, án dagola jarriríc Aita eternoarén escuieco áldean, eta báteo presénte erreálqui alchaturíc aldaréco *sacramentuan*; eta azquen juicioco eguneán etorricodéla onen ta gaichstoen juzgátzera, ta onéi glória, gaichstoéi péna emaindiotéla?

89at.

4. Sinestendúzu Eliza Sanda *Catholicoa*, Sanduen commúnioa, becátuen barcácioa, araguiaren *erresurreccioa*, vicitza *seculacoa*?

5. Sinestentúzu alabér laur *Novissimoac*, edo guizonarén azquené-coac, baitire eriótzea, juíçioa, Infernua, ta Gloria? Bai.

6. Sinestendúzu Elizac sinestenduén gañaráco guçia? eta mantenitunauzu fedegáu azqueneráño, eta confessátu, ta firmátu ére, bearr balítz zeure odolaréqui, contráριο guçien cóntro? Bai.

Esperanzarén

1. Eta fedea fundatzendeláic *Jangoicoaren* itz errál (sic) eguiáscoan, eta confiánza berriz berarén ontásun infinitoan, naidúzu izán fêdea bezáin firme confiánza *Jangoicoan*, cerén baita óna, ta *misericordioso*?

2. Esperatzendúzu sinés *Jangoicoagánic* becátuen barçáçioa, grácia, glória, eta bearden ón guçia Jesus onarén *merejimentus*, eta Sanduen medios?

3. Zaude zeureas desconfiaturíc, eta *solamente Jangoicoan* confiaturíc, ezpaita deus oníc, ezpada bera-

90

nic? (sic) *Erresp*: Bai. Naiz beldúrr *Jangoicoaren* justicias gueuren becátuen cásos, baña yágo confiánza berarén misericórdias, garaitzenbaitu gure gaichsto guçia.

4. Ezauntzendúzu, aggrávio ándia itenzaióla *Jangoico* onarí desconfiátzeas? Bai. Cerengátic *Jangoicoaren* glória ta sendagálla gloriósoa dá barçátzea: Gu gára becatári, baña *Jangoicoa* barçazále: Guç becátu itendúgu guizón becala, baña *Jangoicoac* barçatzéndu *Jangoicoa* becála; eta garaitzendú bere ónas gure gaichstoa. Judas traidoreái ere barçatucoció, itzulibarrimbaze penaturíc gaizqui eguinas, ta confiaturíc barçáçioas: baña desconfiatzearéqui yago acabatuzé galdus, ezi saltzearéqui bere Jauna. Logratuzé barçáçioa Longinoséc lanzada emanciónac: logratuzé ascoc pas-saracioténac trabáju bere pássioan: logratuzé ladrón gurucificátuac aldácan: eta S. Pedroc ucatuzuénac, S. Pabloc perseguituzuénac, eta naizúten guçiéc &.

90at.

Caridadearén

1. Goácen orái. Eta naidúzu izán *Jangoicoaren* hume onétsia? Bai. Bada onetsizázu, ta onestenzaitu, ain ciérto, nola árguia baita árgui, ezi berac errána dá, *Nic onestentút onestennauténac ni*.

2. Onésten, amátzen, ta estimatzenúzu *Jangoicoa* zeure biótz guciaréqui, arima, entráña, ta indárr guciéqui? yago ezi gauza guciac, yago ezi gústoac, yago ezi hónra, estimáció, ondásun, conveniència, osásun, vicia, ta dén gucía? Bai.

3. Naicindúque amátu afféctoa, efféctoa, perféctoa; biótzes appasionaturic béras, obrátus, ta passátus trabáju ta eriótzea beragátic? Bai.

4. Naicindúque *Jangoicoarén* amóres vicitu, ta Jangoicoaren amóres il, ta izanléien amoregói zure *espiritua* becála?

5. Naicindúque amátu nola S. Theressac ta berce Sánduec, nola Serafinec, nola Ama *Virginac* berac? bai.

6. Alegratzenzára amadezáten; tristátzen ez amátzeas anitzéc; ta de-seátzen amadezáten guciéc? bai.

91

Contricioarén

1. Badaquizu barcatzendiréla becátuac contricioaréqui; eta contricio deitzendéla amorésco péna offendituas *Jangoico* óna ta amáblea; eta izatecó penagói déla infiniciobát motivo. Ezauntzen ta confessatzenúzu déla gure *Jangoicoa* óna amáblea, gaizquiric ez béñere, baña bai beti anitz óngui indigúna; ta etzuéla meréji offendiguindézan, baicic áma ta estimaguindézan ál gucía? *Err.* Bai Jauna.

2. Ezauntzen ta confessatzenúzu, dela gaizqui egúina, ta arrácio guciarén cóntro offenditua aláco Jauna amatubeárrean? Bai.

3. Ezauntzen ta confessatzenúzu orái berére, obe zinduéla, milla áldis obe, ezpacindue béñere offenditu, baicic amátu beti ta estimátu sanduen guisará, nola cén arrácio ta *obligacio*? Bai. Ojalá ezpánu offenditu séculan ére: Ojalá beti amátu ta estimatubánu. Ô ene Jaun óna, ene

91at.

ondásun gucía, ene gústo, ene alegría, ene honra, descánsu, errecreáció, amóre, ta nainuen guci gucía, cer nainue nic átra egúines orren contra? Diót yá penaturic: *Naiz gucía galduric; Naiz deusgábe ni gueldítu; Eznué beárr offendítu, Ene Jauna nic, ez nic.* Alá dá.

(4. Ezauntzen ta confessatzenúzu, delaric edocéin becátu debecátua *Jangoicoaren* légues, ala ére admititzea déla desobediència berarén *mana-*

menduari, ta desprecio-guisabát lurréco árřoac itendióna bere Magestadea-
rí desobeditus indignoquí? bai.

5. Ezauntzen ta confessatzenúzu, agraviatzenúenac *Jangoico* an-
día, bere passióneac cumplitzeagátic, trucátzen ta uztenduéla bere *Magesta-
dea*, ta berarén amórea lurréco miseriengatic? bai.

6. Ezauntzen ta confessatzenúzu, becátu eguitenduénac eguitendió-
la placér etsaiari, desplaçér *Jangoicoari*, ta cälte bere buruari? bai.

92

7. Ezauntzen ta confessatzenúzu dagóla mundua bárna barraturíc
iluntásun andia, eguiteas gueienéc aimbérce offénsa berén *Jangoico* onari?
bai.

8. Ezauntzen ta confessatzenúzu, eztiozúla correspondítu óngui
bere *Magestadeai*; bere amórea desamóres, favóreac esquérr gaichstos, ón-
gui-eguinac gaizqui-egúines pagatutiozúla? bai.)

9. Zaude ya óngui penaturíc offendituas Jaun ón amablegúra amatu-
beárrean? bai.

10. Bauzu ére péna, offendidezáten áscoc múnduan, naicinduéla erre-
media, albacindezáque? bai.

11. Aborrecitzendúzu *Jangoicoaren* offénsa dén gucía, ta naicindúque
deseguín al gucían? bai.

12. Naicindúque yago ta yago penátu amoresco dolóres, ta izán con-
tricio ain fiña, nola S. Pedroc, nola S. Maria *Magdalenac*, nola Sanduec?
bai.

13. Escatzendiózu humilqui barcácio *Jangoicoai*, nola hume prodi-
goac bere Aita onái? bai.

92at.

14. Eta confiaturíc admititzenzaituéla oráño ere bere grácian, itz
ematendiozú eztuzúla nai bérriz offenditu séculan, naiz luzabalezázu ere vi-
cia emén milla úrtes? Bai.

15. Artzendúzu inténcio, eztuzúla nai consentitu, baicic errepugnátu
ta despeitu tentácio datózquen guciac? Bai: eta cláma biótzes fuera becátua;
viva *Jangoicoa*: viva *Jangoicoaren* léguea &.

16. Offratzendiózu *Jangoicoai* satisfacciotán gaitzgói, ta passatzentú-zun trabájuac unituríc Jesus onarén pássio ta eriotzearéqui? Bai.

Confessio humilarén

1. Confessatzendúzu, ón dén gucía datorréla *Jangoicoaganíc*, eta gaizquiac sollic gure ganíc, eta oníc eztugúla, ezpáda bérac emánes? Bai.

2. Confessatzendúzu, eztuzúla meréji gloria, ezpález nai *Jangoicoac* eguín grácia? Bai: baña esperatzendúzu salvatucozaituéla Jesus onarén me-rejiméntus, baita gucién fiadóre ta paga-

93

dóre. Ô Jesús, biz enetáco Jesús salvazále.

3. Confessatubeardúgu, salvatzenbagára, ori izanendéla *Jangoicoa-ren gracias*, eta *Christorén* medios: baña galtzenbaguinázque, ori litzáquela (sic) gueurén cúlpas: baña ezdezáquela yago gure culpac, ez, baicic berarén gráciac garaidezála, ta *misericiadiac*. amen.

Emáteas *Jangoicoai*

1. Ematenzára, entregátzen, ta úzten guciói gucís *Jangoico* onarén es-cuetán fiaturíc etzaituéla utzico galtzéra, bai cuidatúco bérea becála? Bai. Díó, ezi berórri útzia nagóla ni pobreñogáu, Jauna, berórrec amparatucodú emazúr desamparátua. Berórren egalpéan gordetzennáiz: guardabenáza.

Ama *Virginai*

1. *Jangoicoas* lándara encomendatzenzára bere Ama Virginarí, mos-tradaquizun Ama, zaudelaic bearreán? Bai, ene Ama *Santissima*, erranzózu, *Jangoicoas* gueros ene ondásun ta esperánza gucía, mostrabéz déla Ama; *Jangoicoaren* Ama, lográtus berarén piedádea enetáco; ta ene Ama, ampa-rátus bearrórduan. Ô Ama amáblea ta amánteá, oná nón duén humebát beárr ándian: eznazála desampára.

93at.

Maria *graciaren* Ama, ta *misericiadiaren* Ama, etsaietatic librabenáza, ta ilcerácoan ampára. Santa *Maria Jangoicoaren* Ama, zuc otoitz eguizu gú

becatariengátic orái ta gure eriótzeco ordúan. amen. Oroibédi, ô *piadosissima Virgina Maria*, eztela aditu & Sanctus Augustinus.

Aingúeru guardiacoái

Zeure Aingueruái ére encomendazaita diozúla: *Ô Jangoicoaren* (1.) Aingueru óna, ene guárdian dagóna: Bada berarén piedádes orrén cargurá nago ní: árgui ta quidabenáza, guárda ta governabenáza orái *ta beti*. amen.

Sanduéi

Ô ceruan diren Sandu zori onécoac, *Jangoicoa* gozázen daudénac, oroibeitez nitas nagónas negarréscó vallegóntan, ta orai héri goatzegontan, bialibezadáte berén favórea, ta lograbezádáte (sic) *Jancoicoagánic*, passadezátén óngui, ta elleganádien oyen compañiará ni ére, cantátzeco berarén misericórdiac eternidádean. amen.

Jesu Christori

Ô Jesus, ene arimarén amórea, eguinbez enéqui bere izénac dióna, izanádien sálvo. amen.

94

19

Conformidadearén Actoac iltzecó

1. Jangoico Jauna Jaun andia dá, gucién Jaun eta Jabe, indezáque naiduéna bere criaturaes. Eta gú ere *Jangoicoaren* criatúrac gara, lurréco arr miserábleac. Berás indezáque gutas ére naiduéna, eta inendú alás edo olás, naibadúgu, ezpadúgu. Berás cer inbeardúgu guc? Beárriac apáldu, uzcúrrtu biótza humil humíla; errán:

Act. Naidúgu gogótic ére, naidúgu indézan gútas orrén *Magestadeac* naiduéna orái ta beti. Jauna dá, imbez cer idurizáion óngui bere beguiétan. Baña Aita ere dá: Eztú naico ón ezteníc bere humeendáco. Bada ô Aita gu-réa Ceruetan dagóna, cumplibédi orrén *borondatea* Céruan becála lúrrean ére. Gueuren *borondateac* galtzengaitu; orrén *borondateac* salvatzengaitu: Possible barimbáda, apárta tragogáu: Baña eguinbédi, ez gúc naidugúna, bai orréc *naiduena*.

94at.

2. *Nescitis quid petatis.* S. Juan ta Santiagorén Amac escaturíc Jesus onarí ondasunbát bere bi semegaiendáco, errespondatucióte bere *Magestadeac* (*l.*), *eztaquizie cer escatzendúzen*. Ala dá, ezi eméngo ón eta gaitz deitzendirenetán engañatzengára áasco áldis. Eméngo néque-pénac, ta naigá-beac, beréchsqui gorputzarén gaitzac etzaizquigu idúri ón, eta aguián dire

ón arimarén. Aláco abásto passatuzúzte Sanduec, Ama *Virginac*, eta Jesus ónac. Acertatzéco, medioric obéna dá úztea bát Jaunarén escuetán, dióla:

Act. Ene *Jangoico* Jauna, ni eznaíz neurea, ta berce nioréna, baicic berorréna guciáu oñetáic bururáño, ta betiróco. Ni orréna, ta ori nereá: Ni orrén esclávo ta huméñtoa: Ori nere Jaun ta Aita amorósoa. Berórrec dáqui ta naidu cer dagoquidan niri óngui, neurónec baño obéqui, cerén obéqui onestennáuen. Berórrec eguinbez ni-

95

tas bereas becála naiduéna. Berórren escurá nago utziríc, ta segúro eznuvéla utzico galtzerá. Nere ón eta gaitzes, viciás ta iltzeás manabéz nola duén placér: obediénte nágo azquén atseráño. Ene ón gucia dágo orréqui óngui egótean. Onetsibéz, otói, orréc pobreñogáu, eta orréqui guciáu óngui...

3. *Sive enim vivimus, Domino vivimus, sive &.*

Act. Ô ene *Jangoico* óna, nere gauza guciac, alá arimarén, nola gorpuzarénac dire berorrénac, berórrec emánac fiará. Confessatzendút berórri zorrtiotéla gucióc, eta naidiót in errestitúcio, eta itzúli, noiz manatzenduén. Deus ere eztút ná gueldítu neretáco. Vicibanáiz, ene Jaunarendáco vicináiz; iltzenbanáiz, berorrendáco: eta vici edo il, sáno edo héri, guciáu orréna naiz. Ojalá bánitz orrén gustoráco. amen.

4. *Omnem sollicitudinem vestram projicientes in eum, quoniam ipsi est cura de vobis.* Erra-

95at.

tendígu Apostoluac, gueuren cuidádo gucia utzidezágula *Jangoicoaren* éscuan, ezi bere *Magestadeac* duéla cuidádo gútas. Bada erranzógun S. Agustinéqui.

Act. *Fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum, donèc requiescat in te.* Ô gure *Jangoico* Jauna, gure amóre ta ondásun guciá, gure esperánza, errepausa, ta biotzarén ásse béte betéa, inguindúza orréc gú beretáco; eta inquiéto dago gure biótza, sosegatuárteo berorrenbaitan. Nola inenda au? Utzis orrén besótan neuráu guciáu, orréc cuidadézan. Yá gue-rostic cer zaida niri nitas? Orr compoundáela Jabea. Nic eztút berce cuidadoríc, baicic amátzeas ta estimátzeas ene Jauna. Ya ene biótzac ezdezála deus áma, baicic ene Jauna: ene *entendamentuac* ez pénsa: ene memóriac ez orói; ene miac ez mintza: ene potencia ta facultade guciéc ezdezátela zervitza, baicic

96

ene Jauna. amen. Ene vicitza bego alchaturic Jesu-*Christoréqui* Jangoicoan. Ene vicitzea biz Christo, ta iltzea irabáztea. amen. Ene guciá biz Jaunarén.

5. *Domimus mortificat et vivificat & Jangoicoa* dá heritzen ta sendá-tzen, ilcórrtzen ta vizcorrtzenduena: berarén éscu onetíc eldudá óna eta gaitza; eta gaitza ere eztá gaitz, baicic ón aláco escutíc. Ain óngui onestengaitu Aita *divinoac*, ematentiguláic azóteac, nola ematentiguláic chóchoac. Berás erranzózu:

Act. Ô Aita óna ta amorósoa, nola onetsinázan orren *Magestadeac* ní, datorréna datorréla, óngui etórrria déla aláco escutíc. Onac artubaitúgu Jau-narén escutíc, gaitzac nola eztitúgu eramanbeárr óngui? Jaunac emán, Jau-nac edéqui: nola zuén placér, alá eguinda: biz bedecátua. amen.

6. *Etiamsi occiderit me, in ipso sperabo.* Ceátzen ta iltzen banáu ere, berabaitan dú esperanza. Jaun andiarén chacúrrífoac becála gára berarén

96at.

oñetán gaude maipéan berarén escuétara beira: naibadú zároas emán, nai-badú óguias, bere éscu dú. Bada erregálo ta festa itendidaláic, gozátzennáiz: eta bearnnúque in marr marr, ceatzennaueláic? Ez ez alacoric: bai humildu yago bere oñetán, naiz cincúria eguín, eta escátu:

Act. Jauna, otói, urricári nitas: apárta, placér badu, azotegáu: ezperén, bida grácia suffritzéco: eztút nai orrengánic apartátu nic niolatére. *Ut ju-mentum factus sum apud te, et ego semper tecum:* ala nola berórren animalé-foa ní, baña berorréqui béti. Eznazála útzí séculan bere gánic: bai idúqui firme beréqui. Ori neréqui, ni orréqui: elcárr naigaréla óngui; guerostic gu-cia óngui. Orrén borondáteac iretsibéz nereá: Nic eztút beárr, ta eztút nai borondate *proprioric*. Orréc naiduéna biz: orréc naieztuenic ez. Asqui dá enetáco amanázan orrén *Magestadeac* ní.

97

7. *Calicem, quem dedit mihi Pater, non bibam? Ció Jesus ónac, ene Aitac emandidan trágoa eztút passatubeárr?* Ori berói erranbearrdúgu gúc. Bere *Magestadeac* naibádu passadezágun, cer inendúgu? Pássa pacienciaré-qui: ta errán:

Act. Jauna, orrén *Magestadea* oroitzea nitas, eta visitátzea ni yágo dá, ezi passátzea nic. Passatunainúque alegreguí orrén amóres: ori ezpadezá-

quet, bentzáit paciéncia ta constanciaréqui. Orrén *gracia* ta amórea Jesúsén odolarén virtutearéqui biz unguéndua, legúntzeco péna.

8. *Paratum cor meum, Deus, paratum cor &.*

Act. Prést dágo, Jauna, prést dágo ene biótza. Becátu eguindút; eta meréji adíña péna eztút: eta datorréna suffritunaidút. Culpac izán, eta penac eznái eramán? *Paciéncia manatzendida, Jauna; emanbéz manatzenduéna, eta manabéz naiduéna:* eta iduquibenáza bere *gracian.* amen.

97at.

9. *Christus factus est pro nobis obediens usque ad & Jangoicoas* barimbadágo joátea zú ontáic, bearzára ortaráño conformátu, ta berarí encomendatu. Guciéc, poderóso, pobre, andí, chipi, sandu, becatári, prochál, ta ez prochál garenéc, guciéc dúgu joátea eméndic goiz edo beránt, norc bere áldian. Joandíre *Jangoicoaren* guizónic andiénac: Joánce Maria *Santissima:* Jesu *Christo* béra eguinic obediénte guruceraño joánce: Gu joátea eztá milágro.

Act. Emén nauca ni ere obediénte joatecó, noiz manadézan orren *Magestadeac.* *Solamente* acompañanazála ene Jesus ónac, Artzái ónac, enegátic vicia emanzuénac. Orrén compañian ta ampároan eztá gaitz joátea. Orrén varac, ta orren páloac consolatzenaute. Ori dá vicitza: orrenbaitan sinestenduéna, naiz ildáien, vicicodá: eta vici ta sinestendueníc eztá ilén beticos baco chic ére. Alá erránzue orréc, eta alá da. amen.

98

20

Fedearén Actoac iltzecó óngui

1. Consoláció ándia dá guretáco *Jangoicoac* indigun grácia especiála eguitean gú beréchs bere Christio, Christorén árdi marcátuac bere marcaréqui, dugúnac Christorén fedea batáio sánduan professátua, ceñéi erratendígun S. Pabloc, (Efes. 2.) *Ene anáiac, orái yá etzaráte arrótz eta campoco, bai-cic zaráte Sanduen lecuquide, ta Jangoicoaren (l.) echécoac, parátuac Apostoluen ta Profetaen cimenduarén gañetic, delaric árrí principál lembicicoa Christo Jesus*. Baitaré S. Juánec erranzuena, *Christo errecibitudúten guciéi emandiotéla potestáde, izáteco Jangoicoaren (l.) húme, sinestendutenéi berarén izeneán* (c. 1.) Fede edo sinéste Christiogáu dá ón gucién ta salvacioarén ciméndo ta principio: *Eta federicgábe imposible dá quadrátzea Jangoicoai (l.): Eta ellegatzecó Jangoicoagána (l.), dá preciso sinéstea badéla, ta billatzeunténen premia-*

98at.

zále. Gucióc dire Apostoluarén itzac.

2. Consoláció yagotáco dire *Christo* berac erránac: *Nolite timere pusillus grex & Etzazela beldurríc izán, ene saldo chipiñtoa, cerén ezi zuén Aita Cerúcoac dú placér emáteas zuéi erreinua*. Baitaré errancióna escatzencionái urricáriseiela ártas, cerbáit albarezáque, *Omnia possibilia sunt credenti: Zuc albadezaquézu sinésta, guciá dá possible sinestenduenái*. Baitaré errancióna S. Martarí, *Ego sum resurrectio et vita & Ni naiz viztea ta vicitza. Nibaitan*

sinestenduéna naiz ildáien, vicicodá: eta vici ta sinestenduenic nibaitan eztá ilén beticos niór. Sinestendúzu au? Arc, bai Jauna, nic sinestendút, ori dela Christo Jangoico viciarén semea mundugontara etorricéna. Baitaré guciéi errangúra, Qui crediderit & Sinestenduéna ta bataiatu déna, izanénda salvo: baña eztuéna sinésten, condenatucodá.

Berás sintasun guciaréqui erranzógun:

99

Act. Ô ene Jangoico Jauna, ni berórren gracias Christioa naiz, Christoréna, berarén márcas señalátua, ta odól preciosoas erósia, eta berórren echéco húmea;; berórren fedea dút, Elizac sinestenduén gucia sinestendút, cerén berorrec alá errevelátu, ta Elizac alá eracustenbaitu: eta fedegóntan vici ta ilnaidút: amen.

Sinestendút firmequiró orren baitan ene *Jangoicoa Aita Jangoico, Semea Jangoico*, ta *Espiritu Santi Jauna Jangoico*: irur Persona distinto, eta *Jangoico* bát bacárr eguiáscoa.

Sinestendút orrenbaitan, Jesu *Christo, Jangoico* eta guizón eguiáscoa, cein concebitubaice *Espiritu* Sanduarén virtútez (sic), jaiocela *Virgina* Mariaganic, passatuzuéla pássio doloréscoa, gurucificatu, il, ta ortizizútéla (sic), jautsizéla limboetara, irugárren eguneán vitzucéla bere virtúte *proprios*, berrogeigarreneán igáncela ceruétara, án dagóla jarriric Aita eternoarén Escuietaco áldean, ta andic etorricodéla ónen eta gaichstoen juzgátzera.

Sinestendút Eliza Sanda Catolicoa, Sanduen

99at.

comúnoia, becátuen barcácoia, araguiarén erresurréccioa, vicitza seculácoia: eta laur Novissimo edo azquenecoác, Eriótzea, Juicioa, Inférnua, Gloria.

Sinestendút *escritura* sagrátuan, evangelioan, ta Elizan sinestecó dén gucian. Asqui dá orrén itza.

Sinestentút zázpi *sacramentuac*, eta gucién gañetic goréna aldaréco *sacramentua*, non dágon erreálqui presente Jesu *Christo Jangoico* guizóna modu milagrósco amorósoan gure onagátic.

Sinestendút, *Jangoicoaren* grácias ta *Christorén merejimentus* salva-tzengaréla eguines gueuren aldétic bérac manatzenduéna: eta fédea sollic obra onicgábe déla fede ila.

Confessatzendút humilqui emén, ene cúlpac anitz ta sóbra diréla; ene óbra ónac guti chipiac ta maldérrac: baña órtas dút péna: Suplibédi ene fála JesuChristorén *merejimentues*.

Esquérr milla, imbaunáu *Christio* emén; admitibenáza *Christio* Sánduen értean glórian. amen.

100

21

Esperanzarén Actoac iltzecó

1. *Confitemini Domino, quoniam bonus, quoniam in aeternum misericordia eius. Sentite de Domino in bonitate.* Fedea bezáin firme beárda izán gure esperánza, ezi gure fedea fundatzendá *Jangoicoaren* itz erreál eguiáscoan, eta gure esperánza berarén ontásun ta *miseri-cordia* infinitoan. *Sénti óngui Jangoicoás (l.)* dió *Espiritu* Sanduac: eta Davidec maiz, *Conféssa Jau-nari* baita óna, baita beticos *mugaricgabécoa* berarén *miseri-córdia*. Confessa gú gaichsto garéla sobra, bai sobra, baña alaére gú gaichsto baño onágo déla *Jangoico* óna.

Act. Sperent in te qui noverunt nomen tuum, Domine. Esperabezáte orrenbaitan, Jauna, ezauntzenduténec orrén óna. *Nic dút esperánza orren-baitan*, ene *Jangoicoa (l.)*, Jesu Christorén merejimentuengátic, Maria *Santissimarén (l.)*, ta Sandu gucién intercessioagátic emanendidála mundugón-tan bere *gracia*, eta bércean bére glória. Naidut vici eta il esperanzagonéqui orrén ontasúnean. Amen.

100at.

2. *Major est iniquitas mea, quàm ut veniam &.* Cainen ta Judasen beca-tua dá esperanzarén gáltzea. Ori dá erchitzea présocac bérac atária, naidióna idíqui erréguec libratzéco. Ori dá condenátzea bátec bére búrua, dagoláic

Jangoicoa salvatunáies. Ori dá eguitea agrávio ándia *Jangoicoai*, desconfiá-tzea berarén ónas, delaríc bere *Magestadearen* sendagállá gloriósoa garai-tzea bere onaréqui gure gaichstoa.

Act. Jauna, eztút nic erránen nola Caíneç, andiágo déla ene gaichstoa, ezi ezdezaqueten espéra barcáioa. Eztút nai añaditu bércé gaizquien gañe-tíc desconfianzaréna. Diót bai, gaichstoa naizélaric sobra bai sobra, alaére onágo déla berórren *Magestadea*. Berórren ónac éne gaichstoa garaitubeár-du, ta garaitzendú. amen. Nago neureas desesperaturíc, baña orrénas segu-raturíc.

3. *Speret Israel in Domino, quia apud Dominum misericordia et copiosa apud eum redemptio.* Múnduco guizónic obeneán ezlitzáque Esperanzaríc, inbaguindio aim—

101

bércé agrávio nola gure Jaunái: baña orái biz esperánza segúro: cerén Jau-narén misericordia baita infinito: eta erredenciónea eta satisfáccio *Christoc* emána baita abásto; baitezáque eguín misericordiarén gústo duén andía, justicia salvo.

Act. Jauna, zorrdiót infinito, baña barcatucodida, cerén barcazále an-día dén berórren *Magestadea*, eta ene fiadóre Jesus onac enegátic pagatu-duén *infinito*.

4. *Proprio filio suo non pepercit, &*

Bere seme propioarí eztió barcátu *Jangoicoac*, bai entregatuzué salva-tzeagátic gú. Nola etzigu emán arréqui báteo gucia ere, barcáioa, *indulgen-cia, gracia* eta salváioa? Ceren ezi *Jangoicoac* naidu guizón guciac salvadai-tzen, eta eztú náí malogradáien bere seme *Jangoico*-guizónac pagatuzuéna guregátic.

Act. Escatugábe emancígu *Jangoicoac* ilcéien bere seme propioa gure-gátic: obéqui emanendígu salváio escatzendíogúna. Eztiógu escátzen il-dáien berriz, bai provechadáien gurebaitan amoréscó excessogúra.

101at.

5. Galtzenduénac confiánza *Jangoicoan*, eztú ezauntzen *Jangoicoarén* óna: ezauntzendú Elizac, ta alá erratendió bein; *Deus, cui proprium est miseri-ri semper, et parcere: Ô Jangoicoa*, ceñen condicio *proprioa* baita *miseri-cordia* eguitea beti, ta barcátzea. Berriz, *Deus, qui omnipotentiam tuam par-*

cendo maximè et miserando manifestas: Ô Jangoicoa manifestatzen duena bere podóre infinitoa gueienic barcátzean ta misericordia eguitean. Berriz, *Deus qui abundantia pietatis tuae et merita supplicum excedis et vota; Ô Jangoicoa* itenduena piedade abásto, guc merejibáño, ta deseátu báño yágo. Berriz, *Deus qui neminem vis perire & Ô Jangoicoa*, eztuena náí galdáien níor sinésten ta esperatzen duenic orrenbaitan, baicic salvadaitzen guizón guciac. Berriz, *Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam*, Esquérrac ematentiógu bere gloria andiagátic; Cer glória dá au, baicic duén sendagálla gloriósoa barcátzean? Cer arima dá eztuena confiátzen aláco *Jangoicoan*?

102

6 *Domine, salva nos, perimus... Confidite, ego sum, nolite timere.* Apostoluec zeudelaric ondatzecó perillean beldúrrac, errancióte Jesus onarí, *Jauna, salvagaitza, gálduac gára.* Jaun ónac erránzue, *confiazáze; ni naiz: ez beldurric izán.* Beldúrr izatecó, dire anitz motivo, gueurén culpac, ta Jaunarén juicio justoac: Baña confiatzecó, dire ánitz yágo motivo: *Bat Jangoicoaren (l.) óna ta misericordia (l.) infinitoa (l.): bercebát* bérac dígun amóre admiragárrria: *bercebát* bere itz erreál emána, eztuéla nai becatariarén gáltzea, bai convertidáien ta vici: baitaré noiznáí convertidáien, admititucoduéla, ta ez-téla oroítuco arren gaizqui eguines. *Berce milla* intígung favóreac criátus, conservátus, preservátus, cristiátus & pág. 34: Milla gucién gañetic dá *Jangoicoa* guizón eguína, passátua pássio doloréscoa & guciá guizonengátic.

Act. Ô Jesus, ô *Jangoico*—guizóna, desesperabéz Deábruc: baña guizón dénac confia orrenbaitan.

102at.

7. *Mediator Dei et hominum homo Christus Jesus.* Christo Jesus *Jangoico*-guizóna dá bitartéco propía *Jangoicoaren* ta guizónen ártean: Ónen médios gúre Aita dúgu *Jangoicoa*: gure Ama bere Ama *Santissima*: gure aide ta adisquideac Ainguéruac: gure anai-arrébac Sanduac eta Sandac: gure anáia lén lembicicoa Jesus béra. Nola eztú confiatubeárr Christiobátec? Nola naicodiozúte eguín guciéi aláco agrávioa, nolácoa baita desconfiátzea, duzularic aláco Aita, aláco Ama, aláco anaia &?

8. *In te, Domine, speravi & in justitiâ tuâ libera me.* Becátu eguinic gaizqui eguindúgu; Jauna offendítu, ta gueuroc galduric gueldítu. Eztá erremedioric gaitzgónen? Badá. Nor? Offenditua déna béra. Gu escátzera báño lasterrágo dágo béra barcátzera: Béra nó denagátic.

Act. Ô éne Jesús óna, orrénbaitan dúte esperánza, eznaizela galdúco. Nor esperatzen duenic atradá gaizqui? Bere ónas libra ni. amen.

103

22

Caridatearén Actoac, iltzecó

Beira , naibauzu, ta errepéti, nola dauden p. 44.

1. *Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde &*. Gucién gañetic amátzea ta estimátzea *Jangoico* Jauna dá lembicicoa ta principaléna, provéchu ta ondásun gucía, arrácio ta obligácio gucía. Ama ta estimazázu zeure *Jangoico* Jauna zeure biótz guciaréqui, zeure arima guciaréqui, zeure entráña, ta indárr guciéqui. Ortáco motivoac dire infinito numeroicgábe: baña bida-tára bildaizque: bat dá izátea *Jangoicoa* nor dén ta nolácoa berebaitan: bercebát, nor ta nolácoa dén guretáco: lembicicoa izátea bere *Magestadea* infinitoqui óna, poderósoa, jústoa, principio eta fin gauza guciéna, on gucién itúrria, ta gucis amáblea parericgábe: *bigarrena* izátea gure amazále ta ongui-eguille bacárria:

Act. Ene *Jangoico* Jaun óna, ene arimarén amóre gucía, nic amátzen ta estimatzendút ene biótz guciaréqui, ene arima guciaréqui, & pág. 44.

103at.

2. *Quis sicút Dominus Deus noster &. Omnia ossa mea dicent, Domine quis similis tibi? Deus meus et omnia.* Nor gure *Jangoico* Jauna becála, vici-delaric gorén gorénean, beiratsenbaitu humiléi Céruan ta lúrrean? &. Ene

ezúrr guciéc erraindúte, Jauna, nor ori becalacoríc? Ain óna, ain edérra, ain amáblea, ta ain gure amazálea?. Cer biótz dá eztuéna amátzen orrén *Magestadea*? Ene *Jangoicoa*, ta ene gucía: ene gústoá, ene alegría, ene descánsua, ene hónra, ene ampáro segúroa, ene ondásun ta esperánza gucía, ene glória &.

3. *Quid tibi ego sum, ut amari te jubeas â me, et nisi faciam &*. Augustinus. Nor edo cer náiz ni berórren áldean, manatzenbaitída amadezátela, ta ezperén meachátzen miséria andiac? Aguián miseria chipia dá ez amátzea béra? Bada cer amatubeardút, ori ezpáda, edo orrengátic? Ori duénac ón gucía dú; eta ori dú amatzenduénac. Amátzen eztuénac ori, gucía galdudú. Orréc bada naidu amadezá-

104

ten nic: yágo dá naiizátea orréc, ezi amátzea nic. Amatzendút bada, ta naidut amátu atsaldióro azquéen atseráño, ta Eternidáde gucían. Ori betícos ene ón gucía, eta ni orrén pobréñoa. amen.

4. *Absorveat, quaeso, Domine, mentem meam &*. Jauna, orrén amorearén indárrac iretsibéz ene aríma, ta atrabéz ene gógo ta memória lurréco gauza gucietáic, acabanádien consumituríc orrén amóres ni, ene amóres litzelaríc berorí. amen.

5. *Nos ergò diligamus Deum, quoniam ipse prior &* Guc bada, dio S. Juárez, amazágun *Jangoicoa*, cerén bérac leníc amatugaituen gú. Amazágun yá icusiasguéros *Jangoicoa* gure amóres guizón, gure zamárra póbreas vestituríc, ta azquénean deseguiníc eta ilíc gurúcean gure amóres. Béñere gaizquiríc eguin eztígu, beti bai inficiobát óngui, ta azquénean bere vicia ta odóla emán!...

6. *Quomodò me amas, Deus meus, amor &* Augustinus. Nola amatzennáuen orréc ni, ene *Jangoicoa*, ene amó-

104at.

rea, ene ondásun gucía, nola amatzennáuen! *Dilexisti me plusquám te, quia mori voluisti pro me*. Amátunáu ni yágo ezi bere vicia, cerén naiizanduen gáldu vicia enegátic.

7. *Quid sunt plagae istae in medio manuum tuarum &* Cer dire llagógóiec bére éscu, oiñ, ta gorpútz gucían? Cer létra dire? Cer señále? Amorésco létrac, eta señále clároac, adiarázten ta icusiaraztenduténac cláro edérr, amatzengaituélá gú Jesus ónac.

8. *Omnis figura eius amorem spirat, et ad redamandum provocat, caput inclinatum, manus expansae, pectus apertum.* Gure onétsia Jesus dá chúria ta górria, bere ederrtasunagátic, ta digun amóre gueieguiagátic, eta aldegu-ciétaic guciétaic (sic bis) guciá amáble ta deseagárria. Bere ichúra guciá ere dágo errespirátzen amóre, ta convidátzen amatzerá béra; búrua inclinaturíc, besoac zabalduríc, bulárria idiquiríc. Nor dá amatuco eztuenic aláco amazá-lea ta ain amablea?

105

9. *Dilectus meus mihi, et ego illi.* Ya berás gure Jesus óna, gure *Jangoico-guizóna* bearda izán gure onétsia, eta gú berarénac. Eguinzágun trátu be-tícos: amen.

Act. Ô éne Jesus óna, ni guciáu berorréna, ta beróri nereá orái ta beti, desunitu-ezgaizquen guisan eternidáde gucian. Ô ene Jaun óna, amatenba-dút, amatzennáuéla (sic), dió. Nola eztút amatubeárr?

10. *Causa diligendi Deum est Deus ipse: modus sine modo diligere.* Bernardus. Motivoa, amátzeco *Jangoicoa*, dá *Jangoicoa* bera: amátzeco ma-néra dá amátzea ezin yágos mugaricgábe. Jauna, diót ceruarén ta lurrarén alcinean, nagóla obligaturíc amátzea beti orrén *Magestadea* ezin yágos, ez-pálitz ere premioríc, ezpálitz ere penaríc. Ojalá consumibalédi ene vicia ber-rórren amarezén súas! Nainúque gogótic amalezáten amadezaquéten gu-ciéc. Placerdút amadezáten amateunténe, ta pena dút ez amátzeas bearr-adiña níc eta anitzéc. *Quis mihi det, ut ego moriar pro te? Ô pulcritudo anti-qua.*

105at.**23****Contricioarén Actoac, iltzecó**

1. *Pater, peccavi in caelum et coram te: Jam &* Becatárien erremédio bacárria dá *penitencia*, edo penátzea biotzéz (sic) gaizqui eguínas. Galtzen-gára hume gaichstoóc apartátus *Jangoicoagánic*: erremediatzengára itzúlís bera gána; ezi Aita ona dá, eztú despeitúco biótz penátua humillatzendéna escátzera barcácio. *Juramentu* eguiníc dauca, eztuéla nai galdáien becatária, baicic convérta ta salvadáien: eta noiz náí itzuliric, admititucoduéla bere *gracian*, eta yá guerostic eztéla oroitúco arrén gaizqui-eguínes. Ea bada itzuligaitzen húme prodigoarén guisará erratendiogúla, *Aita, becátu eguindút ceruarén cónta, ta orrén cónta &*.

2. Egunoróco óguia becála contriciósco átoa: *Jesu Christo* ene Jauna, *Jangoico* ta guizón eguiáscoa, ene Criadórea, ene Erredentórea, ene Aita amorósoa, beróri denagátic infinitoqui óna ta maitagárria, ta cerén onestenbaitut gauza guciac baño

106

yágo, dámu dút, Jauna, dút dámu ta urríqui ori offendítuas. Proponitzen-dút ez yágo becuric egitéco; ta apartátzeco becátuen ocásio gucietaic &.

3. *Tibi soli peccavi &*. Beróri sollíc, Jauna, beárrnue amátu ta estimá-tu: eta beróri sollíc dút agraviátu, eta berórren cónta eguindút gaizqui.

Nere gaizqui eguína ezauntzendút, ta ene caltetán dá beti ere. Ah! gaizqui eguína! Jaun óna agraviátu, eta neure burua galtzera botátu.

4. *Quid ultra debui facere &*. Etsué gure Jaunac alacoríc meréji, ez gu-regánic. Cer gaizqui eguindígu bérac gurí séculan? Edo cer óngui eztigu eguin? Cer yágo eguinbeárzue induen baño? edo cer yago eguinzúque? Orói emén ongui eguines & pág. 34.

5. *Filios enutrivi, et exaltavi, ipsi autem spreverunt me. Filii alieni mentiti sunt mihi*. Arracioréqui quejatzendá Aita óna, húmeac ázi, ta favoratu-tuéla, eta despreciatudutéla ayéc béra: húme gaichstoec guezúrr indiotéla.

106at.

Act. Arráció dauca, Jauna; Beárnue emán nere vicia orrén zervitzután: beárnue onétsi berére entráña guciéqui: beárnue bentzáit ez atzédu, ez útzi, ta ez offendítu múndu guciagátic ére: baña cóntra eguindút &.

6. *Malum et amarum est reliquisse te Dominum &* Nor dá offenditudu-gúna? Eta cergátic? Ene *Jangoico* Jauna dá: eta offendítu deus guti valio-duenagátic! Ô Jaun óna, ene amóre ta ón gucía, naiz deus gábe ni gueldítu, naiz gucía galduríc, niolatérez ori eznué beárr offendítu.

7. *Quem fructum habuistis in illis &*. Ah! ezpánu beñere offendítu! Cer provéchu atradút? ah! nola nindegóquen! ta nola nágon! & *Ô pulcritudo (sic) antiqua & Ô* Jaunarén ón ederra, cein beránt ezaundudúten! Cein beránt onetsidúten! Cein gaizqui corresponditudióten! *Confitebor tibi in citharâ &* Confessatucodiót citharan ene *Jangoicoa*: orrén óna ta nere gaichstoa; orrén amórea, ta nere *desamorea &*

107

24

Barcácio-esquearén Actoac, iltzecó

1. *Domine, ad quem ibimus? Jangoico* andia offendituríc gueuren cúl-pes, norengána joingára? Beragána, ezpaita niór bera bezain berách amoltsuríc, naiz offendituríc. Aita dá béti, offendituríc ére, naibaitu salvátu húme gaichstoa offendituduéna. Itzuli bada penaturíc, ta errán:

Act. Ô ene *Jangoicoa*, ene Aita divinoa, berorregána itzultzennáiz. Confessatzendiót: offenditudút: gaizqui eguindút: baña péna dút: imbez enéqui *misericordia*: barcátu, Jauna, barcátu. amen.

2. *Deus, cui proprium est misereri semper et &.*

Act. Ô *Jangoico* Jauna, ceñén condicio *proprioa* baita izátea *misericordia* beti, eta barcátzea: manifestatzenduéna bere podóre *infinitoa* gueienic barcátzean; eta gúc meréji baño, ta escátu baño yago itenbaitu piedáde abásto; azqueníc órtas baitu sendagálla gloriósoa, *gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam*, Esquérr milla diógu be—

107at.

re gloria andigorrengátic. Valiabequída niri.

3. *Advocatum habemus apud Patrem, Jesum &.*

Act. Etzé arráció becátu eguitea aláco Aita onarén cóntra: baña guciaréqui, dió S. Juanec, *Avogátu dúgu Aitarénganáco Jesus óna, lográtzecó pie-*

dáde ta barcácio, ez solamente (l.) gure becatuén, baita mundu gucicoén ére. Bada otói, ene Aita óna, eguinbez, enegátic ezpáda, bere sème *proprio* Jesús onagátic, cein baitúgu berórrec emánic gure salvazále ta fiadóre pagatudué-na edérrqui &.

4. *Si quid petieritis Patrem in nomine meo, dabit* & Erránic utzizué Jesus berac, edocéin gauza escadezógun Aitarí berarén izénean, emanendígú-la. Escatzendiót bada Jesusen izénean barcácioa: nic eztudána meréji, merejidú achsúri divinogóne: Ezpádu meréji, eztiót deus: baña merejidú sinés: berarén *merejimentuengátic* barcabezáda &.

5. *Aspice, Deus, et respice in faciem Christi tui.* Beira, Jauna, beirabéz bere sème Jesu Christorén

108

